goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2015-10-30
EGUBAKOITZA
658. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM


XABIER URZELAI

**Mikel Aristi** | Ziklista

## "Gozatu egin dut entrenatzen eta lasterketetan"

Delko Marseille–Provence KTM–ekin ibiliko da | 26

Bihar, zapatua, 'Marina' opera Arrasateko antzokian | 13



Garaiko produktuen azoka egingo dute Aramaion | 24



300 korrikalari lehian Soraluze eta Bergara arteko bidegorrian | 27

# Herritarrek erabakiko dute hondakinak zelan batu

Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan herri galdeketak egingo dituzte | 2 ETA 'HERRIAK' SAILA


Joserra Zubizarreta, Unai Elkoro eta Juanje Alberdi. | UBANE MADERA

## Iragana 'astinduko' dute atzera ere Arrasaten

Bertako historia partekatzeko hitzaldi zikloa antolatu dute | 9

## Debagoieneko udalek 1,18 milioiko gehigarria

Udal Finantzaketa Foru Fondotik etorriko da dirua | 3

### SINADURAK


LAURA QUELLE | 6

6 | AMAIA TXINTXURRETA



INES ALDAI | 11

15 | PEDRO GARITANO



GORETTI MADINA | 18

23 | IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ



ANDER ELORTONDO | 24

40 | ANDER ETXEBERRIA





ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Gorenera iritsi nahi duten kirolari gazteak
- Idurre Eskisabelekin, euskaraz eta feminismoaz

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05



## Argia itzaltzen denean

Udazkenetik negurako aroa da hildako arbasoak oroitzekoa | 4

Oñatiko hilerriko panteoi bat.

JAGOBA DOMINGO

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 9 | KIROLA 26 | KULTURA 30 | GAZTEAK 33 | ZORION AGURRAK 34 | ZIRE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# Herritarrek erabakiko dute hondakinak batzeko zein sistema duten gurago

- Bergaran eta Eskoriatzan azaroan galdetuko dute
- %70eko birizklatze maila aldarrikatu dute zero zaborretik

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

"Aurreko legealdian hain liskartsua izan den zaborren gaiari behingoz amaiera emateko asmoarekin eta eztabaida politikotik gai hau baztertzeko, herri kontsultak egitea erabaki dugu; Eskoriatzan eta Aretxabaletan hala agindu genuen hauteskunde kanpainan, eta betetzera goaz emandako hitza. Bergarak hasiera batean beste negoziazio bide batzuk jorratzeari ekin zion, gaiari irtenbide bat emateko helburuarekin; baina elkarrizketek fruiturik eman ez dutenez, azkenean, kontsultaren bidea hartzea erabaki du".


Joserra Zubizarreta, Unai Elkoro eta Juanje Alberdi. | UBANE MADERA

Horrela iragarri eta arrazoitu ditu oraingo astean Unai Elkorok, Aretxabaletako alkateak, datozen hiru hilabeteotan Debagoienean egingo diren hiru herri galdeketak. Horien bitartez zehaztuko dute herri horietako hiri hondakinak batzeko zein sistema erabiliko duten aurrerantzean.

Hain justu, azaroaren 29an egingo dituzte Bergaran eta Eskoriatzan eta urtarrilaren 24an Aretxabaletan.

**Bi aukera bi udalerritan**

Bergaran eta Aretxabaletan bi sistemaren gainean galdetuko diete herritarrei; zehazki, Bergarako kasuan, honako bi aukera hauek izango dituzte: *5. edukiontzia* edo *atez atekoa*. Hala izatea onartu zuen asteleheneko osoko bilkurak, baina oposizioan dagoen EH Bilduren desadostasunarekin. *Atez atekoa* erantzuna *Gaur eguneko sistema* erantzunagatik ordezkatzea proposatu zuen koalizioak, besteak beste.

Juanje Alberdi Bergarako alkateak azaldu du zer dela eta erabaki duten galderak daudenetan planteatzea: "Erabakia nahiko garbi geneukan; izan ere, bere egunean Bergaran zabor bilketa bide berria inplantatu zenean, argi eta garbi udalbatzara eraman zuten esaten atez ateko sistema dela, eta herrian ere atez ateko sistema bezala ezagutzen dute denek, eta argiena zen galdetzea: *atez atekoa* ala *5. edukiontzia?*".

Aretxabaletari dagokionez, atez atekoaren eta bosgarren edukiontziaren artean aukeratu beharko dute herritarrek, eta azaroaren 16ko osoko bilkuran onartuko dituzte herritarrei emango dizkieten aukerak.

Eta eskoriatzarrei dagokienez, haiek hiru aukeraren artean erabaki beharko dute: 5. edukiontzia, atez atekoa edo sistema mistoa. Joserra Zubizarreta alkateak esplikatu du hori horrela egiteaaren arrazoia alderdi politikoen arteko erabateko adostasuna lortzea izan dela. "Orain arteko erabaki guztiak aho batez hartu ditugu; eta, justu, aho bateko horretan sartzen zen hirugarren aukera hau ere: mistoa. Horregatik erabaki genuen hiru galderak planteatzea; izan ere, guretzat garrantzitsua zen erabakiak aho batez hartzea talde politiko guztiek".

**Hauteskundeetako prozedura**

Kasuak kasu, herri galdeketen prozedura berbera izango da hiru udalerriotan; edozein hauteskundetan erabiltzen den prozedura errespetatuko da, alegia. Hori bai, zenbait egokitzapenekin.

Batzuk aipatze aldera, posta bidez bozkatzeko aukerarik ez da egongo, baina bai aurretiaz botoa ematekoa: tokian tokiko udaletxeetan eta idazkariaren aurrean.

Bozkatu ahalko dute 18 urtetik gorako herritarrek, udalerrietako erroldak aintzat hartuta. Eta edozein hauteskundetan moduan, botoak jasotzeko hauteskunde-mahaiak osatuko dituzte. Hori bai, mahaiburuak, herritarrak barik, udal langileak izango dira; eta, hasiera baten, boluntarioak eskatuko dituzte mahaiak osatzeko. Halakorik lortu ezean, ohiko zozketara joko dute.

Aretxabaletako alkateak herritarrak animatu ditu euren iritzia bozka bidez eman dezaten, liskarrak albo batera utzi eta orain herriaren txanda dela esanda. "Ea parte-hartze garai berri baten hasiera den, inposizioak atzean utzi eta herriaren nahiak benetan kontuan hartzen ditugun denok".

**Birziklapen maila**

Bada, iragarritako herri galdeketa horien buletan, Oñati Zero Zabor taldetik bilketa sistemak

Giartzu Estetika Zentroa

Boni Laskurain 4 – BERGARA
Tel.: 943 76 35 71
www.giartzu.com



Depilaziorako laser BERRIA

Giartzu Estetika Zentroa beti dago abangoardian, behin betiko depilaziorako dauden sistemak eta tratamenduak ikertzen ditu, eta aurkezten digu:

RD 10 laserra

- Ile ilunak, argiak eta pelusilla horia tratatzeko eta kentzeko.
- Azal zuria eta azal beltzarana dutenen ileak tratatzeko
- Gizonezkoen ileak tratatzeko programa berezia
- **Apenas ematen du minik**
- Askoz tratamendu-saio gutxiago hartuta.
- Emaitza azkarragoekin

*(Nahi duzunean, proba bat egingo dizugu)*




berak baino, haren bitartez lortzen den birziklapen maila garrantzitsuagoa dela azpimarratu gura izan dute: " Gaur egun ezagutzen den sistema eraginkorrena atez atekoa da, baina Bergarako sistema mistoak edota Arrasateko edukiontzi kontrolatuen sistemak ere emaitza oso onak eman dituzte, eta guztion artean Debagoiena %80 inguruko birziklapen mailan jartzea lortu dugu, Europa mailan eredu izatera iritsiz. Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan antolatu behar diren galdeketetan eraginkortasuna erakutsi duten sistema hauen artean aukeratu beharko litzateke, gutxieneko %70eko gaikako bilketa bermatuz. Izan ere, helburuak eta bitartekoak ez dira nahastu behar. Bitartekoak ezberdinak izanda ere, guztiek helburu berbera izan behar dute, material konpostagarri eta birziklagarriak errefusera botatzea ekiditea, alegia. Hondakinak zabor bihurtzea onartezina da, kutsatzea kaltetzea baita, besteen eskubideak urratzea".

**"Gutxienez, %70"**

Eta eskaera bat ere egin dute, bilketa sistemari dagokiona: "Europan erreferente" bilakatu ondoren, "orain, zero zabor bideari heldu ala zaborraren eta errausketaren bidetik joan daukagu jokoan. Horregatik, gutxienez %70eko bilketa tasa bermatzen duten sistemen artean galdetzea eskatzen dugu".

Xehetasun gehiago jakiteko *Herriak* sailera jo.

# Gaur irekiko du ikasturtea UNED-Bergarak

## Iluntzean da ekitaldia, osoko bilkuren aretoan

U.M. | BERGARA

Gaur, egubakoitza, egingo dute UNED-Bergara Ikastetxe Elkartuaren ikasturte hasierako irekiera ekitaldia. 19:00etan da hitzordua, Bergarako osoko bilkuren aretoan.

Halakoetan ohi denez, hainbat erakundetako ordezkariek parte hartuko dute ekitaldian. Hain justu ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza eta Gizartearekin Komunikazio diputatu Imanol Lasa bertaratuko da; baita Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketako sailburuorde Adolfo Morais Ezquerro; jakina, UNEDeko zuzendari Iñaki Espartza ere izango da bertan, eta baita UNEDeko Inspekzio Zerbitzuko zuzendari Jorge Montes Salguero eta Bergarako alkate Juanje Alberdi ere.

**Diploma banaketa ere bai**

Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle emeritu Jose Manuel Castells arduratuko da hasierako hitzaldia egiteaz: *Mikeleteak gaur egun.*

Eta horrekin guztiarekin batera, gaurko ekitaldian, 2013/14 ikasturtean graduatu edo lizentziatu diren ikasleei diplomak banatuko dizkiete.

Ekitaldiari amaiera borobila emateko, berriz, Bergarako Musika Eskolako hari taldeak emanaldia egingo du.

**25 titulazio**

Gaur modu ofizialean irekiko duten ikasturtean 25 titulazio baino gehiago eskainiko dituzte UNED-Bergaran. Aurten, gainera, gradu, master eta Doktoretzez gain, graduondokoetan, etengabeko prestakuntzan eta hizkuntzetan eskaintza zabala egin du Bergarako zentroak.



Bergarako zentroa. | GOIENA

# Jaioberrien erregistroa ospitalean egingo da

## Datorren astetik hasiko dira sistema berria

JON BEREZIBAR | DEBAGOIENA

Erregistro zibileko datuen komunikazioa telematikoki egingo da datorren hiletik aurrera, administrazioa modernizatu eta zerbitzuen hobekuntzarako helburuarekin. Jaiotzatik 72 orduko epean egin beharko dute gurasoek edo amak –ezkongabea balitz– erregistroa, Debagoieneko Ospitaleko harrera orokorrean, 09:00etatik 20:00etara.

**Harrera orokorrean**

Administrazio publikoaren erreformarako batzordeak hartutako neurri berrietako bat da, eta jaioberrien gurasoei erregistroa erraztu gura zaie, ospitalean bertan horretarako aukera emanda. Formulario ofiziala harrera orokorrean bertan bete ahal izango da, medikuaren onespenarekin eta jaiotza agiriarekin batera. Izapideak eginda, telematikoki helaraziko zaio dagokion erregistroari.

**Besteetan ere bai**

Ezkontza barruko zein kanpoko jaioberriak eta ama ezkongabeenak erregistratu ahalko dira, eta salbuetsita geratzen dira gainerako kasuak.

Jaiotza erregistroaren agiria posta elektronikoz bidaliko zaie gurasoei, edo ohiko postaz, hala eskatuz gero. Debagoienaz gain, Debabarrenean, Goierri-Urola Garaian ere egongo da aukera,

### Debagoiendar bi EAJren Senaturako zerrendan abenduaren 20ko hauteskundeetarako

Gipuzko Buru Batzarrak aukeratu ditu abenduaren 20ko hauteskundeetarako hautagaiak, Kongresurako eta Senaturako. Hain justu, Joseba Agirretxeak eta Maria Eugenia Iparragirrek jaso dute jeltzaleen babesik  zabalena. Edozein modutan, Senaturako zerrenda debagoiendar bik ere osatzen dute. Victoriano Gallastegik –Bergarako alkate ohia–; eta Rafael Uribarrenek –Arrasaten jaioa eta Gipuzkoako Foru Aldundian Landa Garapenerako diputatu izan zenak Joxe Juan Gonzalez de Txabarriren agintaldian–.

# Debagoieneko udalek 1,18 milioiko gehigarria jasoko dute Foru Aldunditik

- Udal Finantzaketa Foru Fondotik etorriko da dirua
- Aurrelikidazioaren datua positiboa izan da



Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluaren bilera. | GFA

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Gipuzkoako udalek ia 14 milioi euro gehiago jasoko dituzte aurten Udal Finantzaketa Foru Fondotik; horietatik 1,18, Debagoieneko udalek. Hori da udalen diru-sarrera nagusia, eta Ogasunak egiten duen diru-bilketatik elikatzen da. Leintz Gatzaga ez beste herrietan, biztanleko 600 bat euro banatuko du Foru Fondoak; Leintz Gatzagan, 900 euro biztanleko.

Udal Finantzaketa Foru Fondoaren aurtengo aurrekontua 430 milioi eurokoa zen. Urrian, aurrelikidazioa egiten da eta datu hori jakinarazten zaie Gipuzkoako udalei. Bada, aurten, urtea bukatu orduko, 430 milioi horiek baino %3,22 gehiago batzea aurreikusten du Foru Ogasunak.

**Datorren urtean ere, positiboa**

Debagoieneko alkateek aho batez diote "albiste ona" dela. Estra hori 2016ko aurrekontuetan sartuko dute, eta datorren urtean erabakiko dute zertarako erabili. Kasu batzuetan, zorrak kentzeko erabiliko da; beste batzuetan, gastu korronteak ordaintzeko...

Alkate batzuek oraindik zuhur jokatu gura dute, Eskoriatzako alkate Joserra Zubizarreta, kasu: "Ongi etorria izango da, baina betiere, konfirmatzen bada". Izan ere, Ogasun diputatu Jabier Larrañagak ohartarazi zuen oraindik diferentzia batzuk daudela EAEren eta estatuaren artean kupoa kalkulatzeko orduan, eta baliteekela horrek azken emaitzan eragitea. Baina baikorrak dira foru arduradunak, eta datorren urtean ere saldo positiboa egongo dela iragartzen dute: 458,9 milioi izango ditu Foru Fondoak, aurtengo likidazioan baino %3,49 diru gehiago.

**Alkateen irakurketa**

Oñatiko alkate Mikel Biainek hazkunde horretarako ematen duen azalpena hauxe da: "Aurreko urteetan foru aldundiak egindako zerga politika aurrerakoiari esker izan da, neurri handi baten; progresibitatea eta birbanaketa oinarri hartzen duen zerga politika garatu da". Aretxabaletako alkate Unai Elkorok azpimarratzen du, berriz, Araba dela diru-bilketan gehien hazi den lurraldea, baina "aurreikuspenak oraindik jaso duen baino hobeak" zirela, eta datorren urtean hiru lurraldeetan haziko dela bilketa, aurreikuspenen arabera.

**ESANAK**

"Aurreko foru gobernuaren zerga politikari esker izan da"

MIKEL BIAIN
OÑATIKO ALKATEA

"Araba da zerga-bilketan gehien hazi den lurraldea"

UNAI ELKORO
ARETXABALETAKO ALKATEA

**ZENBAT GEHIAGO**

| HERRIA | JASOTZEKO |
|---|---|
| Arrasate | 415.662 |
| Bergara | 279.867 |
| Oñati | 212.142 |
| Aretxabaleta | 130.605 |
| Eskoriatza | 76.950 |
| Antzuola | 41.161 |
| Elgeta | 21.586 |
| Leintz Gatzaga | 7.145 |
| GUZTIRA | 1.185.118 |

*Iturria: Gipuzkoako Foru Ogasuna

# Hildako arbasoak oroitzeko unea

- Domu Santu eguna da bihar, azaroaren 1a; etzi, berriz, Hildakoen Eguna
- Historiaurrean hasi zen gizakia hildako arbasoak lurperatzen eta ondorengoarekin kezkatzen



Oñatiko kanposantua, goitik ikusita. | JAGOBA DOMINGO

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Eskualdeko kanposantuetara joatea besterik ez dago jabetzeko hildakoak gogora ekartzeko sasoia dela.

Urteko egutegiak, kristautasuna abiapuntu, azaroaren 1a, Domu Santu eguna, gorriz markatzen du. Egun hori da, berez, liturgia-urtean bere jaialdia ez duten santuak omentzeko jarritakoa. Biharamuna da, berriz, erlijio beraren arabera, Hildakoen Eguna, oraindik Garbitokian (purgatorioan) dabilen hildakoen arimak laguntzeko. Domu Santu eguneko ohitura ez da ere hain antzinakoa.

Arrasateko parroko Horazio Argaratek azaldu izan duenez, gaur egun ezagutzen dugun moduan, ospakizunak 1.000 urte ditu; ordukoa da hilobia lorez apaintzeko ohitura.

Eta ohiturak aldatzen diren seinale da hildakoei azken agur hori egiteko moduak aldatu egin direla, adibidez, orain hiletak modu zibilean egiteko aukera ere badagoelako, herri gehienetan ordenantza bidez araututa.

**Gaur egun ere, elizatik**

Hain justu ere, orain dela sei urte eskasera arte, elizaren bitarteko aukera zen "araututa" zegoena. Eta nahiz eta azken urteotan hileta zibilak egiteko ate publikoak zabaldu, eta ordenantzen bitartez bide hori arautu, Debagoienean, oraindik orain, elizaren bitartez bideratzen da kasu gehienetan azken agur hori, alde handiarengatik, gainera.

**"Estatu laikoa"**

Landutako ordenantzen abiapuntua –onartu den azkena aintzat hartuta, Elgetakoa–, honako hau: "Estatu ez-konfesional eta laiko batean, erakundeek pertsonen eta elkarteen askatasun ideologiko eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna bermatu behar dutela gauza jakina da gizartean, eta horretarako muga bakarra legeak ezartzen duen ordena publikoa errespetatzeko beharra da. Bestalde, gure gizartean aniztasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturala da nagusi, gizarte plurala baita, eta ohituren eta ekintza sozialen adierazpenak etengabe ari dira aldatzen. Hil ondorengo hileta edo omenaldi zibilak egiteko behar soziala erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik sortu da, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko".

**Aramaion eta Gatzagan, ez**

Datutan sartuta, Eskoriatza izan zen ordenantza onartzen goiztiarrena: 2009an. Arrasatek, Bergarak, Aretxabaletak eta Antzuolak 2010ean egin zuten hori; Oñatik 2012an; eta Elgetak aurten onartu du ordenantza; Aramaiok eta Leintz Gatzagak, aldiz, ez dute ordenantzarik, bi kasuotan eskaerarik ere ez dutelako izan. Edozein modutan, bi kasu horietan ere, eskaririk balego, tokian tokiko udalak arduratuko lirateke hari bidea eman eta beharrezkoak diren azpiegiturak ahalbidetzen.

**1a ez dira egin**

Datu gehiagotan sartuta, kopurutan, kasu honetan, oso deigarriak dira. Izan ere, itxuraz –eta diskurtsoz–, azken hamarkadetan erlijioarekiko –katolikoarekiko– atxikimendua txikitu egin dela dirudien arren, azken agurra egiteko garaia heltzen denean, elizatik jotzen jarraitzen da.

Adibide batzuk –udal iturrien arabera–: Oñatin, hiru urtean, ez da hileta zibil bat bera ere egin –arautuko bideak jarraituta; bestela, hileta zibil bat edo bi egin dira–; Bergaran eta Antzuolan bina egin dira; Arrasaten "oso gutxi"; Aretxabaletan pare bat; eta Leintz Gatzagan, Aramaion eta Elgetan ez dira egin.

**Kostu bakoak gehienetan**

Edozein modutan, egin izan diren kasuetan, udalak dira hileta zibilak egiteko beharrezko diren azpiegitura guztiak lagatzen dituztenak eta horretarako lekuak finkatzen eta lagatzen dituztenak ere bai. Oraingoz, kasu gehienetan, inolako kostu barik egiten dute hori; fidantza eskatzen dute, hori bai, Bergaran.

Izan ere, udalerri guztietan hileta egiteko lekua lagatzeaz gainera, familiak behar dituen bestelakoak ere uzten dituzte: jarlekuak, mahaia, megafonia... Eta utzitako hori guztia egoera onean bueltatzen dela ziurtatu besterik ez dute egin gura fidantzaren bitartez. Eta Antzuolan, irizpide bera erabilita, Udalaren baliabideak erabiltzeagatik ordaindu behar den prezioa kobratzen dute.

**OIER ARAOLAZA** | ANTROPOLOGIAN LIZENTZIADUNA

## "Gizakiak gizaki denetik du hildakoekiko kezka"

Oier Araolaza (Eibar, 1972) Antropologian lizentziaduna da. Egunotan, adibidez, Eskoriatzan izan da, Arimen Egunaren bueltan berbetan. Hildakoak gurtzeko ohituraren gainean galdetuta, dio "gizakiak gizaki denetik izan duela hildakoekin zerbait egiteko beharra edo gogoa; besterik ez bada, oroitzekoa".



OIER ARAOLAZA

**Gizakia gizaki denetik?**

Historiaurretik ditugun aztarnetako batzuk horrekin lotuta ageri zaizkigu: enterramenduak. Hildakoa animalia harraparien esku utzi beharrean, hilobiratu, edo, behintzat, lurperatu edo erre egin den momentutik, horrek esan nahi du gizakiak baduela gaiarekin kezka bat: beste bizitza bat izango ote zen edo ez, horrako zerbait prestatu edo ez, gorpua hil eta arimarik geratuko ote den edo ez... aspaldikoak dira, nahiz eta zehazki ze momentutan hasten den gizakia hildakoak agurtzen eta gurtzen ez garen datatzeko gauza, Historiaurreko fasean kokatzen delako.

> **"Orain gertatzen da naturaren heriotza eta berpiztea"**

**Gurtze hori azaroarekin lotzeko arrazoiren bat bada?**

Udazken eta negu arteko fasean natura bere unerik baxuenera iristen da. Teoria frazeriano gehienen arabera, une honetan gertatzen da naturaren heriotza eta berpiztea. Eta Frazerrek lotzen ditu erritu hauek guztiak naturaren heriotza eta berpiztearekin. Aldi berean, eguzkiaren zikloarekin ere lotzen da. Hain zuzen, neguko solstizioa, abenduaren 20an eta 21ean kokatzen dena, eta kristautasunak Jesusen jaiotzarekin —nahiko berriki bada ere— lotu duena; bada, hori ere eguzkiaren itzaltze eta berpizte horrekin lotzen da. Ez da bakarrik azaroaren 1a, eta Domu Santu eguna, baizik eta da neguko aroa: azaroaren 1etik Urteberri edo Errege Egunera doan aroa oso lotuta dago heriotzaren eta berpiztearen ideiarekin.

**Eta zertan da erritoen bilakaera?**

Oso kuriosoa da; izan ere, orain modan jartzen ari da, baina historian gehien funtzionatu duena errausketa izan da. Eta hori logikoa da, praktikoa delako. Historiaurreko azken zibilizazioetako baten ezaugarrietako bat ikustea besterik ez dago —Urnenfelder, kristautasunaren aurretik Europan zabaltzen zen kultura, Brontze Aroan—: hildakoak errausten ondoren urnetan (ontzietan) gordetzen zituzten eta gero lurperatu egiten zituzten. Laburbilduz, beraz, orain dela 3.000 urteko ohituretara bueltatzen gabiltza.

## Pertsona ezagunak hainbat hilerritan

**ARRASATE**

On Jose Maria Arizmendiarrieta (1915-1972), Arrasateko mugimendu kooperatiboaren sortzailea dago bertako hilerrian.

**BERGARA**

Telesforo Monzon (1904-1981) euskal idazlea eta politikari nazionalista (Jaurlaritzako kidea), gerora Herri Batasunaren sorreran parte hartutakoa; Bergarako hilerrian dago.

**OÑATI**

Rodrigo Saez Mercado de Zuazola (1460?-1548) Errege Kontseilari eta Mallorcako eta Avilako apezpikua izan zen humanista oñatiarra; besteak beste, Euskal Herriko lehen unibertsitatearen (Oñatikoa) sortzailea. Hil-kaperaren eraikuntza San Migel elizan dago.

**ANTZUOLA**

Cesareo Gabarain (1936-1991) Juan Pablo II.a aita santuaren kaperaua, kirol talde ugariren abadea —tartean, Fagorrena eta Real Madrilena—, eta musikaria. Urrezko Disko bat eskuratu zuen. Antzuolako hilerrian dago.

**ARETXABALETA**

Ramon Gonzalez-Tablas jenerala (1842-1916), Otalora familiakoen alabarekin ezkondu zen. Sevillarra izan arren, atxikimendu handia izan zuen emaztearen jaioterriarekiko.

**ESKORIATZA**

Jose Arana (1839-1908) eskoriatzarra Donostiako Aste Nagusiaren bultzatzailea izan zela diote. Zezenekin eta ikuskizunekin lotutako enpresari garrantzitsua izan zen.



**Pilotalekuak, parkeak...**

Hiletak egiteko lekuak aipatuta, orotarikoak bideratu dituzte udalerriek zerbitzu horretara: udal eraikinak, parkeak, museoak, pilotalekuak…

Eskoriatzan, Ibarraundi museoan egin daitezke; eta Aretxabaletan, udaletxe osteko lorategian edo Iturrigorri frontoian –landaguneetan, bertako auzo-alkateak, udalerriko alkatearen oniritziz, izendatutako lekuetan–.

Arrasateri dagokionez, bi leku bideratu dituzte: Aldai parkea eta San Kristobal hilerria; Oñatin, bat: Santa Ana aretoa; eta Bergaran, Kataibiako plazan –auzoetako pilotalekuetan ere bai: Osintxun, Angiozarren…–. Antzuolara joanez gero, han eskolako patioan egiten dira, aterpea eta harmailak dituelako, baina, araudiaren arabera, frontoian ere egin daitezke. Eta Elgetan, Udal Pilotalekuan, Mendizaleen plazan, Domingo Iturbe plazan, frontoi zaharrean, San Roke osteko plaza txikian eta udalbatzarren aretoan egin daiteke.

Bide batez, esan behar da ordenantzetan hileten ordutegia zehaztuta dagoela.

**Hizlariak**

Bestalde, hiletetan izaten den beste elementu bat hizlaria da. Hileta elizkizuna den kasuetan, jakina, abadea arduratzen da zeregin horrekin. Hileta zibiletan, berriz, hildakoaren gertukoak izaten dira ardura hori hartzen dutenak. Edozein modutan, Debagoienean salbuespen bat bada: Arrasate. Izan ere, hiletetan jardun gura dutenen zerrenda publikoa sortu dute; oraingoz, pertsona bakarrak eman du horretarako izena.

**Hizlariak**

Hileten ondoren, berriz, gorpu gehienak erraustu egiten dira gaur egun; eta hori kontuan hartuta, geroago eta kanposantu gehiagotan daude errautsak dituzten ontziak lurperatzeko lekuak, eta, jakina, hori egiteko prezioak zehaztuta. Aramaion, adibidez, errautsen ontzia lurperatzeak 49,92 euro balio du. Eta Arrasaten –auzoetan– antzera: 47,30 euro. Gainontzean, ohiko lurperatze prezioei dagokienez, 191 euro balio du, adibidez, Elgetan. Eta Arrasaten, auzoetan lurperatzeak 375 euro. Errausteari begiratuta, berriz, 326,40 euro kostatzen da Arrasaten, baldin eta bertan erroldatutakoa bada hildakoa; hala ez bada, 383,50 euro da prezioa. Eta beste zerbitzu baten prezioa jartze aldera, tanatorioa erabiltzeko aukera ere bada, adibidez, Arrasateko hilerrian: 66,10 euro da prezioa.

**DATUA**

| 6 URTE | 50 EURO |
|---|---|
| Orain dela sei urte (2009an) hasi ziren eskualdeko udalerrietan hileta zibilak egiteko ordenantzak lantzen eta onartzen. | Batez beste, 50 euro kostatzen de eskualdeko kanposantuetan hildakoaren errautsen ontzia lurperatzeko zerbitzua. |

# Errigorako eta Zuberoako otarreak eskuragarri

## Errigorakoa azaroaren 8a aurretik eskatu behar da

JON BEREZIBAR | DEBAGOIENA

Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari eta Zuberoako Eperra ikastolari laguntzeko produktu sorta eskaintza egingo dute aurten ere, eta, Debagoienean, bertako euskara elkarteen bitartez eskuratu ahalko dira.

Eskaera egin eta Debagoieneko ia herri guztietan jaso ahal izango dira otarreak.

**'On line' ere bai**

Nafarroa hegoaldeko sortan 15 ekoizleren produktuak jasotzen dira, 50 euroren truke, eta jasotako diruaren %25 Lodosa eta Vianako ikastolentzako, Erriberako AEKrako eta D eredua herrialde osora zabaltzeko ekimenerako laguntzetara bideratuko dute.

Xiberoako Ikastolaren aldeko otarreak, berriz, 40 euro eta 52 eurokoak aukeran, tokiko produktuekin osatzen dira.

Eskaria bideratzeko, Laboral Kutxaren 3035 00 5987 0590098962 kontuan egin behar da ordainketa, eta ostean, AED, Loramendi eta Jardunen egin behar da eskaera. *On line* ere egin daiteke Nafarroako sortaren eskaria.

**Banaketa puntuak**

Honako puntu hauetan jaso ahalko dira otarreak: Arrasate: AED euskara elkartean, Arizmendi Ikastolan, AEK-n, Erein Da Jan dendan eta Jaizale tabernan. Bergara: Aranzadi Ikastolan, Jardun elkartean, Kondepanaderokua okindegian, Osintxuko Txuringo tabernan. Eskoriatza: Inkernu tabernan. Oñati: kultura etxean, Txantxiku Ikastolan, udaletxeko arkupeetan. Antzuola: liburu dendan, liburutegian. Aretxabaleta: Loramendi elkartean.

Eta Aramaio: Ekonomatuan.



Produktu sorta. | GOIENA

**EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOA**

**Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren Aditu Tituluko gogoeta eta eztabaida-saioak egin ditu Mondragon Unibertsitateak. Hauxe da saioetako baten laburpena.**

# Hilzori - Gogo bizi

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Ander Lipusek "gure tristezia, alegrantzia, injustiziez hitz egiteko espazio librea" sortu nahi du teatroan. **#Xaman**-ak dira abiapuntu EKT saioaren hirugarren atalean. Lipusentzako mediuma dena Mixel Etxekoparrentzat iturria da: "Fosilak gara, badira **#geruzak** , berriagoak eta zaharragoak, dena gutan da", dio zuberotarrak paleolitikoko hezurrezko txirula baten erreplika eskuan. Senak gogoa piztuta, transmisioa **#eri** den heinean, **#sendabide**-ak bizi jarraitzen du. Hortik abesten dute Aire ahizpek.

**Jarrai eta ireki**

Zer da **#tradizioa**?, galdetzen du Jon Sarasuak: "20 urte, 200, 20.000?". **#Fluxua** ei da kultura, jarraitzeko sena eta momentuarekiko irekidura. Dabid Egizabal dantzariak **#funtzioa** egozten dio ezinbestean tradizioari eta Thierry Biscary musikariak **#funtsa**-ri .Asier Sotak prozesuari: bizitza **#transformazioa** den neurrian, herentzia aldaketa dela. Gogoa da sena, mugiarazlea.

**Ura eskutik eskura**

Amuritzaren bertsoen doinuan belaunaldi berriak non dauden dute gogoetagai Josu Zabala musikariak, Josu Larrinaga soziologoak eta Eider Rodriguez idazleak. **#Belaunaldi** bakoitzari nobedadeak esperimentatzea dagokiola dio lehenik Hertzainak-en kide ohiak, eta beharrezko ikusten du gizarte zibilaren **#kontzientzia**, **#presentzia** eta **#presioa**. Josu Larrinagak egungo gazteak **#gotortuta** ikusten ditu eta "zaharrek", aldiz, **#agenda** ezartzen jarraitu nahi dutela. Hala ere, Zabalak dio, hark dakiela, "kulturaren espresiobide guztiak Euskal Herrian **#beti** egon direla **#krisian**. Kinka horretan ezkortasunerako motiborik ere ikusten du Eider Rodriguezek. **#Neutraltasun** joera handia dagoela eta aldarrikapen asko **#inposizio** iruditzen zaiela gazteei. Neutraltasuna ala "**#neutralizazioa**"? "Ikusten dudanean proiektu kulturalak ez duela kezkarik eragiten, **#alarma** gorria pizten zait", dio Josu Zabalak.

"Artearengatik ez bazen, hortzak tinkoago izango nituzkeen", dio, azkenik, Etxekoparrek. Xamana mintzo da.

**SAIO OSOA IKUSTEKO:**
Goiena telebista | Eguena, azaroak 05, 22:00.



Ander Lipus, Mixel Etxekopar, Aire ahizpak, Eider Rodriguez, Jon Sarasua, Dabid Egizabal, Thierry Biscary, Asier Sota, Josu Zabal, Miriam Luki, Josu Larrinaga.

Telebistako saioaren babeslea



LABORAL KUTXAREN GAZTENPRESA EKINTZAILETZA PLANA
25.000 €-rainoko finantzaketa, abalik gabe
LAGUNTZAILEA: Lanbide
Finantzaketa honek Europar Batasunaren laguntza du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1296/2013 zenbakidun Araudian (EB), Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europar Batasunaren Programari ("EaSI") buruzkoan, jasotakoaren arabera ezarritako berme-tresnaren esparruan. Berme hau Europar Batasunak finantzatuta dago, Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Programaren ("EaSI") esparruan.
LABORAL kutxa

ZABALIK



**LAURA QUELLE**
goiena.eus/komunitatea/

# Abenturazale behartuak

Eta horrela joan zen nire alaba, agur esanez, etorkizun hobe baten bila…".

Hezkuntza-sistema atzeratua gobernuak zuen ezkutuko asmoaren estalkia izan da urteetan zehar: aberastea, hain zuzen. Honen adibide garbia dugu duela hilabete batzuk onartutako 3+2 dekretua, hiru urteko graduak eta bi urteko masterrak eginez. Honek, gradu tituluen balio-galera ekartzeaz gain, gehiengoarentzat kostu ordainezinak eta irakasleen kaleratze masiboak ekarriko ditu.

Hezkuntza-sistemak zeresan handia badu ere, eta honen inguruan gustura eta luze idatziko banu ere, hau ez da nire gaurko xedea, *burmuin-ihes* deituriko fenomenoa baizik.

**Ergelkeria hutsa da dirua sortu dezaketenak alde egiten uztea**

Gazteak geroz eta prestatuago daudela ukaezina da; hala ere, ez dago ikasle hauek guztiak sostengatuko duen lan merkaturik, are gutxiago krisiak eztanda egin zuenetik. Graduaz gain, gaur egun beharrezkoak diren hainbat eta hainbat titulu lortzen badituzte ere, lan munduan sartzea askoren ilusio edo ametsean baino ez da gelditzen. Horregatik, makina bat dira etxeko giro goxoari agur esan eta lan bila atzerrira joaten diren gazteak, hemen hezitakoak eta beraien talentua kanpoan garatzen dutenak. Argi dago, beraz, hemen zerbait ez doala ondo: zulo ekonomiko ikaragarrian gaude –batzuek ezetz dioten arren– eta iluntasunetik ateratzeko gaitasun zein bideak dituztenak kanpora joaten dira.

Honegatik guztiagatik, berrikuntza baten beharrean gaudela aldarrikatzen dut. Gobernuak gure kontu aberasteari utzi, eta aberastasuna sortu dezaketen haiek hemen mantentzeko ahalegina egin beharko luke. Egoera ekonomiko zein sozial kaxkar honi amaiera jarri behar diogu, ama, aita, anai-arreba edo bestelako senideek ez dezaten berriz ere "atzerrira noa, lan baten bila" entzun. Ergelkeria hutsa da, dirua irabazi nahian, dirua sortu dezaketenak alde egiten uztea.

USTEAK USTE

**AMAIA TXINTXURRETA** | atxintxurreta@goiena.eus

# OME eta '#FreeBacon'

*Trending topic* bihurtu da aste honetan *#FreeBacon* etiketa. Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi du saltxitxak, txorizoa eta, orokorrean, txarkuteria jateak minbizia sortzen duela, eta sare sozialak bor-bor jarri dira. 22 adituk egindako txostenean diotenez, prozesatutako 50 gramo haragi egunero jateak %18 hazten du koloneko eta ondesteko minbizia izateko arriskua. Gure baserrietako eta bertako produktuak, ekologikoak edo transgenikoak, jateari utzi behar diogu? Horiek "noizean behin" jatean omen dago gakoa. Baina zenbatean behin da "noizean behin"? Bada, nork bere ondorioak atera ditzala. On egin!

MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.eus/komunitatea/




HANDIK ETA HEMENDIK

## Larrutik

**Garbiñe Ubeda**
http://goo.gl/4rBeHZ

Askotan etortzen zait gogora baten batek, kosmetikaz ari zela, airean utzitako galdera hura: Jarriko al zenuke aurpegian, lasai jango ez zenukeenik? Emango al zenioke larruazalari, platerean natural, itxuroso eta gozagarri ematen ez duen elikagairik, hidratatu eta osatu dadin…

Gehiengoak ezetz erantzungo luke, eta saltoki espezializatuetara joko du, edo parafarmazietara, betazalen gainean paratu beharko lituzkeen pepino xerren ordez, edo pare bat orduz utzita masailak leunduko lizkiokeen ezti ukenduaren ordez, halakoen osagai aktiboak konprimituta eta erraz zabaltzeko moduan sal diezazkioten, aparteko lanik hartu behar izan gabe, eskas baitu beti denbora. […]

Atzazaletako bernizen kasua irakurri berri dut. Bere testura arintze alde, Trifenil fosfatoa ematen omen diote fabrikatzaileek, sistema endokrinoa aztoratzeagatik susmopean dagoen elementu kimiko bat. Atzazalak margotu eta hamar ordura, gernuan azaltzen da haren arrastoa, poroetatik odolera eta odolean barrena gorputzari itzuli osoa eman ostean…

## Tximinoari arbolari nola

**Aritz Galarraga**
http://goo.gl/FYZyY8

Bestelako gauza alegerago batzuez nahi nuen gaurkoa –adibidez, Mariano Rajoyren elkarrizketaz–. Baina inori ez zaio gustatzen bere hitzak gezurtatzea. Are gutxiago niri gezurtatu dizkidaten zentzuan egitea: astearteko zutabean poza agertu nuen *Barrura begiratzeko leihoak* normaltasunez eman zutelako ETBn, eta normaltasunez ikusi zuelako jendeak. Argitaratu eta hiru ordura ez zuen ezertarako balio zutabeak: PPk eta PSE-EEk azalpenak eskatu zizkioten Urkulluri filma emategatik. […]

Gauza jakina zen filma ETBn emango zutena, duela egun batzuetatik; zalaparta, ordea, ez da hasi telebistatik eman eta bi egun pasa diren arte. Inor ez da filma eman ez dadin saiatu: nahiago izan dute telebistan eman ondorengo kalapita. Eta kalapita baino purrustada: PPren arabera, "saio hori emateak ETAren historia kriminala zuritzeko estrategia laguntzen du". Nire zalantzak ditut, ez emateak, saioak berak ETAren historia kriminala zuritzeko estrategia laguntzen duenik ere. PSE-EEk gaitzetsi zuen protagonistak aurkeztu izana "egin zituzten atentatuak aipatu gabe". Zer atentatu egin zuen Irati Tobar Segiko militanteak? […] UPD kexatu zen "beste behin ETAko kideen zerbitzura jartzeagatik eta ikuspuntu gizatiar batean aurkezteagatik". Kontxo, gizakiak badira zer egin? Covite haserre, "ETAko presoak biktimatzat aurkezteagatik". Gauza oinarrizko bat: ETAko preso batzuk ere biktimak ere izan dira.

Eta beste bi kontu: ze tema preso politiko deitzen dituztelako. […] Zigortu nahi dute gauza bat ez esatea, filmeko bost protagonistei ez deitzea haiek nahi duten modura. Bigarrena: zergatik jotzen dute mezulariaren kontra? Esan nahi dut, zutabe hauengatik norbait epaitu beharko balute, utz dezatela bakean *Berria,* epaitu nazatela neroni. […] Bestela, ageriegi geratzen baitzaie, tximinoari arbolan nola, atzealdea.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**LAURA ALUTIZ**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna,18 solairuartea
687 97 69 76

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**UNAI SERRANO**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 2ZM / 608 48 89 88

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

GUTUNAK / HANDIK ETA HEMENDIK

## Erreka garbia eta biziagoa nahi dugulako

**Eider Balzategi**
(Erreka Batzordearen izenean)
Bergara

Erreka biziberritzea amets, eta auzolana tresna dugulako, hirugarren urtez antolatu dugu erreka garbitzeko auzolana. Aurreko bi edizioetan bezala, aurten ere pertsona pila bat aritu gara lanean, 270etik gora.

Goizean goiz elkartu ginen. Batzuk Labegaraietan eta gainontzekoak San Martin plazan. Taldeak egin eta lanean hasi ginen, batzuk kamioiekin, beste batzuk piraguekin eta gehienok erreka bazterrean sartu eta eskuetan traste zahar eta zikinkeriak jasotzen. Hamalau tramutan barrena, hamalau taldetan antolatuta, Elorregitik Mekolalderaino.

Leku askotan aurreko bi urteetan egindako lana asko igartzen dela ikusi den arren, oraindik ere zikinkeria ugari atera genuen. Dena den, karramarroak, arrainak eta ur garden-gardena eta ekosistema biziak ere ikusi daitezke. Txoko eta leku zoragarriak dauzkagu, eta horiek zaindu eta gozamenerako espazio bihurtzeko ahalegina egitea asko merezi duela sinetsita gaude.

Dagoeneko *Erreka Lagun* mordo bat garela esan dezakegu, erreka biziberritzea amets dugu, eta epe motz edo ertainera ibai osasuntsu baten alde lanean jarraituko dugu. Alde batetik, gure esku dagoena eginez, eta, bestetik, erakunde publikoei zein herritarrei eta enpresei euren eginbeharrak bete dezatela eskatuz. Garbitzen eta eragiten jarraitzeko bokazioa daukagu.

Lerro hauekin, eskerrak eman nahi dizkiegu domekako ekimenean lagundu ziguten honako erakunde hauei: DYA, Beti Busti elkartea, Debagoieneko Mankomunitatea, Hierros Naparra, Bergarako Udala, Oilagorra, Pertxa, San Migel Pe eta Artatse elkarteak.

Eta, nola ez, ekimenean zuzenean parte hartu zenuten lagun guztiei! Eskerrik asko!

## Telepatixie

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Telepatixie existiduten da? Nere ustez, bai; demostretie oso zaille dala, besterik ez. Neuk beti jarten dot adibide bera: zelan ikesten daue umiek hizkuntza? Batzuk esaten dustie keiñuen bidez ikesten dauela. Neuk uste dot telepatixaz ikesten dauela.

Ba, hara, neri tokau jaten kasu bat, ondiokan aho-zabalik naukana; baiñe, noski, bizi izen neuen eta sensaziño pozgarrixe emun eusten. Zin dagit egixe dala.

Neu, zoritxarrez, espetxien egon nitzen sasoi luze baten, eta han gertau jaten kasue.

Behin, afalordue pasau eta gero, juen biher geuen ziegetara lo egittera. Eskillerak igo lelengo pixure, eta han pasillo luze batzuk euzen. Nere ziegie pasilluen bukaeran euen, azkeneko atie, eta han jarri nitzen zain, leiho baten kontra. Itxoin biher jakon espetxezaiñari, atie zabalketan etorri zein. Pasilluen erdikaldien baeuen preso talde bat; han espazio libre bat euen eta egoteko toki haundixeue.

Ba, hara, neure artien pentsetan nebillen, eta pentsau neuen gauza bat momentu baten. Ba handik bi edo hiru segundo gerueu, neugandik 30 bat metrora euen preso taldetik batek –madrildarra–, harrigarrixe, ez dozue siñistuko, ba, ozen, oso ondo entzuteko moduen, errepetidu egin euen, berbaz, neuk pentsau neuena arestixen, bost edo sei berba, euskeraz eta ordena berien. Zur eta lur geratu nitzen, aho-zabalik, txundittute, lilluretute. Nola zan posible erdaldun batek neuk buruen bi segundo lehenau nittuen bost edo sei berba, euskeraz, berbaz errepetidutie ozen.

Segiduen etorri zan espetxezaiñe, eta ziegetan sartu ginttuen. Ez neuken azalpenik, telepatixa hutse, holan, demostrau-demostraute.

Neure artien pentsau neuen: erdeldun batek, holan, ziztu baten, ikesten badau euskeraz telepatikoki, ez dala euskerie iñoix galduko.

## Simon Arrieta, lehen eta behingoz, bergararra

**Luis Aranberri Mendizabal**
http://goo.gl/5zwyWc

Hiru mila eta bostehun* margolan pintatu omen zituen Simon Arrietak (1915-1969). Hogeita lau baino ez dira bildu, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunearen Ganbara aretoan, jaio zeneko mendeurrena ospatzeko.

Zenik ere ez nekien nik, 1965an, aurrez aurre ezagutu nuenean, Bergaran bertan.

Orduan jabetu nintzen zein maitatua zen.

Berrogeita hamar urte geroago, bergararrek ez dute euren maisua saltzeko.

Velazquez zein Manet zale, eta Zuloagaren ikasle, Simon Arrietak berebiziko aukera izan zuen, 1950eko hamarkadan, Madrilen bizitzen geratzeko, pintore ospetsu bilakatzeko eta diru dezente irabazteko.

Hala ere, nahiago izan zuen jaioterrira itzuli, lagunarteko bizimodu arrunta egin eta pintatzen irakatsi; edo, batez ere, pintatzen irakasten irakatsi.

Ondorioz, nekez gero, gurean, beste herririk, Bergarak besteko pintore ugari eta onik duenik: Lazkano, Muniategiandikoetxea, Okina, Loidi, Azkargorta eta, honezkero bizpahiru belaunalditan, hogeitaka gehiago lekuko.

Donostiako erakusketaren baitan, Luis Laskurain eta Migel Angel Elkoroberezibar bikoteak aurreko larunbatean eskaini zuen bisita gidatua, non margolariaren teknikak, moldeak eta joerak ez ezik, pintatu zituen erretratuen edozenbat zertzelada eta ipi-apa ere azaldu zituen.

Betiere, lehen eta behingoz, Simon izan zen "bergarakúa" eta, pintore moduan, erretratugilea.

Bere garaiko hamaika lagunen erretratuak margotu zituen.

Batzuk bere kasa, eta beste batzuk, enkarguz.

Kritikariek diotenez, nabarmen samar sumatzen omen da zein bere gurariz eta ekimenez, eta zein, hala beharrez, inork eskatuta.

Dena den, Arrietak erretratutako gehienak bergararrak izan baziren ere, bestelakorik ere izan zen: "Kiriko" traineru-patroia, Jose Antonio Agirre lehendakaria eta Akarregi pilotaria lekuko.

[*Kontuak erraz egite aldera, hogeita hamabost urteko lanaldia egotziko bagenio (53 urtez hil zen), batez beste margolan bat, lau egunetik behin]

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

**BERGARAKO CHEF ONENAREN BILA**



BERGARA CHEF
SUKALDARITZAKO LEHIAKETA-PROGRAMA

**GOIENA TELEBISTA | 'BERGARA CHEF'**
HAMAR BIKOTE LEHIAN, 100 PUNTU JOKOAN
**LASTER GOIENA TELEBISTAN**

25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# HERRIAK

ARRASATE

# Iragana astintzera, arrasatearren esku uzteko

- Arrasate Zientzia Elkartearen hitzaldi zikloak lau urte bete ditu
- Hitzaldiak Kulturaten izango dira azaroko martitzenetan (19:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkarteak laugarren urtez jarraian antolatu du *Arrasateko iragana astintzen* deritzon hitzaldi zikloa. Azaroko martitzen guztietan Arrasateko historiaren gaineko hitzaldi interesgarriak izango dira Kulturateko areto nagusian (19:00), goi mailako hizlarien ahotik. Arrasatearren interesekoak diren gaiak jorratuko dira aurten ere, eta, adibidez, Esteban Garibai pertsonaia ezagunaren alde ezezaguna ateratzeko saiakera egingo dute: "Esteban Garibairen gainean guztiok entzun dugu, haren erretratua ikusi dugu... Baina uste dut gutxi dakigula Garibairen obraren beraren gainean. Badakigu Felipe II.aren kronista izan zela, eta abar, baina uste dugu oraindik ere Esteban Garibai ezezagun bat dela", adierazi zuen eguazteneko aurkezpenean AZEko kide Jose Angel Barrutiabengoak.

Amaitzeko, antolatzaileek aitortu dute geroago eta zailagoa zaiela halako hitzaldiak lotzea, baina espero dute datorren urtean ere ziklo berezi hau antolatzeko gai izango direla: "Iaz gurekin egon zen hizlari batek galdetu zigun ea nola demontre moldatzen garen urtero halako lau hitzaldi antolatzeko; adierazi zigun konpromisoa hartu zuela urtean hitzaldi bat lotzeko eta ez zela gai izaten hori betetzeko nahiz eta unibertsitate munduan aritu", dio AZEko Xabier Bengoak.

**Hitzarmena Udalarekin**

Udalak oso positiboki baloratzen du Arrasate Zientzia Elkartearen lana, eta, horregatik, bi aldeen arteko elkarlanean aurrerapausoak ematea pentsatzen ari da: "Udalak elkartearekin hitzarmen bat sinatzea nahi du, diru laguntzei begira. Ez dugu uste zaila izango denik, baina ea lehenbailehen gauzatzen den", iragarri zuen Kultura zinegotzi Juan Ramon Mendietak.

## LAU HITZALDIAK

**AZAROAK 3**

**Murugaingo indusketak:** Etor Telleria, arkeologoa. Euskaraz.

**AZAROAK 10**

***Orígenes y primera revolución de una villa guipuzcoana. Arrasate-Mondragon, s.XIII-XVI:*** Jose Angel Lema, historian doktorea. Gaztelaniaz.

**AZAROAK 17**

***Esteban de Garibay: ese mondragonés.*** Jose Angel Achon, historian doktorea. Gaztelaniaz.

**AZAROAK 24**

***Artazu VIII: Una ventana al pasado abierta recientemente en Arrasate:*** Xabier Murelaga estratigrafian eta paleontologian aditua eta Pedro Castaños, ornodunen paleontologian ikerlaria. Euskaraz eta gaztelaniaz.

Hitzaldi guztiak Kulturateko areto nagusian izango dira, 19:00etan. Hitzaldi guztiek ordubete inguru iraungo dute.




Udaleko zinegotzi Juan Ramon Mendieta eta AZEko kide Xabier Bengoa eta Juan Jose Barrutiabengoa. | JOKIN BEREZIARTUA

## Intereseko lau gai jorratzera, adituen ahotik

Bost aditu gonbidatu ditu AZEk lau hitzaldi emateko: Etor Telleria, Jose Angel Lema, Jose Angel Achon, Xabier Murelaga eta Pedro Castaños –azken biek Kobateko azken aurkikuntza arkeologikoak izango dituzte hizpide–. Ez dira Arrasatekoak, baina, nor bere diziplinan, Arrasatekoak diren iraganeko kontuez arituko dira; ohiko historia klaseetan ematen ez diren lezioak ematera datoz, finean.



**ETOR TELLERIA**
(SEGURA, 1980)
ARKEOLOGOA

### "36ko gerran gertatu zena eta Burdin Aroko herrixka hura irudikatuko dugu"

"Azken urteetan Murugaingo indusketetan egindako lanaren berri emango dugu, 36ko gerran gertatu zena eta Burdin Aroko herrixka hura nolakoa zen irudikatuz. Indusketon parte bat auzolanean egin izanak balio erantsia handia dauka, gainera. Interesgarria deritzot indusketa lanen emaitzak jendeari azaltzeari; emaitzon ikusgarritasunetik harago, jendeak jakin dezala indusketa lanek nolako garrantzia duten gure herriaren historia ezagutzeko.

Halako zikloak antolatzea oso ongi iruditzen zait, jendeak bere herriaren historiaren gainean duen jakin-mina asetze eta osatze aldera egiten den ekimen guztiak oso baliagarriak dira. Difusio lana historialari eta arkeologoon lanaren parte da, egiten dugun lana gizarteratu egin behar dugu".



**JOSE ANGEL LEMA**
(DONOSTIA, 1960)
HISTORIAN DOKTOREA

### "Herriaren eta herritarren iraganaren ezagutzan laguntzea espero dut"

"Hitzaldiaren helburua da Arrasateko aspaldiko historiaren gaineko oinarrizko aspektu batzuk modu sintetiko baten azaltzea. Hiribilduaren sorrera 1260an, Erdi Aro amaierako Arrasateren itxura, bi bandoen arteko gerrak –1448ko erreketarekin amaitu zirenak–, familia garrantzitsuenak –Bañez de Artazubiaga kasu–, orduko jarduera ekonomikoaren hazkundea...

Hitzaldiarekin espero dut, modurik apalenean, Arrasateren zein arrasatearren iraganaren ezagutzan laguntzea. Arrasate Zientzia Elkarteko kide den Jose Angel Barrutiabengoaren aldetik jaso nuen gonbidapena eta uste dut halako ekimenak positiboak direla, zalantza barik. Izan ere, herriko kulturaren difusioan asko laguntzen dute".



**JOSE ANGEL ACHON**
(DONOSTIA, 1962)
HISTORIAN DOKTOREA

### "Amaitzear zen aro bateko Esteban Garibairen ibilerak birsortuko ditugu"

"XVI. mendea lehen globalizazioaren mendea izan zela uste dute askok, biztanleriaren mugikortasuna eta estrategien oihartzuna mundu osora zabaldu zelako. Aldaketen eta ziurgabetasun handien garaia zen eta hor kokatzen da Esteban Garibai. Pertsona mota berri baten adierazle, nazioartean mugitu zen, betiere bere jaioterria ahaztu barik. Bada, hitzaldian Garibairen ibilerak birsortuko ditugu amaitzear zen aro baten. Gaur egungoaren antzera, Esteban Garibai aro berri baten atarian bizi izan zen, zer etorriko zitzaien jakin barik.

Duela bi urte ere hartu nuen parte Arrasate Zientzia Elkartearen zikloan eta halako saioak oso interesgarriak direla deritzot, zientziaren eta kulturaren difusioa ahalbidetzen dutelako".



**XABIER MURELAGA**
(LEKEITIO, 1970)
PALEONTOLOGIAN ADITUA

### "Kobate harrobiko leherketa batek balio handiko hezurdurak utzi ditu agerian"

"Artazu VIII arkeologia-aztarnategia istripuz aurkitu zen 2013an, Kobateko harrobian izandako leherketa baten ondorioz. Leherketak agerian utzi zituen ornodun fosilen hainbat gorpuzki, eta aurkikuntza oso garrantzitsua izanik, enpresari bere jarduera eteteko eskatu zitzaion. 2014an indusketa sakonago bat egin zen eta balio handiko hezurdurak atera ziren. Datazioa duela 130.000 eta 50.000 urte artean kokatu dugu eta oso urriak diren tranpa natural baten aurkitu direnez, hezurrak oso ondo kontserbatuta daude. Bisonteen hezurdurak, oreinenak, zaldienak eta errinozero iletsuen hezurdurak aurkitu dira. Ikertzen jarraitu beharra dago, baina balio handiko aurkikuntza da. Hortaz egingo dugu berba Pedro Castañosek eta biok".

# Joma zegoen lekuan, Lidl eta BM supermerkatuak 2016ko abendurako abian

Eraiste eta garbiketa lanak amaituta, lizitazioan dago proiektua; obrak urtea amaitu aurretik hasiko dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Joan den astean hasi zituzten Joma lantegi ohia botatzeko lanak, eta, aurreikuspenen arabera, datozen orduetan amaituko dituzte. Datorren astean hasiko dira hondakinak garbitzeko lanetan, eta hamabost egun iraungo dutela aurreikusten dute.

Proiektua lizitazio prozesuan dago orain; hau da, eraikiko diren bi pabiloi berrien exekuziorako enpresa esleitzeke dago. Proiektuaren ardura duen Baika Gestion enpresa sustatzaileak jakinarazi duenez, hainbat enpresari egin zaie eskaintza, eta orain, horien artean eskaintzarik onena eta proposamen tekniko osatuena zein den aztertzen ari dira.



Musakola auzoko Joma lantegi zaharreko botatze lanak, asteon. | GARBIÑE GOÑI

### Lur azpiko aparkalekuak

Lidl eta BM kateko supermerkatu berriak joango dira Joma zenak utzitako orubean. Lur azpiko aparkalekuak izango dituzte bi supermerkatuek, bata bestearen ondoan joango direnak. Baika Gestion enpresaren asmoa da lizitazio prozesua "ahalik eta lasterren" amaitzea, urtea amaitu aurretik obrak has daitezen: "Helburua da 2016ko abenduan irekitzea behin betiko bi supermerkatuak; hau da, orduráko biak martxan egotea espero dugu". Bi supermerkatuek aparkalekuak izango dituzte kanpoan, Gipuzkoa etorbidean, eta supermerkatu bakoitzaren azpian lur azpiko aparkalekuak ere joango dira. Kanpokoak zein lur azpikoak kontuan hartuta, 201 aparkaleku aurreikusten ditu Baika Gestion enpresaren proiektuak. Gainera, pabiloiak aurrefabrikatutako hormigoiarekin eraikiko dituzte; gero, supermerkatu bakoitzaren asmoen araberakoa izango da eraikin barruko antolamendua.



Eztabaida zirkuluetako bat, astelehenneko bileran, Kulturaten. | GURE ESKU DAGO

# Gure Esku Dago, herri galdeketarako bidean

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Gure Esku Dago lantaldeak deituta, herritarrekin bilera irekiak egin zituzten urriaren 24an gaztetxean eta urriaren 26an Kulturaten. *Eskura* txostena aurkeztearekin batera, hiru galdera nagusi planteatu zizkieten bertaratutakoei: *Nola ikusten duzu Gure Esku Dagoren jarduera eta antolamendua? Zer egin beharko genuke Arrasaten Gure Esku Dagoren helburuak gauzatzeko? Nolakoa izan beharko litzateke finantziazioa?* Antolatzaileen arabera, bilera horietara espero zutena baino jende gutxiago hurbildu arren, ekarpen "oso interesgarriak" jaso dituzte.

### Internet bidez parte hartzea

Erabakitzeko eskubidearen aldeko dinamikaren hurrengo erronka herri galdeketak izango dira, egutegi bateratu bati jarraiki. Galdera tokiko taldeak erabakiko du prozesu kolektibo baten baitan. Hala, 2018ra bitartean "ahalik eta galdeketa gehien" egitea nahi dute, "plangintza orokor baten" oinarrituta: "Herritarrak aktibatu eta beharrezko baldintzak sortzeko lan egingo dugu". Galdeketa horri begira, Debagoieneko lantaldeak bilera egingo du azaroaren 2an. Gainera, Internet bidez parte hartuko ahalko da *Eskura* prozesuan, azaroaren 9a baino lehen: *www.gureeskudago.eus/eskura*.

## Udaltzainei egindako erasoa dela-eta neurriak eskatu ditu LABek

Udaleko LABek babesa erakutsi die urriaren 11ko goizaldean Jet Set diskotekan zauritutako hiru udaltzainei, eta Udalari eskatu diote hartu beharreko neurriak har ditzala halakorik berriro gerta ez dadin. Gainera, udaltzainburuak lankideekiko erakutsitako "babes falta eta urruntasuna" ere salatu du sindikatuak, eta honako hau galdegin dute: "Ohiko erronda egiten ari ziren gure lankideek laguntza behar zuen pertsona batekin egin zuten topo. Zer pentsatuko genuke laguntza eskaera baten aurrean udaltzainek entzungor egin izan balute?".

## Arrasate Garbi, pozik, bilketa selektiboaren azken portzentajeekin

Orain arte Hondakinen Mahaiko kide izan den Arrasate Garbiren arabera, hauek dira bildutako frakzio birziklagarrien azken portzentajeak: martxoan %70,25, apirilean %78,83, maiatzean %77,97, ekainean %80,04, uztailean %80,09, abuztuan %80,44 eta irailean %79,01. "Helburua gainditu egin da; portzentajeak hobetu daitezke, batez ere organikoetan eta lurrean uzten diren hondakinetan. Aurrerantzean Udalak kudeatu beharko luke gaia; horregatik, amaitutzat ematen dugu gure parte hartzea. Arrasatearron borondatea eredugarria izan da", diote.

# Ezintasun absolutua behargin bati Ifam-en, amiantoak eragindako gaixotasunagatik

Mesotelioma pleurala izeneko kantzerra dauka eta otsaila ezkero bajan dago

L.K./J.B. | ARRASATE

Gizarte Segurantzaren Gipuzkoako Zuzendaritzak laneko ezintasun absolutua aitortu dio Ifam Seguridad SLU –lehen, Feliciano Aranzabal y Cia– enpresako langile bati amiantoarekin zerikusia duen lan-gaixotasunarengatik.

Langilea, J.Z.E., baja hartuta dago otsaila ezkero, mesotelioma pleurala diagnostikatu ziotenetik. CCOO sindikatuak eman du kasuaren berri, eta, azaltzen duenez, gaixotasun horrek "zerikusi zuzena" du amiantoarekin lan egin izanarekin. Langileak 42 urtean egin du lan Ifamen. Euskadiko CCOOko lan-osasun arduradun Alfonso Riosek amiantoa erabili zuten enpresa guztiei exijitu die Osalani emateko amiantoarekin kontaktuan egon ziren langileen zerrendak. Sindikatuaren esanetan, "enpresa askok errealitate hori isilpean gordetzen dute".

### Enpresak, babesa langileari

Bestalde, Ifam enpresak babesa erakutsi dio gaixotu zen langileari: "Asko sentitzen dugu gertatutakoa, baina amiantoa erabili zenean inork ez zekien txarra zenik". Horrez gain, CCOOren gezurrak salatu dituzte: "Gezurra da bazekitela hemen amiantoarekin lan egiten genuela. Eta, Osalanek hala eskatuta, amiantoaren inguruan lan egin zuten guztien zerrenda pasa dugu; hau da, ez da CCOOren eskaera bat izan. Ezbehar batetik etekina atera nahian dabiltzala dirudi, enpresari kalte handia egiteaz gain". 2000. urtea ezkero, amiantoa osasunarendako kaltegarria dela jakin zenetik, ez dago produktu hori enpresan, eta gaixotu den langileak 1991a ezkero ez zuen amiantoarekin lan egiten. Bestalde, amiantoak eragindako gaixotasunek ez dute protokolo prebentiborik: "Aldizkako analisiak egingo dira beste kasuren bat dagoen jakiteko, baina sintomak 40 urtera ere ager daitezke. Beste kasurik agertuz gero, aurpegia emango dugu", diote.



## OHARRAK

**1954AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 7an elkartuko dira Seber Altube plazan (13:15). Bergarako Tartufo jatetxean bazkalduko dute eta izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da: 3035 0001 57 0011136855.

**1958AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 7an Herriko Plazan (11:15) edo Harresi aretoan (11:30) elkartuko dira. Erreka jatetxean bazkalduko dute. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da: 3035 0001 59 0011144438.

**1959AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 7an Corazon de Encina elkartean bazkalduko dute. Azaroaren 3a baino lehen eman behar da izena, 60 euro ordainduta: 3035 0047 16 0471086671.

**1974AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 21ean egingo dute ospakizuna. Izena eman beharko da azaroaren 15a baino lehen 50 euroko ordainketa eginda: 3035 0047 13 0470075735.

# Erreka lur azpitik ezagutzeko eta garbitzeko gonbita asteburürako

Bihar, Muzibar eta Maala arteko tartean ibilaldia; etzi, auzolana garbiketarako

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Udaleko Ingurumen Sailak antolatutako Errekaren Astearen barruan ekintza interesgarriak izango dira asteburuan. Bihar, zapatua, Aramaio erreka arroan, lur azpian ibilbidea egingo dute Muzibarko eta Maalako biribilgunearen arteko zatian, pasarela batetik. 10:00etan elkartuko dira Muzibarren –bihar bertan ere eman daiteke izena– eta Nerea Lazpiurrek eta Itsaso Markaidek erreka estaltzearen ondorioen berri emango dute, eta, aurreratu dutenez, mito batzuk uxatzeko aukera ere izango dute bertaratzen direnek –tunelean hainbat arratoi daudela dioena, kasu–.

Maalako biribilgunetik irtetean, Olaia Martin adituak espezie inbaditzaileen problematika zertan datzan azalduko du. Ondoren, hamaiketakoa egingo dute. Katiuskak edo botak eta linterna bat eramatea gomendatu dute antolatzaileek.



Iaz erreka garbitzen aritu ostean Kondekuan ateratako talde argazkia. | GOIENA

**Lehiaketarako azken orduak**

Domekarako, berriz, erreka auzolanean garbitzeko dei egin du Ingurumen Sailak. 09:30ean elkartuko dira, Laubide plazan, eta, erreka garbitu ostean, hamaiketakoa egingo dute. Bestalde, *Arrasateko errekak* izeneko argazki lehiaketara erretratuak aurkezteko azken eguna bihar izango da, urriak 31.

## Ospakizuna 1951koek

1951n jaiotako arrasatearrek urteroko ospakizuna egin zuten Zarautz eta Getaria aldean urriaren 17an. 28 lagun elkartu ziren; urteroko kopurua. "Ea datorren urtean jende gehiago elkartzen garen, 65 urte beteko ditugu eta!", adierazi dute. Gero, gauak luze jo zuen Arrasaten...



RAMON OSINAGA

### Herriko bost langabe kontratatuko ditu Udalak aldi baterako

Lanbideren enplegu sustapen programaren bidez, Udalak peoi bat, igeltsero bat eta hiru pintore kontratatuko ditu aldi baterako. Hautaketa prozesuetan parte hartzeko interesa dutenek izena eman behar dute Lanbiden, bulegoetan zein webgunean. Azaroaren 2ra arte dago aukera izena emateko.

### Zuberoako Eperra ikastolaren Gabonetako otarreak salgai daude

Urtero moduan, salgai daude Zuberoako Eperra ikastolaren aldeko Gabonetako saskiak. Otarrea erosi gura duenak webgune honetan dauka informazioa: *www.ikaskoli.eu*. Ekimenaren helburuak bi dira: tokiko janariak ezagutaraztea eta ikastolaren egoera ekonomikoa hobetzea.

### Auzotarren beharrak identifikatzeko bisitak abiatu ditu PSE-EEk

Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak (OZMA) batzordeko buru Oscar Garciak bisita plan bat abiatu du herriko auzoetako beharrak ezagutzeko. "Kalean egon nahi dugu, herritarrengandik gertu, euren eskaerei, iradokizunei eta beharrei erantzuteko", azaldu du PSE-EEko zinegotziak.

### Beharrezkoak ez diren gastuak ikusi ditu Baleikek Udalean

Baleikek salatu du, adibidez, udaletxean loreak jartzen 2.500 euro erabili izana. "Hiritar ugari oso egoera zailean dauden bitartean, noiz arte jarraitu behar dugu dirua apaingarrietan xahutzen? Zein lehentasun ditu egungo gobernuak? Hiritarrak ala estetika?", galdegin dute.

## NIRE USTEZ

INES ALDAI



## Gustuko nekea

Pasa den astean zehar bularreko minbiziaren aurkako lasterketak antolatu ziren hainbat hiritan. Ni Bilbon egon nintzen ekitaldi erraldoi horietako baten. Guggenheim museoaren plazan elkartu ginen. Momentu batez, arrosa kolorez jantzi zen udazkena.

Hunkigarria izan zen. Adin guztietako jendea bildu ginen han. Denok helburu komun batekin bat eginez. Polita benetan. Istorio asko entzun nituen. Bata bestea baino gogorragoa. Askotan entzun dugu ez ditugula gauzak baloratzen galdu arte. Egia borobila.

Mundua ere, Lurra planeta, gaixorik dago. Minbizi latza du: gizakia. Ez gara konturatzen edota ez dugu konturatu nahi, zer ari garen galtzen.

Berandu izango da faltan sumatzen hasten garenean. Momentuz, eroso bizi gara, eta, aldamenekoa gaizki ikusten ez dugun bitartean, ezer gertatuko ez balitz bezala jarraitzen dugu. Baina hori beste istorio bat da.

Gero, ohikoa den moduan, alde zaharrera joan ginen; ospakizuna ondo bukatzeko, noski. Ez dut ia gogoratzen noiz egon nintzen poteo, bazkari edo afari batekin bukatzen ez den ekintza baten.

Total, bi orduko ekitaldia izan behar zena egun osorako jardunaldi bihurtu zen. Nekatuta bukaeran, baina beste bat egiteko gogoarekin. Ez dakigu zein ekitaldi izango den, baina ondo dakigu, bai, non bukatuko dugun.

**"Lurra planeta ere gaixorik dago, minbizi latza du: gizakia"**



# Eskubaloia, lehen bezala, orain ere bizi-bizi Arrasaten

Arrasate Eskubaloi Taldeko jokalari ohiek egun-pasa eta bazkaria egin zuten joan den zapatuan, garai zaharrak gogoratu eta gaur egungoez gozatzeko

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Arrasate Eskubaloi Taldeko jokalari ohiek egun-pasa paregabea egin zuten joan den zapatuan. 30 pertsona baino gehiago elkartu ziren, eta lehenbizi ibilbidetxoa eta ondoren bazkaria egin zuten batzokian. Eurak jokalari zireneko garaiak gogoratzeko aitzakia izan zen, baina erakutsi zuten gaur egun ere eskubaloiari lotuta jarraitzen dutela. Hala, bazkalostean, Iturripeko kiroldegira joan ziren, Ford Mugarriren eta Izarraitz Aloña Mendiren arteko derbia bertatik bertara ikustera. Badira bederatzi urte talde biek ez dutela elkarren aurka jokatu; horrenbestez, partidu berezia izan zen, batez ere, etxekoek lortu zutelako azkenean garaipena, eta lider jarri zirelako.

**Omenaldia**

Zapatuko derbian, gainera, urte askoan zehar taldeko jokalari izan diren eta pasa den denboraldian erretiratu diren hiru jokalariri omenaldia egin zieten, haien lana eskertzeko asmoz. Kepa Isasmendi, Ekaitz Aranburuzabala eta Oier Ortiz de Mendibil izan ziren taldearen zein zaleen esker ona jaso zutenak.

**Zaletasuna herrian**

Ford Mugarri Arrasate Eskubaloi Taldeko zuzendaritzako kidea da gaur egun Andoni Arando. Hark aipatu duenez, denboraldi honetan mailaz jaistea erabaki behar izan du taldeak, jokalarien bajak direla-eta ez baitzuten euren burua ikusten lehen mailan gustura aritzeko moduan. Horrek partiduetara joaten den zale kopuruan eragina izan ote duen galdetuta, zera dio: "Jende gutxixeago etortzen da, bai. Baina zapatuko derbian, esaterako, harmailak bete-bete egin ziren".

Arandok azaldu duenez, bada lehen taldearen partidu guztietara joaten den lagun talde bat, Patata Braba izenekoa. "Ez dute hutsik egiten eta sekulako giroa jartzen dute harmailetan", dio.



Aurten erretiratutako jokalariei omenaldia | ANDONI ARANDO

**Konpromisoa eta giro ona**

Andoni Arandok azpimarratu zuenez, senior taldea osatzen duten jokalariek "pistan akatsak egin ditzakete, baina gogo eta inplikazio aldetik ez dute inoiz ere hutsik egiten". Nabarmendu zuen taldearekiko konpromiso hori argi ikusten dela entrenamendutan, eta baita partiduetan ere. "Azken urteotan taldeak izandako arrakastaren arrazoi nagusietako bat da", esan du. Izan ere, azken 6-7 urteotan lortu du Arrasateko Eskubaloi Taldeak bere maila gorena: Nazional Lehen mailan izatea, hain zuzen.

Baina, konpromiso horretaz eta lan gogorraz gain, "familiarteko giroa" nagusi da taldean. "Kuadrilla bat gara", dio Andoni Arandok. Adibide moduan, esan du zapatuko derbiaren ostean jokalariek Iturripe kanpoaldean mahai bat jarri eta piknik bat egin zutela, Oñatiko jokalariak ere bertan geratzera gonbidatuta. "Eskubaloian lagunak egiten dira", esan du Andoni Arandok.

## Zaldibarko areto futbol txapelketa azaroaren 14an hasiko da

Azaroaren 14an hasiko da Zaldibarko areto futbol txapelketa, 54.a. Izena emateko eguna, berriz, azaroaren 10a izango da, martitzena. 17:30ak eta 20:00ak bitartean egin beharko da inskripzioa, Kulturaten, eta talde bakoitzak 300 euro jarri beharko ditu. Horietatik 75 fidantza gisa erabiliko dituzte. Antolakuntzatik jendea animatu nahi izan dute txapelketaren antolaketan laguntzera, *zaldibarkofutbitotxapelketa@gmail.com* helbidera idatzita.

## Arrasate Rugbyk azken sailkatua hartuko du domekan Mojategin

Nerbioi taldearen aurka etxean jokatuko dute arrasatearrek domekan, azaroak 1, 12:15ean. Bizkaitarrek ez dute partidu bat bera ere irabazi orain arte, eta azkenak dira sailkapenean. Igor Isasiren mutilak, berriz, bigarren postuan daude, 10 punturekin, liderrarekin eta hirugarren sailkatuarekin berdinduta –azken horiek baino partidu bat gutxiago jokatu dute arrasatearrek–. Orain arteko bi partiduak irabazi dituzte.

SAN FELIPE APOSTOL

ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA
Sociedad de Socorros Mutuos

*www.sanfelipeapostol.com*
*funerariasanfelipe@gmail.com*

**Gipuzkoa etorbidea 33 behea**
**Tel.: 943 79 16 82**
**Tel./Faxa: 943 77 30 22**

**ARDURADUNAK**
**Alberto Ojanguren Ugarte**
**Kontxi Bedia Madinabeitia**



**SAN FELIPEKO ZUZENDARI BATZORDEA:**
**Zutik, ezkerretik eskumara:** Alberto Ojanguren (Maiorala), Mertxe Pie de Hierro (Bokala), Marisol Murguzur (Diruzaina), Jose Luis Garcia (Bokala), Jon Arsuaga (Bokala) eta Juan Jose Pagaldai (Presidentea)
**Eserita, ezkerretik hasita:** Eduardo Celemín (Bokala), Javier Isturiz (Bokala), Alberto Laskurain (Bokala), Joshe Elorza (Idazkaria) eta Antonio Murillo (Presidenteordea)

1. **ERAKUNDEA SAN FELIPE APOSTOL** etekinak lortzeko asmorik ez duen eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantza eta Lan Departamenduko Gizarte Segurantza Zuzendaritzan izena emanda duen elkarte bat da, **1.898ko apirilaren 13an sortu zen** eta **13.054 bazkide** ditu.

2. **ESKAINITAKO PRESTAZIOAK**
San Felipe Apostol elkarteak hildako bazkideari honoko gastu hauetan lagunduko dio:
- **Espaniako Estatu barruan** egin beharreko leku aldaketak, hau da, hileta gertatzen den tokitik hildakoa bizi zen edo erroldatua zegoen herrira eramatea
- Hildakoari lur emateko arka.
- Herrian zehar eskelak jartzea.
- Hildakoen jazte lanak.
- Auzitegian egin beharrekoak. Mediku ziurtagiria
- **750** euroko diru-laguntza, hildako bakoitzagatik.

3. **SARRERAKO KUOTAK**

| | |
|---|---|
| 40 urtera arte sarrera doan | 56 etik 60 urtearte............**862,50** € |
| 41 etik 45 urtearte..................**300** € | 61 etik 65 urtearte...............**1.050** € |
| 46 etik 50 urtearte.............**487,50** € | 66 etik 70 urtearte.........**1.237,50** € |
| 51 etik 55 urtearte..................**675** € | 70 urtetik gorakoak .............**1.800** € |

4. **URTEKO KUOTAK**
Titularrak: **37,50 €** Ezkontideak: **37,50 €** Onuradunak: **18,75 €**

**INFORMATU ETA EGIN BAZKIDE**

# 'Marina' taularatuko du Ozenki elkarteak bihar Amaia antzokian

## Sarrera batzuetan 20:00etan dela jarri arren, 20:30ean hasiko da opera; 200 bat eserleku daude libre eta Udalaren webgunean eros daitezke

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ozenki elkarteari esker, *Marina* opera hartuko du bihar Amaia antzokiak (20:30). Kataluniako Lloret de Mar herrian kokatzen da, eta, opera gehienen antzera, amodiozko istorioa du oinarri. Erromantizismo garaian idatzi zuen Emilio Arrieta nafarrak (Gares, 1823- Madril, 1884), eta, bitxia bada ere, hasieran, zarzuela izateko idatzi zuen. Zarzuela moduan ez zuen arrakastarik izan apenas, eta, ondoren, beste ekitaldi bat gehitu zion –hiru ditu guztira–, hainbat musika aldaketa egin zizkion gero, eta opera bihurtu zuen horrela. Zarzuela izateari utzi eta opera moduan Madrilen estreinatu zenean, erabateko arrakasta lortu zuen.



*Marina* operaren une bat. | OZENKI ELKARTEA

**Goi mailako interpreteak**

Marinaren (Helena Orkoien) eta Jorgeren (Luis Alberto Giner) arteko amodio istorioan oinarritzen da argumentua. Orkoien sopranoarekin eta Giner tenorearekin batera, bakarlari nagusiak dira Andres del Pino baritonoa (Roque) eta Jesus Lumbreras baxua (Pascual); Donostiako Sasibill abesbatza ere taula gainean izango da eta Donostiako orkestra lirikoak ere hartuko du parte. Gainera, Ozenki elkarteak eskualdeko artistei lekua egiteko helburuaren adierazle da Marije Ugalde eta Valen Moñux bergararren parte hartzea. Sarrerei dagokienez, internet bidez erositako zenbait sarreratan opera 20:00etan hasiko dela iragarri arren –akats baten ondorioz–, Ozenki elkartekoek konfirmatu dute 20:30ean hasiko dela. Bi ordu eta 20 minutu inguru irauten du. 200 eserleku inguru daude libre oraindik; sarrerak erosteko: *www.arrasate.eus*.

## Bertso desafioa gaur Iratin, Ino Galparsoro babesteko

J.B. | ARRASATE

Azaroaren 16an hasiko da 04/08 sumarioaren baitan dauden 35 euskal herritarren aurkako epaiketa, eta auzipetuen artean dago Ino Galparsoro alkate ohia: "Herriko alkate zela, Garzon epailearen aginduz atxilotua eta espetxeratua izan zen, eta ondoren, hiru hilabete espetxean igaro ostean eta fidantza bat ordainduta, behin-behineko askatasunean atera zen. Ordutik, astero epaitegian aurkeztu behar izan da eta estatu espainiarretik ateratzeko debekua du", adierazi dute Arrasateko Ino Be Libre ekimeneko ordezkariek.

Bada, "epaiketa politiko" hori bertan behera uztea eskatzeko, bertso desafioa antolatu dute, gaurko, Irati tabernan (20:30): Arrasateko Altutik bertso eskolakoak eta Bergarako Kopla Barik bertso eskolakoak izango dira aurrez aurre. Antolatzaileek aurreratu dute jatekoa eta edatekoa egongo dela. "Elkartasunetik konpromisora salto egiteko unea da, epaiketa politikoen aurka eta eskubide zibil zein politikoen alde egiteko unea", diote.

## Astelehenean hasiko da dantza-jauzien oinarrizko ikastaroa

Portaloi elkarteak dantza-jauzien oinarrizko ikastaroa antolatu du. Azaroaren 2an hasi eta maiatzera arte, jauziak dantzatzeko sistema eta urratsak erakutsiko dira; korruan dantzatzekoak dira, lotu gabe. Eta jauziekin batera, gaur egungo dantzaldietan ohikoak diren beste dantza batzuk ere ikasiko dituzte. Astelehenero elkartuko dira, 18:00etatik 19:30era, eta parte hartu gura duenak AEDra edo 943 79 84 76 telefono zenbakira deitu beharko du.

## Antonio Jorgeren 'Ser dueño de mi actitud' saioa azaroaren 5ean

Antonio Jorge Larruyk *Ser dueño de mi actitud* izeneko hitzaldia eskainiko du azaroaren 5ean Kulturaten, 18:00etan hasita. 1995ean Espacio Interior deritzon zentroa zabaldu zuen Jorge Larruyk, autoezagutza eta gizakiaren potentzialtasuna lantzeko. Duela gutxi bere hirugarren liburua argitaratu du, *Vivir sin pensar, vivir en plenitud*. Norberaren jarreren jabe izaten ikasteko saioa izango da. Hitzaldietan hizkuntza erraza eta zuzena erabiltzen du Jorge Larruyk.

## AEDren bueltan, askotariko ekintzak datozen egunotarako

J.B. | ARRASATE

AEDko Ttak! gazte taldeak Gaba Baltza antolatu du biharko. Azken lau urteetan ospatu izan da Ttak Eguna, eta, nahiz eta formatua sarritan aldatu den, helburua bera izan da beti: gazteen aisialdian euskara sustatzea. Halloween deritzon festaren aurrean, bestelako jaia antolatu dute. "Euskal Herrian Gaba Beltza zena amerikarra bihurtzen ari da, komertziala, eta, horregatik, gure ohituretan oinarrituta festa antolatu dugu", esan du Ttak! taldeko Marixe Ruiz de Austrik. AEDren egoitzan elkartuko dira (19:30), eta gero, kalejira egingo dute *Kolpez Blai* perkusio ikuskizun ibiltariarekin. Gero, afaria egingo dute gaztetxean (21:30), eta ondoren, DJ Elvis Caino gonbidatu dute akelarrea gidatzeko.

Bestalde, domekan hasiko da Literaturjauzien zikloko lehen ekintza; Maite Franco ipuin kontalariak beldurrezko ipuin kontaketa egingo du Jai Zale tabernan (19:00). Hilaren 8an eta 15ean ere izango dituzte literatur solasaldiak, leku eta ordu berean. Azkenik, Garabidek egindako *Beltzean Mintzo* dokumentala ikusteko aukera egongo da azaroaren 4an Kulturateko areto nagusian (19:00). Osteko solasaldirako, Garabideko Ander Bolibar eta Txema Abarrategi bertan egongo dira.



Ttak! gazte taldeko kideak Gaba Beltzaren kartelekin. | AMAIA TXINTXURRETA



Iaz Herriko Plazan egindako ikuskizunean jende asko batu zen. | IMANOL SORIANO

## 'Gau-Eguna' ikuskizuna eskainiko du Txatxilipurdik gaur Monterronen

J.B. | ARRASATE

"Udazkenarekin bat, egunak laburrago bihurtzen dira eta gauak luzatzen hasten dira. Ordua aldatzeko garaia ere iristen zaigu. Gauak luzatzen doazen heinean eguzkiaren presentzia geroz eta txikiagoa izaten da eta iretargiaren beharra geroz eta gehiago sentitzen dugu. Iretargiarekin elkartzeko eta hari ongietorria emateko sasoia iritsi da". Testuinguru berezi horretan oinarrituta antolatu du Txatxilipurdik *Gau-Eguna* ikuskizuna; ikuskizuna hasi aurretik eskulan tailerrak egingo dituzte Kondekua zelaian, 17:30etik 18:15era.

Gero, 18:30ean hasiko da espektakulua Monterronen. "Ikuskizunak ipuin kontakizuna, antzezlana eta itzalak izango ditu oinarri", aurreratu dute. Familia giroan gozatzeko ikuskizuna izango da, arratsalde "goxo eta entretenigarri" bat igarotzeko aukera paregabea.

**Iazkoa, oso arrakastatsua**

Iaz ere, sasoi berean, antolatu zuten Gau-Eguna ekintza. Herriko Plaza izan zuen epizentro eta alde zaharreko zenbait kale ere hartu zituen ekimenak. Tailerrak, askotariko akrobaziak eta ipuin kontaketa ibiltariak izan ziren protagonista iaz, giro magiko baten; haur zein gaztetxo ugari elkartu ziren. Aurten magiak Monterron hartuko du.

# '5. edukiontzia' ala 'Atez atekoa', galdeketan aukeratu beharrekoa

## EH Bildu ez zen ados agertu udalbatzak onartutako galderarekin; hori eta Agorrosingo prezioen %20ko igoera izan ziren eztabaida iturri

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin –eurek, Gobernuak proposatu zuen– onartu zuten astelehenean hondakinen gaineko galdeketarako prozedura. Bertan zehazten da data, azaroaren 29a, eta baita egingo den galdera ere. Ondorengoa da: *Bergarako udalerrian, zein kontsideratzen duzu hondakinak gaika biltzeko erarik egokiena?* Eta erantzun posibleak bi: *5. edukiontzia, Gaikako bilketa edukiontzi bidez egitea*; edo *Atez atekoa, Gaikako bilketa atez ateko sistemarekin egitea*.

EH Bilduren ustez, "oso ankerra eta okerra da galdera", gaur egungo sistema, edukiontziak eta zintzilikarioak konbinatzen dituena eta galdeketan aukeretako bat izango dena, atez ateko gisa izendatzen duelako, "ziur aski atez atekoak askoz aldeko gutxiago dituelako gaur egungo sistemak baino", Agurne Barrusoren hitzetan; eta, bestetik, *5. edukiontzia* zer den "zehazten ez bada", bakoitzak duelako nahi bezala "diseinatzeko aukera" –Arrasaten, Elgetan eta Eibarren bakoitzean era batera funtzionatzen duela gogorarazi zuen Barrusok–.



Udalbatza eta herritarrak, asteleheneko osoko bilkura. | JULEN IRIONDO

Alkatearen ustez, orain arreta galderara bideratzea EH Bilduren estrategia da, aurreko agintaldiko euren jarrera, galdeketarik egin ez izana eta kontrako iritziak aintzat hartu ez izana, estaltzeko. Juanje Alberdiren esanetan, "herriak ondo daki, galdera hala edo hola eginda", zeren artean aukeratu behar duen; eta, gainera, erantzun bakoitzaren atzean zer dagoen azalduz herritarrek Udalaren informazioa jasoko dutela ziurtatu zuen.

Hain justu, herritarrek, osoko bilkura jarraitzen ari ziren pertsonek –hiru– ere hartu zuten hitza astelehenean; horietako bik, aurrena, *zorionak* esateko, *zorionak* galdeketa egitea erabaki izanagatik, Bildu eta Aralarren Gobernuak egin behar zuen bezala, euren ustez. Aurreko Gobernuak ez zuen galdeketarik planteatu, eta Bergara Garbiak antolatutakoan ez parte hartzeko eskatu zuen EH Bilduk –ia 5.000 boto zenbatu zituzten, ia %99 bosgarren edukiontziaren alde–.

Baina erabakiagatik zorionak emateaz gain, aipatutako herritarrek eskatu zioten alkateari, behin galdeketa egiten hasita, galdera ahalik eta egokien planteatzeko –Bergara Garbiaren galdeketan, esaterako, horrela formulatu zen plataformak defendatzen ez zuen aukera: *Organikoa eta errefusa atez ate jasoko dituen sistemaren alde ematen dut botoa*–.

### Irabaziren iritzia

Asteleheneko osoko bilkuran, Agurne Barrusok behin eta berriz eskatu zion Gobernuari, erantzunetan, aukeretako bat *Atez atekoa* izan beharrean *Gaur egungo sistema* izan zedila; alkateak, berriz, aurreko agintaldiko jarrera gogorarazi zion behin baino gehiagotan EH Bilduri, eta, horren aurrean, Barrusok erantzun: "Guk gure akatsak egin bagenituen, zuek ez errepikatu".

Irabazi alderdiak ere herri galdeketarako prozeduraren kontra bozkatu zuen. EH Bilduk bezala, Aiert Lizarraldek EAJri egotzi zion prozedura "denen artean" adosteko borondaterik eduki ez izana. Dena dela, sistemen gainetik emaitzak jarri zituen, eta murrizketa jo zuen hondakinen arazoa konpontzeko ardatz; herrian eta bailaran itzulketa sistema ezartzea proposatzen du, adibidez: "Horretarako, antolakuntza eta eztabaida aldetik gogor heldu behar zaio gaiari", zioen Lizarraldek, baina aitortuz zail ikusten duela zentzu horretan aurrera egitea, EAJren eta EH Bilduren arteko tirabirengatik.

Udalbatzak onartutako prozeduraren arabera, 18 urtetik gorako bergararrek izango dute galdeketan parte hartzeko aukera. Orain, Espainiako Gobernuko Ministro Kontseiluari dagokio kontsulta baimentzea.

### Ordenantza fiskalak

Osoko bilkuran eztabaida handiena eragin zuen beste puntua ordenantza fiskalena izan zen. EH Bilduko Leire Iruinek "onartezin" jo zuen Agorrosingo abonu eta ikastaroen %20ko igoera. "Autofinatzaketarantz" joan beharra onartu bai, baina igoera progresiboagoa proposatu zuen: %5. Iruinek egotzi zion EAJri aurreko agintaldian egin ezin zela zioena, "tasak igo", egitea.

Ogasun batzordeko buru Ander Alberdik azaldu zuen Agorrosingo benetako defizita ezagutzeak –aurreko Gobernuari ezkutatzea egotzi zion– eraman dituela postura aldatzera; kontuak ezagutzean aurtengo defizita milioi bat eurokoa izango zela ikusi zutela zioen. Aldaketarekin, defizita 180.000 euro murriztea espero du Gobernuak, eta gastuaren kontrolerako eta kudeaketarako beste neurri batzuk ere hartuko ei dituzte.

Bestalde, aurreko Gobernuaren ekimenez ohikoak ez diren etxebizitzek zuten %150eko errekargua ere kendu egingo dute; "konfiskatzaile" jo zuen Alberdik, eta gaineratu ez duela alokairu soziala bultzatzeko jarritako helburua bete –EH Bildu %50era jaisteko prest agertu zen–.

2016rako ordenantza fiskalak ere EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu ziren, eta EH Bilduk eta Irabazik kontra bozkatu zuten; edukiez gain, Gobernuaren moduak kritikatu zituzten: "Aurkeztu ditugunean gure proposamenak, denak, eta denak e-postaz, atzera bota dizkigute", zioen Aiert Lizarraldek.

### UNED Seminarioan geratzea aztertzen

Alkatearen jakinarazpenei zegokien tartean Juanje Alberdik jakinarazi zuen aztertzen ari direla permutaren planteamenduan atzera egitea eta UNED Errege Mintegian geratzea; Bergararentzat, "ondarearen ikuspegitik eta baliabide aldetik", aukera hobea izan daitekeela zioen alkateak, UNED Arrizuriagara aldatzea baino: "Udala geratuko litzateke Arrizuriagarekin, eta potentzial handia duen gunea da, eta diru kopuru inportante bat ere izango genuke, bertan liburutegia–edo jartzeko", zioen. Alkateak adierazi zuen planteamenduaren bideragarritasuna aztertzen ari direla oraindik, patronatuaren onarpenarekin. EH Bilduk ez luke begi onez ikusiko aldaketa; orain arteko planteamenduak EAJrena ez baina gainerako alderdien eta herriko eragileen babes zabala izan duela zioen Agurne Barrusok.



Bergarako Errege Mintegia. | GOIENA

## Galdeketa babestu du EAJren Uri Buru Batzarrak

**J.I.** | BERGARA

Jeltzaleek oharra plazaratu dute, euren alderdia buru den Udal Gobernuak hondakinen gaineko kontsulta egiteko hartutako erabakiaren gainean. Oharrak dio EAJren hauteskunde programan ziotela bosgarren edukiontzia dela euren eredua eta herritarren nahia errespetatuko zutela. Gehitzen du lehen aldiz egingo bada Udalak antolatutako galdeketa bat, Udala EAJk zuzentzen duelako dela: "Gobernatzeko eta herritarrekiko harremanetan beste eredu bat erakusten du".

Horren harira, diote EH Bilduk eta Aralarrek aurreko agintaldian osatutako Gobernuari "behin eta berriz" eskatu zitzaiola kontsulta egitea, eta beti ezetz erantzun zutela.

Jeltzaleek azaldu dute bosgarren edukiontziaren aldeko botoa eskatuko dutela eurek: "Hondakinen gaikako bilketan emaitza berdinak lortzen direlako eta merkeagoa, garbiagoa eta guztiontzat erosoagoa delako". EAJk herritar guztiei egiten die dei kontsultan parte har dezaten.

## Antxintxika lasterketa dela-eta, oharra Udaltzaingoak

Bihar jokatuko da Antxintxika lasterketa *(Kirolak* sailean), Soraluze eta Bergara artean. Udaltzaingoak jakinarazi du hori dela-eta zirkulaziorako itxita egongo direla Ibargarai, Kruz Gallastegi eta Irizar kaleak, 16:00etatik 20:00etara, eta Bolu, Masterreka eta Zubietarako sarbidea Artekaletik egingo dela. Udaltzaingotik eskatu dute "ahal den neurrian ordu horietan autoak ez erabiltzea eta ibilbideak saihesbidetik egitea".

## Agorrosingo taberna ustiatzeko eskaria, astelehenera arte

Astelehenean, hilak 2, amaituko da Agorrosingo taberna eta jatetxea ustiatzeko eskaera aurkezteko epea. Lehengo berak dira baldintzak, alokairuaren zenbatekoa izan ezik; zenbateko hori nabarmen murriztu dute, ustiaketarako aurreneko deialdiak emaitzarik eman ez ostean: 950 eurotik 550era –gehi BEZa, bi kasuetan–. Orain arteko maizterrek domekan utzi zioten zerbitzua emateari, eta arduradunen nahia da ahal den azkarren martxan egotea berriro.

# Fusio energia eta bakarrizketa zientifikoak, jardunaldietan

Gaur abiaraziko dute Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza egitaraua

JULEN IRIONDO | BERGARA

Udaleko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Enplegu batzordeko buru Sabino Azkaratek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldiak 19:00etan ireki eta 19:15ean hasiko da, Laboratoriumen, CIEMATeko –Energia, Ingurumen eta Teknologia Ikerketetarako Zentroa, Espainian– ikerlari Enrike Askasibarren hitzaldia. Wolframak fusioan duen erabilerari buruz jardungo du, eta oraindik ikertzen ari diren fusio energiak etorkizunean, energia beharrak asetzeko, izan dezakeen garrantziaz.


Elhuyar anaien irudia. | GOIENA

**Zientzia, umorez**

Eguaztenean, berriz, *Wolfram deuna*, umorezko bakarrizketa zientifikoz osatutako "ekitaldi fisiko, kimiko, analogiko eta antologikoa" eskainiko du Elhuyar Fundazioak, 19:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Hamar zientzialarik eta zientzia zalek egingo dituzte bakarrizketak, herritar orori zuzenduta. Elhuyarretik diote helburu bikoitza duela saioak: "Batetik, euskal komunitate zientzia zaleentzat topagune fisiko bat sortzea; alegia, elkarrekin egoteko aitzakia eta aukera ematea. Bestetik, *zientzia.eus* webgunearen zientzia-blogen bilgune berria aurkeztea.

## 270etik gora lagun, erreka garbitzen

Aurreko domekan egin zuten, hirugarren urtez, Deba ibaia garbitzeko saioa, Elorregitik Mekolaldera. Antolatzaileek eskertu nahi dituzte ekimena lagundu eta bertan parte hartu zuten guztiak (*Gutunak* sailean).


ERREKA BATZORDEA

### Asier Altuna eta 'Amama', lehen eguazteneko azokan

Azaroko lehen eguaztena dela-eta, hileroko azoka berezia egingo dute hilaren 4an Oxirondon, eta 19:00etatik aurrera *Amama* filmaren *making off*-a ikusteko eta Asier Altuna zuzendari bergararrarekin solasean aritzeko aukera egongo da aisialdi-gunean. Maite Aristegi izango da moderatzailea. Azoka bera 18:00etan hasiko da.

### Kilometroak 2016ren hasiera ekitaldia, egubakoitzean

Azaroaren 6ko ekitaldia Aranzadiko jolastokian izango da, 19:00etan: leloa, irudia eta arropa aurkeztuko dituzte. Eguraldi txarra iragarrita balego, frontoira aldatuko lukete. Kasu horretan, sarrera beharko litzateke, doakoa, edukiera mugagatik: ikastolan eta kultura etxean egongo dira sarrerak, eguenera arte.

### Desfibrilagailua erabiltzeko ikastaroa, DYAren eskutik

Bihotz-birika suspertzeak egiten eta desfibrilagailua erabiltzen ikasteko saioak egingo dituzte azaroaren 9an eta 10ean, 18:30etik 21:00etara, DYAren Martoko kaleko egoitzan. Ikastaroa eginda, ziurtagiriak banatuko ditu DYAk. Ez da beharrezkoa aurrez osasun ezagutzarik edukitzea. Izen-ematea eta informazioa: 943-46 46 22.

## OHARRAK

**EAJ: BOTOA POSTA BIDEZ**
Espainiako hauteskundeetan botoa posta bidez emateko azalpenetarako, bulegoa egongo da batzokian, astelehenetik.

**POL-POL GAZTEAK**
Domekako irteerarako izena emateko azken eguna da gaur.

**ERAKUSKETA AMAITZEAR**
Juan Antonio Untzurruntzagaren erakusketa ikusteko azken eguna da domeka.

### Sukaldaritza eta blogen eta web orrien diseinu ikastaroak

Hilaren 10ean hasita eta hiru astez, martitzen eta eguenetan, izango da oinarrizko sukaldaritza ikastaroa, Zuloa elkartean. Hamabi ordu izango dira, 15:00etatik 17:00etara, eta 10 euro ordaindu beharko da. Bigarren ikastaroa azaroaren 16an hasi eta hilabetez luzatuko da. Informazioa eta izena: *info@bizikasi.com*.

### Txaparen denboraldi berriko programazio aurkezpena gaur

Aurkezpena izango da 20:00etan kartzela zaharrean, eta afaria ere egingo dute. Aurkezpena irekia da. Aurten hemeretzi irratsaio propio eta Arrosa Sareko beste hainbat izango dira Txapa Irratiaren programazioan: "Askotariko musika, historia, zinema, ingurumena, gai soziopolitikoak, elkarrizketak eta beste mila kontu" iragarri dituzte.

## NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO



# Ikasten

Ezaguna da azken hamarkadetan gure bizitza izaten ari den eraldaketa, bereziki ordainketa sistemei dagokienez. Nork ez dauka kreditu edo debitu txartelik? Pentsatzera irits liteke, nahiz eta horrela ez izan, *plastiko zurrun* famatua ez duenak ez duela dirurik edota kreditu finantzariorik. Gure bizitza arruntean erreparatuz, ikus genezake erosketa txiki asko –supermerkatuan, gasolindegietan, jatetxeetan…– kreditu txartelarekin ordaintzen direla, horretarako ezkutuko zenbaki bat markatzea beharrezkoa delarik, hura balioztatzeko.

Ezkutuko zenbaki hau gogoratzeko gaitasunik ez duen jende adinduak txartelaren erabilerari uko egiten dio edota, okerragoa dena, ezkutuko paper batean *txuleta* antzeko bat egitera jotzen dute, zenbaki hori gogoratu ahal izateko eta obligazioa betetzeko, nahiz eta hau ez izan batere segurua. Gertukoekin honetaz hitz egiteko aukera izan dudanean, badago adinduak hau ikastea ezinezkoa dela esan duenik. Akats larria! Izan ere, ikasteari uzten zaion momentuan hasten da pertsona zahartzen, hau 50 urterekin, 60rekin edo edozein adinetan izan daitekeelarik.

Honetarako, memorizazio teknika berriak garatzea beharrezkoa da, irudi bidezkoa, adibidez, kutxazain automatikoetako eta komertzioetako ordaintzeko makinen zenbakien egitura oinarritzat hartuta. Imajinatu dezagun gure txartelaren zenbaki ezkutua 1346 dela. Hau gogoratzeko aukerarik ez dagoen kasuan, zenbakien ordena jarraituz lerro imajinario bat marrazten dugu, guretzako gogoratzeko errazagoa izango den irudi bat lortuz, kasu honetan Z moduko hizki bat. Ikasteko erraza, ezta? Ez utzi ikasteari, ez honi ezta gauza sinpleagoei ere!

Bergarako Udala

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behinbehineko izaeraz:

**Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:**

1. Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duena.
2. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
3. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindubeharreko tasak arautzen dituena.
4. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.
5. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoa arautzen dituena.

Erabakia Udalbatza Osoak 2015eko urriaren 26ko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, behinbehineko erabaki hau 30 lanegunez jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinarazi zaio jendeari 2015eko urriaren 27an argitaratutako iragarkiaren bitartez eta 2015eko urriaren 28tik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2015eko urriak 27
ALKATEA

# Euskarazko liburuen truke azoka azaroaren 2tik 20ra

▶ Egoera onean emandako liburuko, txartel bat jasoko du hura dakarrenak

▶ Txartel bakoitza beste liburu bategatik trukatzeko aukera egongo da gero

KOMUNITATEA GOIENA
JARDUN | BERGARA

Aurtengo ere antolatu dugu Jardun Euskara Elkarteak Euskarazko Liburuen Truke Azoka. Ekimenaren helburu nagusia da euskarazko liburuen irakurketa susperraraztea –ez da zentzu honetan egiten dugun ekimen bakarra–, liburuen berrerabilpena bultzatuz, gainera, kasu honetan.

Bakoitzak dagoeneko erabili ez eta egoera onean eta osorik dituen liburuak Jardunen bulegora ekar ditzake. Liburuak ze adin tarterako diren egokiak ikusiko dugu, eta sailkatu egingo ditugu, hiru multzotan; haurrentzako, gazteentzako eta helduentzako liburuak bereiziko ditugu. Ekarritako liburu bakoitzeko, txartel bat jasoko du liburua dakarrenak, eta haren ordez multzo bereko beste liburu bat hartzeko balioko du txartelak.

Bildumak, kopurua edozein izanda ere, txartel bakar baten truke aldatuko ditugu. Liburuek euskaraz izan beharko dute derrigor, eta ez dugu onartuko ez sexu bereizketarik edo indarkeriaren aldeko jarrerarik erakusten duen libururik, ezta ikas libururik ere.

Liburuak jasotzeko epea izango da azaroaren 2tik 19ra, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara –egubakoitzetan 18:00ak arte–. Truke azoka bera azaroaren 20an izango da, 18:00etatik 20:00etara, San Martin plazan. Liburuak pertsonen garapenerako tresna ezin hobea dira; beraz, irakurri!

**Bertsolari finalerako sarrerak**

Bestetik, Jardunen bulegoan ditugu salgai Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finalerako sarrerak; 20 euro balio dute sarrerek, eta azaroaren 20ra arte eskuratu ahal izango dira Jardunen. Gipuzkoako finala abenduaren 19an jokatuko da, 17:00etan hasita, Donostian, Illunben.

## Paella lehiaketa eta herri bazkaria hilaren 21eko festan

Azaroaren 21ean egingo dugu Jardunen 25. urteurrena ospatzeko festa. Egun osoko egitaraua antolatzen ari gara, eta, tartean, paella lehiaketa egingo dugu, eguerdiko hamabietan, Udal Pilotalekuan. Eta lehiaketan aurkezten diren paella horiekin herri bazkaria egingo dugu ondoren. Gehienez lau pertsonako taldeak aurkeztu ahal izango dira, eta talde bakoitzean egon beharko da, gutxienez, 18 urtetik gorako pertsona bat. Bazkaria 14:30ean hasiko da. Izena eman daiteke eta txartelak erosi —bietarako azken eguna da azaroaren 13a— Jardunen eta Pol-Pol, Kortazar, Arrano eta Hamaika tabernetan eta frontoikoan. Txartelen prezio orokorra 12 euro da, ikasle eta langabeentzat 10, eta haurrentzat (12 urtera arte) 5. Lehiaketako lehen saria izango da 100 eurotan baloratutako jatordua herriko jatetxe batean, eta bigarrena urdaiazpikoa eta gazta. Lehiaketaren oinarri guztiak ezagutzeko hona jo daiteke: *www.jardun.eus*.

## OHARRAK

**1930EAN JAIOTAKOAK**
Bazkaria egingo dute azaroaren 7an, Batzokian. 943-76 26 23 eta 943-76 22 22.

**1964AN JAIOTAKOAK**
Tartufon, afaria, azaroaren 14an –20:00etan Ariznoan–. Izena, azaroaren 2ra arte, Ikuz garbitegian, azokan.

**1935EAN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 15ean, bazkaria, Azpeitxi jatetxean. 20 euro sartu behar dira izena emateko: 3035 0009 11 0091116921.

**1944AN JAIOTAKOAK**
Bazkaria, azaroaren 14an, Batzokian. Izena emateko azken eguna, azaroak 8: 943-76 50 22 eta 943-76 58 67.

**1951N JAIOTAKOAK**
Afaria, Sirimirin, azaroaren 7an. Izena, Sirimirin bertan, hilaren 4a aurretik.

**1933AN JAIOTAKOAK**
Hilaren 15ean, meza eta bazkaria, Azpeitxin. Izena, Intxortan.

# Izen handiko musikari eta abeslariak Stoltz-Freres organoaren sasoi berrian

Instrumentuaren konponketarako dohaintzak egiteko aukera izango dute herritarrek



Organoaren Lagunen elkartekoak, aurkezpenean. | MAITE TXINTXURRETA

JULEN IRIONDO | BERGARA

Stoltz-Freres Organoaren Lagunen elkarteak 2015-2016 denboraldiko kontzertu egutegia aurkeztu du astean. Hamalau emanaldi egingo dituzte azaro amaiera eta uztaila artean, eta horietan lortutako dirua San Pedro parrokiako organoaren konponketara bideratuko dute.

Iazko emanaldien balorazio positiboa egin dute elkartetik; izan ere, kontzertu bakoitzean gutxienez ehun pertsona bildu zirela azaldu zuen Aitor Oleak, elkarteko presidenteak. Oraingoan apustu handiagoa egin dute, kontzertu gehiago antolatuaz eta herriko eta inguruko taldeez gain, izen handiko musikari eta abeslariak gonbidatuz: Oscar Candendo Zabala, Pedro Guallar Otazua, Loreto Aramendi, Alize Mendizabal, Esteban Landart, Loreto Fernandez Imaz eta Benantzi Bilbao, besteak beste.

Azaroaren 29an Aitor Oleak berak eskainiko du kontzertua, Stoltz-Freres organoaren jotzaile titularra da-eta. Horren ostean, hurrengo kontzertuak urtarrilean izango dira. 17an Josean Pascual organo-jotzailea arituko da; 24an, berriz, Mariatxen Urkia eta Jose Luis Frantsezena, eta 31n, Esther Iñiguez.

Emanaldi guztiak Santa Marina parrokian izango dira, 19:00etan. Sarreraren prezioa 5 euro izango da, orain arte bezala. Bertatik lortutako diru guztia Stoltz-Freres organoaren konponketara bideratuko dute, azaldu zutenez.

Pasa den kurtsoko diru sarrerei dagokienez, guztira 12.800 euroko sarrerak izan zituen elkarteak; diruaren erdia baino gehiago kontzertuetatik lortu zuten. Gastuak, berriz, ia 4.000 euro izan ziren; mantenura bideratuak, gehienbat.

Oraingoan, herritarrak diru -dohaintzak egitera animatu dituzte, eta horretarako bankuko kontu berria zabaldu dute: ES90 2095 5070 7091 1532 9753 (Kutxabank). Egiten diren dohaintzek zerga-arintzea eragingo dute PFEZren aitorpenean.

Organoaren berritze eta konponketa osoa zazpi fasetan egitea erabaki dute, kostu handia duelako. Hala, lehen fasea estali ahal izateko 100.000 euro lortu beharko dituzte.

### Bi argazkilaritza ikastaro, lehena astelehenetik aurrera

Udalak antolatu ditu, Arizondo Argazkilari Elkartearekin elkarlanean. Astelehena eta hilaren 25a bitartean egingo da oinarrizko argazkilaritza ikastaroa, astelehen, martitzen eta eguaztenetan, 19:15etik 21:15era. Mugikorrarekin argazkiak egiteko ikastaroa, berriz, abenduan izango da. Izena emateko: 943-77 91 59.

### Taila eskolako ikasturte hasiera, eguaztenean

Taila eskolako ikasturte berriaren hasiera ate joka dago. Azaroaren 4rako, eguaztena, jarri dute sasoi berriko aurreneko hitzordua. Taila eskolatik interesa duten guztiei dei egin diete argibide gehiago jasotzera pasa daitezen, 18:00etatik 20:00etara, Zabalotegiko 11. zenbakiko lokaletik.

### Ipuin kontalariak, gaur liburutegian eta gaur zortzi Angiozarren

Gaur, egubakoitza, 18:00etan hasita, umeentzako ipuin kontaketa saioa izango da umeen liburutegian, Saroa Bikandiren eskutik. Hurrengo egubakoitzean, berriz, Angiozarko Arbiaska aretoan izango dira saioak. Bego Alabazan izango da kontalaria, eta haurrentzat saioa egingo du 17:00etan eta 12 urtetik gorakoentzat 19:30ean.

### Prest dute Xabaloten astebururako eta azarorako plana

Bihar, zapatua, eskulan tailerra egingo dute, eta domekan, berriz, Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko bideo labur bat egiten hasiko dira. Honez gain, azaroko egitarauaren barruan, hilaren 21ean Jardunen urteurren festako paella lehiaketan eta saskibaloi lehiaketan parte hartzera animatuko dituzte gazteak.

### Deabru Beltzak taldearen 'Opera abeslaria', domekan

5 urtetik gorako umeentzako antzezlan musikatua eskainiko du domekan, 18:00etan Zabalotegi aretoan, Deabru Beltzak taldeak. *Opera abeslaria* ikusteko sarrera 4 euro kostako da. Operara era ludiko eta entretenigarrian hurbiltzeko aukera ematen duen ikuskizuna da, antzerkia, ipuina eta musika.

### Hiru partidu gaur frontoian, Gipuzkoako Txapelketakoak

19:15ean hasita, lehenengo lehia alebin mailakoa izango da, eta Aretxabaletako kontrarioa izango du Pereira bergararrak. Infantil mailakoan, Bergarako pilotari Ibarrak Olalde klubeko pilotaria izango du kontrario. Azkenik, kadeteetan, Intxurreko pilotariak izango dira Gallastegi eta Gartziaren kontrario.

### Ordizia hartuko du Bergarako eskubaloi taldeak bihar

Labegaraietako partidua 11:45ean hasiko da bihar, zapatua. Sailkapenean egoera berean dauden bi talde ariko dira lehian; izan ere, bai Bergarak eta bai Ordiziak partidu bakarra irabazi dute orain arte jokatutako hiruretan. Biak daude sailkapeneko erdi aldean. Etxean garaipena lortzen saiatuko dira bergararrak.

# Nortasuna indartu gura du Auzokok hirugarren ikasturtean

Atzerritarrak herrian integratzeko zubi-lanak egiten dituen egitasmoa da; egun hamalau lagun daude taldean eta astean behin elkartzen dira

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

"Marokon jaio nintzen eta Oñatira etorri aurretik Belgikan eta Herbeheretan egon naiz. Ez dut inon Auzoko moduko egitasmorik ikusi. Garrantzitsua dela iruditzen zait", dio azken zazpi hilabete hauetan Oñatin bizi den Hassan-ek. Sortzez Nepalgoa den Swejan-ek ere ez du antzerako egitasmorik ikusi inon: "Londresen egon nintzen sasoi batez, eta han ez zegoen horrelakorik. Hizkuntza ikasteko, herria ezagutzeko eta integraziorako oso garrantzitsua da Auzoko niretako. Ni oso pozik nago". Bi urte dira Oñatira etorri zela.

Atzerritarrak herrian integratzeko zubi-lanak egiten jarraitzeko, eurek sentitzen duten behar horri erantzuteko eta era berean herritarren artean gehiago elkar ezagutzeko eta kontzientziazioa zabaltzeko helburuarekin ekin dio Auzokok hirugarren ikasturteari.

**Euskara**

Egun hamalau lagunek osatzen dute Auzokoko kuadrilla. "Auzokideak dira ama hizkuntza euskara ez dutenak eta Pakistangoak, Kolonbiakoak, Portugalekoak, Argentinakoak, Espainiakoak, Gineakoak, Marokokoak edo Nepalgoak daude tartean. Auzotarren hizkuntza, berriz, euskara da. Maider Sansinenea eta Maika Lizarralde dira, adibidez, auzotarretako bi. Taldean, baina, badago gehiagorendako tokia ere", dio Urko Egañak, Auzokoko dinamizatzaileak.

Astean behin elkartzen dira, baina hitzordu ofiziala izaten da hori; gehiagotan ere elkartzen dira, talde txikiagotan bada ere. Martitzenean, esaterako, hiru lagun elkartu ziren goizean kafea hartu eta hizketan egiteko. "Lagun talde baten moduan funtzionatu gura dugu. Inor ez da inor baino gehiago eta ikasturte honetan nortasuna eman gura diogu talde honi", adierazi du Egañak. Euskaltegira ere joaten dira auzokide batzuk euskara ikastera. Lagunak egitea eta lana aurkitzea da euren desioetako bi eta euskara horretan ere lagungarria egingo zaiela uste dute. Udalarekin duten harreman ona ere baloratu dute Auzoko egitasmoko kideek.


Auzoko programako auzokide eta auzotar batzuk eguaztenean. | AUZOKO

## Udal egutegia egiteko argazkiak behar dituzte

**O.E.** | OÑATI

Udalak argazkiak behar ditu datorren urteko egutegia egiteko eta deialdia zabaldu du herritarrek ateratako argazkiak jasotzeko. Egutegiak urtero legez, euskararen aldeko mezu bat zabalduko du. Aurten, *Euskaraz gara* izango da erabiliko den leloa eta aurkeztuko diren argazkiak euskarari edo Oñatiri egin beharko diote erreferentzia. Argazkiek behar besteko kalitatea izan beharko dute eta horizontalak edo apaisatuak izatea eskertuko du udalak. Argazkiak aurkezteko azken eguna azaroaren 9a da eta e-postaz bidali behar dira, egilearen datuekin batera, helbide honetara: *euskera@onati.eus*. Udaleko euskara teknikariak, Xabier Zabaletak, azaldu duen moduan, hamabi argazki aukeratuko dituzte eta azaleko argazkia izango den egilearendako egongo da bakarrik saria; 150 txantxi jasoko ditu.

Udal zerbitzuetan erabiliko dituzte egutegiak eta sobratzen direnak euro baten egongo dira salgai Turismo Bulegoan.

MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
24 ORDUKO ZERBITZUA



- Kliniketara joaten gara (Zerbitzu osoak egiten ditugu)
- Leku aldatzeak
- Dokumentazioa
- Koroak
- Eskelak (Irrati, egunkari eta paretetan)

Tel.: 943 78 34 47
943 78 06 71
Sakelakoa: 617 44 24 66
mmoyua@telefonica.net
Obispo Otadui 27 (Bolibar auzoan)
20560 OÑATI


Oñatiko suhiltzaile bat bere esperientzia azaltzen. | M.T.

# Gazteei zuzendutako errepideko arriskuei buruzko 'road-show'-a

16 eta 18 urte bitarteko Oñatiko hiru ikastetxeetako ikasleak izan dira Santa Anan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Atzo, eguena, errepideko arriskuen gainean kontzientzia sortzeko asmoz, *road-show*-a egin zuten Santa Ana antzokian. Eusko Jaurlaritzako Errepide Sailak Oñatiko Udalarekin lankidetzan antolatu zuen gazteei zuzendutako ekimen hori. Mugikortasun segururako hezkuntza programaren baitan kokatzen da atzoko sentsibilizazio saioa.

Herriko hiru ikastetxeetako 300 pertsonatik gora batu zen aretoan, batxilergoko ikasleak, 16 eta 18 urte bitartekoak. Alegia, guztiak motorreko gidabaimena eskuratzeko adina dutenak eta autoa gidatzeko adina dutenak edo laster izango dutenak.

Testigantza ikuskizuna izan zen. Hala, lehenik, errepide-istripu baten antzezpena egin zuten agertoki gainean. Horren ostean, berriz, arrisku egoerak edo istripuak eta haien ondorioak gertutik bizi izan dituzten hainbat pertsona atera ziren ikusleen aurrera euren esperientzia kontatzera. Oñatiko udaltzainburua, suhiltzaile bat eta Gurutze Gorriko boluntarioak izan ziren, besteak beste, euren esperientziak plazaratzen. Bestalde, istripu baten ondorioz gurpil aulkian ibili behar duen pertsona baten testigantza irakurri zuen familiako kide batek. Bideoak eta irudiak ere jarri zituzten ikusgai.

**Gazteen arriskuak errepidean**

Gaur egun, Euskal Herrian, errepideko istripuak dira 15 eta 34 urte bitarteko gazteak hiltzearen arrazoi nagusia. Hala, hiesaren, minbiziaren edo bestelako gaixotasunen aurretik kokatu da.

Alkoholaren edo drogen eraginpean gidatzea eta abiadura azkarregian ibiltzea da istripu horien kausa nagusia, bereziki gazteen artean. Idoia Lazpita Oñatiko udaltzainburuak adierazi duenez: "Horrelakoak egin aurretik beti pentsatu behar da, eta ziur horrela erabaki zuzena hartuko dugula".

## Aizkorrin berriz gurutzea jartzeko asmoa azaldu du Zegamako Udalak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Burdina mozteko gailu bat erabilita bota zuten urriaren erdialdera Aizkorriko gurutzea. "Horren aurrekoa legazpiar batzuek egindako apustu bat zela-eta bota zuten, 1984an. Oraingo arrazoia zein den ez dakit, baina pena hartu dut", dio Fernando Maiztegi oñatiarrak. Izan ere, hark eraman eta jarri zuen gurutze hori 1993ko maiatzean, Bergarako Jose Antonio Lagoma, Ina Larrañaga eta azken horren emazte eta semearekin batera. Mendizaleak denak. "Bergarako Miguel Altuna institutuan egin genuen bi ikaslek eta hirurok, eskola orduetatik kanpo. Iñaxio Maiztegi galdaragile oñatiarrak lagundu zigun", du gogoan Larrañagak. Zegamako Udalak gertaera konpontzeko asmoa agertu du.


Gurutzea urriaren 25ean. | M.A.

## Domeka arratsaldea beldurrezkoa izango da gaztelekuan

Arimen etxe bihurtuko da gaztelekua domekan, eta gaztetxoek beldurrezko arratsaldea pasako dute, gaztelekuko hezitzaile taldeko begiraleekin batera.

Gaur, egubakoitza, bestalde, urteko plangintzak adosteko bilerak egingo dituzte. 17:00etan, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleekin egingo dute bilera, Kuboan. Topalekuan 19:00etan egingo dute batzar irekia.

## Herrixa Kantuan ekimena egingo dute zapatu goizean

Bihar, zapatua, goizean egingo dute urriko Herrixa Kantuan saioa. Ohi bezala, kontzejupean elkartuko dira, 12:30ean, eta euskal kantuak abestuz ibiliko dira gero kalez kale. Ikasturte honetarako, gainera, kantu-liburua atera dute musika eskolakoen laguntzarekin. Bi eurotan eskura daiteke, musika eskolan edo Txantxiku ikastolako bulegoan. Zapatuko saioan ere erosi ahal izango dira.

## Kanposantura joatean autoak ixtea aholkatu du Udaltzaingoak

Kanposantura joatean autoko ateak giltzaz ixteko eta bistan poltsarik edo baliozko objekturik ez uzteko gomendioa egin du Udaltzaingoak. Horren berri emateko kartelak jarri ditu hilerri inguruan. Udaltzaingoak jakinarazi duenez, sasoi honetan sartu-irten handia egoten da kanposantuan, eta, batzuetan, autoa zabalik uzten dute herritarrek. Aurreko urteetan lapurretak izan dira aparkatuta zeuden ibilgailuetan, eta horrelakoak saihesteko gomendioa da.

NIRE USTEZ

GORETTI MADINA



## Zuzenbidea eta zinema

Zuzenbidea gustuko dugunoi, udazken entretenigarria tokatu zaigu. Araudi berri asko, tartean Euskal Herriko Zuzenbide Zibila, urriaren 3tik aurrera aplikagarria. Ikasten dihardudala, burura datorkit kontu ugari. Legearen arrazoien azalpenetan esaten denez, Euskal Herriaren ohiturazko zuzenbidea errespetatuz, gaurkotu beharrari erantzuten dio, oraingo gure gizartera egokituz. Egun, eginkizun industrial eta komertzialean murgilduta dago Euskal Herria, eta ezin gera gelditu, dio legeak, baserri giroan murgildutako gizarte bati erantzuna ematen zion araudi batekin.

Honekin, *Amama* filma datorkit burura. Oñatin izan dugu aukera ikusteko, eta ez dira gutxi izan filmari esker izan ditugun hausnarketa eta lagun arteko elkarrizketak. Lehengo ohiturek eta oraingo beharrek dihardute batzuetan eztabaidan, garuneko bi hemisferioek beti oreka bilatzen ez duten bezala. Baserrian biziztzeak –etxe inguruko lanak bukaezinak izanik–, agian ez guztioi, baina bai batzuei, arrazionaltasunaren eta sentimenduen borrokan murgiltzen gaitu sarri. Batzuetan ohiturak aska ezinezko kate itogarriak bihur daitezke eta beste batzuetan, ohitura berak, aurrekoei zor diegun eta ondorengoei utziko diegun gure izatearen eta gure gizartearen ondare dira. Ai, ene! Oreka bilatzerik badago? Filmak ez digu kontatzen zer gertatzen den amamaren semea ez denean. Bakoitzak pentsa dezala!


IMANOL SORIANO

# Harmaila bete futbol jokalari ditu Aloña Mendik

Aloña Mendi kirol elkarteko futbol sailak denboraldi berrian lehiatuko diren taldeen aurkezpena egin du Azkoagain futbol zelaian. Guztira hamaika taldek osatuko dute hasita dagoen 2015-2016 denboraldia: gizonezkoenak bederatzi eta emakumezkoenak bi. Azkoagaineko harmailarik ez zen ikusten denak elkartu zirenean.

**Argazki guztiak:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Benito Lertxundi euskal musikagintzaren erreferente bat da. | ELKAR

# Euskal musikagintzaren ikurra Zubikoan izango da

## Benito Lertxundi oriotarrak emanaldia egingo du kiroldegian azaroaren 28an

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Musikaz beterik dator azaroa. Aste bukaera guztietarako antolatu dute musika emanaldiren bat, Musika Egunak ekimenaren barruan. Hiru emanaldi Santa Ana antzokian izango dira, dometan, 19:00etan; azkena, Lertxundirena, kiroldegian izango da.

Azaroaren 8an hasiko dute Musika Egunak egitaraua Easo gizonezko abesbatzarekin. *Iparragirre oroimenean* kontzertua eskainiko dute: besteak beste, *Agur zaharra*, *Nere maitiarentzat*, *Nere etorrera* eta *Ume eder bat* abestuko dituzte. Xalba Rallo izango da zuzendaria. Abestien artean poemak errezitatuko ditu Kirmen Uribe poetak. Pianoan Oscar Candedok lagunduko du.

**Hitchcock-en lana**

Bigarren emanaldia berezia izango da: Alfred Hitchcock zinema zuzendari ospetsuaren *Downhill* (1927) lana eskainiko dute. Tartekatu egingo dituzte filma eta Javier Perez de Azpeitiaren piano emanaldia. Perez de Azpeitiak Donostian, Madrilen eta Liejan egin zituen goi mailako musika ikasketak. Egun, zinema munduari lotuta egiten du lan.

**Easo hirukotea**

Azaroaren 22an, Miren Urbieta, Erlantz Fernandez eta Arkaitz Mendoza hirukoteak barroko garaitik musika garaikideraino sortzen diren musika estiloak aurkeztuko ditu. Urbieta sopranoa da, Mendozak organoa edo pianoa joko du eta Fernandezek, tronpeta. Cacciniren, Purcellen eta Vivaldiren lanak eskainiko dituzte, besteak beste.

Azkeneko saioa azaroaren 28an izango da, zapatua: Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du kiroldegian, 22:00etan. Sarrerak Txokolateixan eta *bibe.me* atarian eros daitezke 15 euroren truke. Egunean, leihatilan, 18 euro.

> **MUSIKA EGUNAK EGITARAUA**
>
> **AZAROAK 8**
> **Easo Abesbatza, Xalba Rallo zuzendaria eta Kirmen Uribe poeta.**
> Santa Anan, 19:00etan.
>
> **AZAROAK 15**
> ***Downhill* filma eta Javier Perez de Azpeitia pianoan.**
> Santa Anan, 19:00etan.
>
> **AZAROAK 22**
> **Trio Easo, Miren Urbieta sopranoa, Arlantz Fernandez tronpeta eta Arkaitz Mendoza organoan.**
> Santa Anan, 19:00etan.
>
> **AZAROAK 28**
> **Benito Lertxundi.**
> Zubikoa kiroldegian, 22:00etan.

# Sorgin-dantza erraldoia Oñatzen urtebetetzerako



Dantzari oñatiarrak irailaren 13ko Haurren Egunean. | EKAITZ FILARMENDI

O.E. | OÑATI

Oñatz dantza taldeak 45 urte betetzen ditu aurten eta aste osoko egitaraua prestatu du urteurren hori ospatzeko. Azaroaren 14tik 21era, dantzari buruzko hitzaldiak eta dantza egiteko aukera egongo da Oñatin; tartean, azaroaren 19an, kalerik kale egingo duten sorgin-dantza herrikoia. "Oso dantza erraza da, dibertigarria eta denok egiteko modukoa", dio Oñatz dantza taldeko Eider Quintasek. Eta herritarrak animatzeko, bi entsegu egingo dituzte: azaroaren 3an eta 10ean izango dira, 19:30ean, Oñatzek Errekalden duen lokalean.

Bestalde, herriko saltokietako eta komertzioetako erakusleihoetan Oñatzen arropa eta materiala erakutsiko dute azaroaren 9tik 23ra bitartean.

# 'Hospital o manicomio' lana aurkeztuko du Ikusi Makusik

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Pake Lekuko Ikusi Makusi antzerki taldeak lan berria prestatu du. *Hospital o manicomio* du izena eta datorren egubakoitzean, azaroak 6, estreinatuko dute, Santa Ana aretoan. Ohitura duten moduan, lehen antzezpena herriko erretirratuendako izango da; Gabonen aurretik, berriz, beste bat egingo dute, herritar guztiendako.

Lan hori, baina, ez da erabat berria. "Duela bederatzi urte ere egin genuen, baina beste izenburu batekin estreinatu genuen. Orain, moldaketa berriak egin dizkiot, eta datorren astean antzeztuko dugu lehenengo aldiz jendaurrean. Obraren egilea nor den ez dakigu", esan du Axun Artzuaga oñatiarrak.

**Kultura Astea**

Datorren astean Pake Lekun egingo duten Kultura Astearen barruan dagoen ekitaldietako bat da antzezlan hori. Hitzaldi bat, bingo berezia eta musika emanaldia ere antolatu dituzte. Martitzenean, esaterako, *Oñatiarrak eta itsasoa historian zehar* hitzaldia egingo du Jose Antonio Azpiazuk, 17:30ean, Pake Lekun. Astelehenean, berriz, Aloña abesbatzaren eta musika eskolako ikasleen emanaldia egongo da, Santa Anan, 18:00etan.

### Maider Arregi Gipuzkoako bertsolari txapelketako final-laurdenetako saioan arituko da domekan

Domekan Ormaiztegiko Zubipe kiroldegian jokatuko den Gipuzkoako bertsolari txapelketako final-laurdenetako saioan kantatuko du Maider Arregi oñatiarrak. Bestalde, Oñatiko bertso eskolak autobusak antolatu ditu abenduaren 19an Ilunben, Donostian, egingo den finalera joateko. Txartelak Txokolateixian egongo dira salgai, 10 eurotan, abenduaren 11ra arte.

### 'Eskura' hausnarketa-txostena aurkezteko bilera irekia egingo du Gure Esku Dagok martitzenean

Gure Esku Dago ekimenaren jarduera, antolamendua eta finantzamendua zehazteko zortzi orriko hausnarketa txostena da *Eskura,* eta proposamen horri buruz berba egiteko eta ekarpenak egiteko bilera irekia egingo du Oñatiko Gure Esku Dago ekimenak datorren astean. Azaroaren 3an izango da bilera, 19:00etan, kultura etxean.

### Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko Errigora kanpainako otarreak Oñatin ere lor daitezke

Almendrak, olioa, orburuak, zainzuriak, zerbaren orri-mamiak eta pikillo piper gorri osoak dituzte, besteak beste, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko Errigora kanpainako saskiak. 50 euro balio du. Kultura etxean edo *oinati@errigora.eus* helbidera mezua bidalita egin behar dira eskaerak azaroaren 8a aurretik. Saskiak azaroaren 21ean banatuko dituzte, Foruen plazan.

### Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzuak etena izango du eguerdietan, domekatik aurrera

Oñati eta Arantzazu lotzen dituen autobus zerbitzuak neguko ordutegia izango du domekatik aurrera. Oñatitik 07:30ean aterako da lehen autobusa, eta Arantzazutik azkena, 18:00etan. 14:00etatik 16:30era bitartean ez da zerbitzurik egongo. Bestalde, 10:30eko autobusak eta 13:15ekoak geldiunea izango dute Arrikrutzen. Martxoaren 28ra arte iraungo du neguko ordutegiak.

CALZADOS ALDASORO
Oñatiko denda eskualdatzen dugu erretiroagatik
**Oso baldintza onak**
Tel.: 943 76 01 18 / 943 78 07 55

# Astelehenean hasiko dituzte bidegorriaren lanak

## Autobus geltokia 30 metro mugituko dute, eta aparkaleku batzuk kendu

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Geltoki plazako bidegorriaren lanak astelehenean, azaroaren 2an, hasiko dituzte. Hori dela eta, hainbat aldaketa izango dira inguru horretan.

Batetik, autoen aparkaleku batzuk kendu egingo dituzte obren ondorioz; horiek zeintzuk diren behar bezala jakinaraziko dute lanok hasi aurretik. Eta bestetik, Eibartik Gasteizerantz doan autobusaren geltokia 30 metro eroango dute hegoaldera; Arizmendi Ikastolako Basabeazpi gunearen aurrean egongo da. Udal ordezkariek jakinarazi dute autoek ez dutela eragozpenik izango inguru hartatik pasatzeko, errepideak zabalik izango direlako. Oinezkoei, ostera, behar bezala adieraziko diete nondik pasatu ahal izango diren, eta zebrabide berriak margotuko dituzte errepidea gurutzatzeko.


Autobus geltokia Basabeazpi aurrealdera eramango dute. | MIRARI ALTUBE

### Hamar asteko lanak

Lanok egingo ditu hondeaketa eta garraio lanak egiten dituen Oiartzungo Orsa SL enpresak, eta 279.425 eurotan esleitu diziote (BEZa barne). Ondo bidean, eta eguraldiak lagunduz gero, hamar aste iraungo dute lanek.

Berrituko duten zatiak 160 metro ditu; Basabeazpi gunea pasatu ostean hasi eta Basabe kaleko bidegurutzeraino doa. Gorriz margotutako aglomeratuarekin zehaztuko dute bizikletendako izango den ibilbidea eta oinezkoendako gunea hormigoizko baldosarekin. Pasealekuko zuhaitzak mantentzeko egokitu egingo dituzte automobilen aparkalekuen eta errepidearen zabalera. Horregatik, autoak zeharka edo baterian aparkatuta egotetik errenkan egotera pasatuko dira.

Lurzoru gaineko lanak bakarrik ez, azpikoak ere egingo dituzte eta ur hodiak eta argiteria sistema berritu.

# Ibarra kiroldegiko tasak % 3 igoko dituzte 2016an eta ura eta zaborra % 2,5

**M.A.** | ARETXABALETA

Udal tasa eta zerga gehienak dagoenetan uztea erabaki du Udalak 2016rako; ibilgailuen gaineko zerga eta ondasun higiezinen gainekoa, esaterako. Igoko dituztenen artean daude ura, zaborra eta kiroldegiko tasak.

### Etxe hutsei errekargua

Ondasun higiezinen gaineko zerga bere horretan uztea proposatu zuen Udal Gobernuak, eta hutsik dauden etxebizitzei %100eko errekargua ezartzen jarraitzea. "Hala ere, berrikusteko asmoa daukagu; izan ere, etxe hutsen salmentarik ez dago, alokairuan ere gutxi... Eta ez dakit halako neurriek laguntzen duten", argitu zuen alkateak. Igoera izango duten tasen artean daude kiroldegiko zerbitzuena, %3 eta urarena eta zaborrarena, %2,5. Eta aipatu zuen irizpide bat ezarri gura dutela "gutxieneko autofinantziazioa" lortzeko.

EH Bilduko zinegotziak konforme agertu ziren 2016rako proposatutako ordenantzekin, "orekatuak" direlako. Irabazikoa, ostera, abstenitu egin zen. Eta proposatu zuen, beste batzuen artean, etxebizitza hutsei %150eko errekargua ezartzea eta erlijio elkarteenak diren lokalei eta otoitzerako erabiltzen ez direnei, ondasun higiezinen gaineko zerga ordainaraztea.

### Energia kooperatiben alde

Mozio bi ere eztabaidatu zituzten. Batetik, duintasunaren martxen aldarrikapenekin bat egitea eskatu zuen Irabazik. Mozioa EH Bilduk babestu zuen, baina ez EAJk, ezta Alderdi Sozialistak ere, "zehaztasun faltagatik", eta ez zuten onartu.

Bestetik, energia kooperatibak bultzatzeko mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk, eta aho batez onartu zuten hori. Udalak konpromisoa hartu zuen 10 kilowattetik beherako kontratu guztiak energia kooperatiba batekin egiteko, eta herritarrak ere horretara animatu zituzten: "Udalak kontratu asko ditu baina herritarrak dira nagusi eta energia kooperatiben aldeko hautua egitea garrantzitsua da", zioen EH Bilduko Jon Albizuk.

Udal jardunerako euskararen erabileraren gaineko protokoloa ere aho batez onartu zuten. EH Bilduk protokolo txukuna dela esan zuen, baina euskaraz ez dakitenei eskatu zien ikasteko konpromisoa hartzeko.

**ESANAK**

**"Etxe hutsek %100eko errekargua izango dute, baina kontua aztertzeko asmoa dugu"**

UNAI ELKORO | ALKATEA

**"Udalak legez, herritarrek ere energia kooperatiben aldeko hautua egin dezaten gura dugu"**

JON ALBIZU | EH BILDUKO ZINEGOTZIA

# Agustindar mojen eraikina erosteko asmoarekin negoziaziotan dabil Udala

## Erosiz gero "lorategia herritarrei zabaltzea" gura du Unai Elkoro alkateak

**M.A.** | ARETXABALETA

Agustindar mojen eraikina laster hutsik geratuko da. Errekabarren kalean dago, herriaren erdi-erdian, eta, horrek eskaintzen dituen aukerak jakinik, Udala erosteko asmotan dabil.

Unai Elkoro alkateak onartu du hainbat bilera egin dituztela mojek izendatutako ordezkariarekin; azkena, eguaztenean. "Orduan eskaintza bat egin genion Udalaren izenean, eta orain zain gaude zer erantzungo duten", dio. Eta gaineratu du: "Nire susmoa da laster iritsiko garela akordio batera".

### Udal eraikinen azterketa

4.000 metro koadro inguru ditu mojen lursailak, eta eraikinak 1.600 metro koadro. "Oraindik ez dugu akordiorik lortu, baina askok uste dutena baino prezio baxuagoak aipatu ditugu negoziatzerakoan", dio alkateak. Eta gaineratu du: "Mojek ez dute negoziorik egin gura".

Udal ordezkariek ez dute erabaki zer egingo duten han, erosiz gero. "Ondo pentsatu behar da hori", esan du. "Gainera, kontuan hartu eraikita dagoela zerbitzu zehatz batzuetarako: ikastetxea, mojen egoitza...". Baina argi du lorategia inguratzen duen harresia lehenbailehen botako lukeela: "Herritarrendako zabalduko nuke. Eta orain arte eliza izan dena aproposa iruditzen zait ekitaldietarako".

Bestalde, Udalak herrian dituen eraikin guztien gaineko "azterketa sakona" egin gura du Elkorok: "Batzuk hutsik daude, beste batzuk beteta... Zer egin daitekeen horiekin hausnartu gura dugu, eta gero, erabakiak hartzen hasi".


Agustindarrak eta alkatea meza entzuten domekan. | IMANOL SORIANO

### "Hunkituta" agurtu dituzte mojak

Joan den domekan agurtu zituzten herritarrek, udal ordezkariek eta pastoraltzako kideek agustindar elkarteko bost kideak. Jon Sarasuak bertsotan egin zien agurra eta alkateak eskerrak eman zizkien Udalaren izenean. Herritarrengatik jasotako "maitasuna eta laguntza" eskertuta, moja guztien izenean agurtu zen Arantxa Jaka.



AZ GAUBELAK

### "Gerra ematera" datoz UDAkoak

Kirol talde guztiak aurkeztu zituen joan den egubakoitzean UDAk, Ibarra futbol zelaian. 2015-2016 denboraldiko argazki ofizialak ateratzearekin batera, UDA animatzea helburu duen mosaikoa egin zuten. Orduko irudiekin, gainera, bideoa egin dute AZ Gaubelak taldeko kideek, eta Youtuben jarri dute. UDAko kideek aurten ere "gerra ematera" datozela jakinarazi dute.

# Nerabeen gurasoendako prestakuntza saioak azaroan

Gaztetxoekin komunikazioa eta sare sozialetako jarduna landuko dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Familia bakoitzak bizi duen eboluzio eta elkarbizitza prozesuaz jabetzeko eta hausnartzeko helburuarekin nerabezaroan seme-alabak dituzten gurasoendako prestakuntza saioak antolatu ditu Guraso Foroak –Kurtzebarriko Gurabarri eta Batera elkarteak, Arizmendi ikastolako eta Pausoka haur eskolako gurasoak eta Kuku Miku elkartea–. Azaroan izango dira saio horiek, euskaraz zein gazteleraz, eta ez dago izenik eman beharrik.

**10 eta 17 urte artekoak**

Saioak bideratu dizkiete 10 eta 17 urte arteko nerabeen gurasoei, irakasleei eta hezitzaileei. Eta, batez ere, komunikazioa eta elkarbizitza landu gura dituzte. "Gure gaztetxoak kalera irteten hasi dira, baina ez dute kontatzen zer egiten duten", diote antolatzaile taldean dauden gurasoek, eta gaineratu dute: "Mugikorrarekin eta Interneten ordu asko pasatzen dituzte, sare sozialetan, eta ez dakigu zer egiten duten. Gazte batekin nola jokatu jakitea zaila da sarritan". Horregatik, gazteekin komunikatzeko beste beste modu bat aurkitu beharra dagoela diote. Eta kontu horietan bideratzeko adituen laguntza izango dute.

**Argibideak ematen**

Bi saio egingo dituzte. Lehenengoak komunikazioa du ardatz eta Izar Arregi psikologo, irakasle eta terapeutak gidatuko du. Bigarrena, sare sozialen gainekoa izango da eta Pantallas Amigas elkarteko kideak etorriko dira argibideak ematera.

## SAIOEN EGUTEGIA

**KOMUNIKAZIOA**

**Hitzaldia:** Nerabe-guraso arteko komunikazioa eta elkarbizitza.
**Hizlaria:** Izar Arregi.
**Eguna:** Azaroak 5, euskaraz.
**Eguna:** Azaroak 12, gazteleraz.
**Ordua:** 18:00.
**Non:** Ibarra kiroldegia.

**INTERNET**

**Hitzaldia:** Nerabeak Interneten: erabilerak, arriskuak, segurtasuna.
**Hizlaria:** Pantallas Amigas elkartea.
**Eguna:** Azaroak 19, euskaraz.
**Eguna:** Azaroak 26, gazteleraz.
**Ordua:** 18:00.
**Non:** Ibarra kiroldegia.

# Masaje ikastaroa dago Kurtzebarrin

M.A. | ARETXABALETA

Masaje ikastaroa antolatu dute Kurtzebarri eskolakoek, azken urteetan legez: "Zure umearekin batera hazkunde goxoa bideratzen duen esperientzia da", diote. Eta hilabete batetik sei hilabete arteko umeak dituzten familiendako da. Azaroan dira eskolak; hona egunak: 10, 12, 17 eta 19. Saio guztiak dira 17:30ean, Kurtzebarri eskolan –atzeko atetik sartuta–. Arropa erosoa eta eskuoihala eramatea gomendatu dute.

Izena aurrez eman behar da, eskolara deituta. Hona zenbakia: 943-79 00 49.

# Antxia: "Donostiako txistulariekin jo ahal izatea zoragarria izan da"

M.A. | ARETXABALETA

Demetrio Iriarte gogoan, txistu emanaldi dotoreak izan dira aste bukaeran, eta herritarrek ezin gusturago jarraitu dituzte.

Egubakoitzean luxuzko gonbidatua izan zuten Aretxabaletako txistulariek: Donostiako Udal Txistulari Banda. "Horiekin jo ahal izatea kalejiran zoragarria izan da", jakinarazi du Jokin Antxia kideak. Eta ekitaldiotan parte hartutakoei eskerrak eman gura izan dizkie: "Bailarako txistulariek ederto erantzun zuten. Eta Aretxabaleta Abesbatzak eta herriko dantzariek bikain jardun zuten". Hain zuzen, Iriartek konposatutako *Loramendi dantza* estreinatu zuten dantzariek Herriko Plazan.

Ondoren etorri zen Donostiako Txistulari Bandaren kontzertua, eta Iriarte izan zuten gogoan orduan ere. Aretxabaletako eta Oñatiko alkateek opariak eman zizkieten haren senideei; eta txistuaren bueltan ibilitako beste batzuek ere jaso zituzten; honako hauek: Nazario Telleriak, Tomas eta Paulo Otxoak, Arantxa Bengoak eta Jasone Altunak.

**Antxiari esker ona**

Zapatuan, ostera, Debagoieneko Txistulari Egunak elkartu zituen bailarako eta inguruetako kideak. Kalejiraren ostean alardea egin zuten plazan, eta Antxiak berak jaso zuzen esker ona taldekideengandik, "beheraldian" txistuari "eutsi" izanagatik herrian.



Demetrio Iriarteren senideak beste omendu batzuekin egubakoitzean. | M.A.



Txistulariak Loramendi poetaren monumentu aurrean zapatuan. | M.A.

# 'Amama' euskal filmak zabaldu du zinema denboraldia Arkupen

M.A. | ARETXABALETA

Udazkenarekin batera itzuli da zinema Arkupera. Eta Donostiako 63. Zinemaldian Irizar saria jaso duen Asier Altuna bergarararraren *Amama* filmak zabaldu du. Atzo, eguena, eman zuten, baina oraindik badago aukera ikusteko: gaur, egubakoitza, (22:00); bihar (19:30 eta 22:00); domekan (19:30); eta astelehenean (16:00). Sarrerak filma eman baino ordu erdi lehenago hartu ahal izango dira, lau eurotan. Umeek, ostera, Asterixen abenturak izango dituzte bihar eta etzi (17:00): *Asterix-Jainkoen egoitza*.

Azaroan, ostera, film hauek izango dituzte helduek: *Regresión* (Espainia, 2015, 106 minutu); *El desconocido* (Espainia, 2015, 98 minutu); *Irrational man* (AEB, 2015, 96 minutu); eta *Everest* (AEB, 2015, 121 minutu). Eta umeek: *Inside out*; *Campanilla-La leyenda de la bestia*; *Pixels*; eta *Magiaren etxea*.

Eguenean zinekluba zabalduko du *Mi casa en París* filmak (Erresuma Batua, 2014, 107 minutu). Eta hurrengo asteetan izango dira: *Citizenfour* (AEB, 2014, 114 minutu); *Bernie* (AEB, 2014, 95 minutu); eta *La fuente de las mujeres* (Frantzia, 2011, 128 minutu).

## OHARRAK

**ESKALADA IKASTAROA**

Berdintasun Sailak antolatutako emakumeendako eskalada ikastaroan izena emateko epea gaur bukatuko da. Arkupera jo behar da. Hiru hilabete iraungo du ikastaroak eta Debagoieneko eskalada eskolakoek gidatuko dute. Prezioa da 12 euro.

**FRONTENIS LEHIAKETA**

UDAk antolatutako lehenengo frontenis misto lehiaketan izena emateko epea domekan, azaroak 1, bukatuko da. Mezu bat bidali hona: *udafrontenisa@gmail.com*. Prezioa da 10 euro bikoteko. Partiduak izango dira azaroko bi aste bukaeratan: 7 eta 8, eta 14 eta 15. Eta sariak dira: bertako produktuekin egindako otarra eta afaria bi lagunendako.

**GURE ESKU DAGO BILERA**

Batzar irekia egingo du Gure Esku Dago lantaldeak martitzenean, azaroak 3, Arkupen (19:00). Eskura prozesuko galderak aztertuko dituzte.

# Hezurren gaineko hitzaldia eta Gaztaina Erre Eguna azaroan

KOMUNITATEA GOIENA | ERRETIRATUAK
BASOTXO | ARETXABALETA

Datorren astean ekintza pare bat ditugu Basotxo erretiratuon elkarteko kideok. Azaroaren 3an, martitzena, osteoporosiaren gaineko hitzaldia emango digu Iñigo Etxebarria traumatologoak. Hezur mamiaren ligaduren eta desgasteen gainean egingo du berba eta gure zalantzak argituko ditu. Basotxon da, 17:00etan.

Eta azaroaren 6an, egubakoitza, Gaztaina Erre Eguna izango dugu Basotxoko tabernan, 18:00etan hasita. Nahi duena lasai hurrera dadila, gonbidatuta dago.



NEREA ALTUNA

# 'Atxabaltako kuentisten' saioa

*Atxabaltako kuentistek* bigarren saioa egin dute astean. Larraitz Garaik eta Amaia Elizgoienek ipuinak kontatu zizkieten, eguaztenean, Udal Liburutegiko Txiki Txokoan elkartutako neska-mutikoei. Giro goxoa sortu zuten guztien artean eta adi-adi jarraitu zituzten haiek esandakoak.

Hurrengo saioa azaroaren 21ean, zapatua, egingo dute, 11:30ean. 4 urtetik gorako umeei gomendatutako saioa izango da.



Huhezin egindako Hiri-berritze proiektuaren gaineko bigarren bileran, herritarrak udal ordezkariekin batera. | IMANOL BELOKI

# Ekarpen ugari izan dira hiri-berritze bileretan

Bi bileren gainean "oso balorazio positiboa" egin du Eskoriatzako alkateak

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Eskoriatzako hiri-berritze plana lantzeko bi bilera ireki egin ditu Udalak eskoriatzarrekin batera, eta ekarpen ugari egin dituzte bileretan batu diren herritarrek. Hala, herriko auzoak, elizateak, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko, hainbat gai jarri zituzten herritarrek mahai gainean.

Eskoriatza denon artean hobetzeko asmoarekin Udaleko gobernu talde berriak egindako ekimen hori hauteskunde programan hartutako konpromiso baten parte da, eta hiri-berritze planaren proiekturako herritarrekin egindako bileren balorazio positiboa egin du Udalak.

Astelehenean, hilaren 19an, izan zen lehen bilera, Ibarraundin, eta eguenean, hilaren 22an, bigarrena, Huhezin. Parte-hartze handia nabarmendu du Eskoriatzako alkateak: "Balorazioa oso positiboa da, eta partaidetza handia izan dugu bi bileretan. Harreman zuzena izatea merezi izan du…".

Bilera bakoitzean 50 pertsonatik gora izan dira, eta, entzuteaz gain, ekarpen ugari egin dituzte herritarrek. Hala eta guztiz ere, hainbat gauza nabarmendu nahi izan ditu Joserra Zubizarreta alkateak: batetik, jende asko izateaz gain, eragozpen barik hitz egin dutela; bestetik, errespetuz jokatuz, iradokizun ugari egin dituztela. Eta herritar bakoitzak herriko argazki oso puntuala erakutsi diola Udalari, ikuspegi orokorra eman beharrean. Hala, herriko txoko, esparru eta arazo guztiak gainetik aztertu ahal izan dituzte.

Gai ugari aipatu dira bileretan, baina aipatzekoak, edo behin baino gehiagotan errepikatu direnak, hauek izan dira: Sorautzetik Elorretarako pasoa; orokorrean herrian dagoen zikinkeria, errekan, kalean, bidegorrian…; zirkulazioaren inguruko gorabeherak; errepide desbideraketaz gain, automobilen abiadura; eta herriko hainbat gunetan argi gutxi dagoela oinezkoentzako pasoetan, besteak beste.

### Datu guztiak batuz

Ekarpen guztiak jasota, datu guztiak batuko ditu Udalak, kuantifikatu, eta horren arabera gauza batzuk edo beste batzuk aurrera eramango dituzte. Horretarako, batzordetik pasako dituzte gaiak, lehentasunak zeintzuk dituzten zehazteko.

## Edukiontzi bat bete dute erreka garbiketan

Santa Marina plazan egunerako jarritako edukiontzia bete zuten garbiketa lanetan ibili zirenek. Batez ere, erreka alboetan, plastikoak eta litxarreria poltsak batu zituzten. Ibarraundi museotik balorazio positiboa egin dute, eta datorren urtera begira jende gehiagok parte hartzea nahi dutela adierazi dute.



IMANOL SORIANO

## Arimen Gaua ospatzeko ekintza ugari prestatu dituzte, gaztetxoentzat

**I.B** | ESKORIATZA

Hezkuntza Foroak, gaztelekuarekin eta ludotekarekin batera, egitarau bateratua prestatu du Arimen Gaua ospatzeko. AEBetako Halloween jaia Euskal Herrian Arimen Gaua izenez ezagutzen da. Gazteek hango ohitura hartu dute, *truco o trato* eta halakoak barneratuz eta mozorroak erosiz. Bada, hemengo ohiturara gerturatzeko, etxeko trapu zaharrekin mozorroak egiteko eta *Xanduli, manduli, kikirriki..... eman goxokiak guri!* esateko proposatuko diete gaztetxoei.

### ARIMEN GAUA ESKORIATZAN

**URRIAK 30**

**Sorgin edabeak eta mozorroak:**
Tortolis ludotekan, 17:30ean.

**Kandelagintza tailerra eta Arimen Gaueko errituaren prestaketa:**
Gaztelekuan, 18:00etan.

**URRIAK 31**

**Kalabazak hustea:**
Herriko plazan, 17:00etan.

**Maite Frankoren ipuin kontaketa:**
Ur depositu zaharrean, 18:30ean.

**Arimen Gaua, ur depositura irteera gaztelekutik:**
Ur depositu zaharrean, 21:00etan.

**AZAROAK 1**

**Beldurrezko pelikula:**
Gaztelekuan, 18:30ean.



MAIDER ARREGI

## Sute txiki bat izan da Catan

Eskoriatzako Cata Edesa Industrial lantegian –lehengo Fagor etxetresna elektrikoak–, eltzeak egiten dituzten gunean, makina batek su hartu zuen eguaztenean. Zorionez, ez zen zauriturik izan, eta langile guztiak lanera bueltatu ziren atzo, eguena.

## Gabonetako oporretarako olinpiadak urtarrilaren 2an egitea proposatu du Udalak

16 urtetik gorako gazteentzat Gabonetarako olinpiada antolatu nahi du Eskoriatzako Udalak, urtarrilaren 2rako. Atzo izan zen lehen bilera, olinpiadetan egin nahi dena zehazteko. Bilerara joan ez zenak eta parte hartu nahi duenak kultura etxera deitu beharko du. Gutxienez, sei kuadrilla batu nahi dituzte, kanpaina hasteko, eta erronkak ez dira betiko kiroletan oinarrituko.

## Pertsona zaharren erorikoak prebenitzeko tailer teoriko eta praktikoek arrakasta izan dute

Eguaztenean, pertsona zaharren erorikoak prebenitzeko tailerrak arrakasta izan zuen; 30 pertsona batu ziren. Gaur, bigarren saioa egingo dute, 16:30ean, Ibarraundin. Rafa Carrietek –ATAMA Kenpo taldea– Aritz Urrutiak –Hirigintza teknikaria–, Agurtzane Altubek –Gizarte Zerbitzuetako teknikaria–, Joxe Mari Kortazarrek –erretiratuen elkartuko presidentea– eta Izaro Ormazabalek –Osakidetzako fisioterapeuta– tailer teoriko zein praktikoak emango dituzte.

## Senzala Euskadi Capoeira Taldeak umeentzako capoeira ikastaroa emango du astelehenero

2015-2016 ikasturtea hasteko, umeentzako capoeira ikastaroa antolatu du Senzala Euskadi Capoeira Taldeak. Astelehenero 17:00etatik 18:00etara emango dituzte saioak, pilotalekuko gimnasioan. Lehenengo eskola doan izango den arren, umeek hilero 20 euro ordaindu beharko dituzte eskolengatik. Informazio gehiago nahi duenak *www.senzalaeuskadicapoeira.com* webgunean edo 625 77 22 95 telefonora deituta jaso dezake.

# Egunerokotik irten eta solasaldiak partekatuz

Gabonak bitartean Landatxopeko bazkideendako makina bat ekintza dago

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Solomoa, piperrak, bizkotxoa, txokolatea... tradizioari eutsiz, Landatxopeko erretiratuek urteroko merienda egin zuten eguazten arratsaldean. "Beti ematen diegu bazkideei doan merienda urteko sasoi honetan. Oso gustura hartzen dute, gainera. Aitzakia ederra denak elkartzeko eta solasaldi ederrak egiteko", azaldu du Landatxopeko lehendakari Jesus Muruamendiarazek.

"Janari guztia arratsaldean bertan prestatu dugu. Hamar lagun sukaldean ibili gara jo eta su lanean. Baina oso erraza da 80 lagunendako solomo eta piper ogitartekoak prestatzea. Dagoeneko eskua hartuta dugu", azaldu du sukaldari lanetan ibili den Felix Alonso sukaldariak.

Eta arratsaldea goxatzeko, guztiendako nahi adina txokolate banatu zuten. Hogei litro txokolate prestatu zituzten.

### Harremanak sustatuz

Urtero gustura egiten dutela merienda diote Antzuolako erretiratuek: "Berriketaldi ederrak egiteko aukera eskaintzen dizkigute horrelako ekintzek. Gustura etortzen gara; izan ere, egunerokotasunetik irten eta tarte eder bat igarotzen dugu kontu kontari. Primeran igarotzen dugu! Ahal den heinean, egiten jarraitu behar diren ekintzak dira, gure arteko harremanak sustatzen eta indartzen jarraitzeko".

### Ekintza gehiago

Urtea bukatu aurretik, baina, agenda bete-betea dauka herriko erretiratuen elkarteak. Hala, Gabonak bitartean badago zerekin disfrutatu Landatxopen: "Ia ekintza guztiak jatekoari lotutakoak ditugu, kar-kar; baina baita ere borondate lanarekin lotura dutenak. Santa Zezilia bezperan gaztaina erre jana, San Tomasetan txistorra-jana, azaro bukaeran Debagoieneko Karta Txapelketa... Udazkenean eta udaberrian izaten ditugu ekintza gehienak".



Eguazten arratsaldean merienda egin zuten erretiratuek. | MAIDER ARREGI

# Ezkutuko altxorrak bertatik bertara ezagutzeko bisita gidatua

M.A. | ANTZUOLA

Antiguako ermitak eta Antzuolako erdiguneak duten historia ezagutzeko aukera izango da zapatuan, urriaren 31n. Eguerdiko hamabietan Antiguako ermitan hasiko da bisita gidatua. Hortik abiatuz, erdigunerantz jaitsiz, Antzuolako herriak dituen historiaren zenbati gako entzuteko aukera izango da Libe Valverderen gidaritzapean: "Antiguatik plazaraino jaitsiko gara. Bertan, Errukizko Gure Amaren eliza ikusiko dugu eta herriko zenbait istorio kontatuko ditut".

### Antiguako ermita

XIV. mendekoa da Antiguako baseliza. "Barrualdean dagoen Andre Mari gotikoa bisitatuko dugu; izan ere, historiaren gakoetako bat da", azaldu du Valverdek.

### Antzuolako erdigunea

Kalegoin behera joanda, plazarainoko ibilbidean hainbat altxorrekin topo egingo dute. Hala, Kalegoiko Txasionekoaz –garai bateko harategia– eta Montxonenekoaz –errekarri ikusgarria du– berba egingo dute. Herriguneko eraikin zaharrena ere bisitatuko dute: Txasiozarrenekoa, XV-XVI. mendekoa.

"Herriko Plazaren estilo barrokoa kanpotik ikusiko dugu". Martin de Carrerak XVIII. mendean egindakoa da. Udaletxearen bi aldeetan daude, gainera, estilo barrokoa duten Bizkalatzako etxea eta Goenaga etxea. Aipagai izango dute erdiguneitik eta plazatik ikusten den Kanpai dorrea eta eliza. 1866an eraiki zuten kanpai dorrea, eta 1952an oinaztarri batek jo eta su hartu zuen.



Kalegoi. | MAIDER ARREGI

# Krisiak eraginda migrazioa aldatu egin da gaur egun

M.A. / M.T. | ANTZUOLA

Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren fundatzaile Agustin Untzurruntzagak hitzaldia eskaini zuen martitzen arratsaldean Olaran etxean. Herriko Landatxope erretiratuen elkarteak gonbidatuta etorri zen, eta egun munduan gertatzen diren migrazioak izan zituen hizpide. Nabarmendu zuenez, duela pare bat urtera arte etorkinen kopuruak goranzko joera bazuen ere, krisiaren eraginez berriro ere behera egin du Gipuzkoa mailan. Antzuolan ere joera bera ikus daitekeela azaldu zuen: "Azken urteotan Gipuzkoan, eta baita Antzuolan ere, jendea bertara bizitzera dator, baina, aldi berean, beste batzuek kanpora emigratzen dute", azaldu zuen.

"Migrazioak, baina, ez dira soilik kanpotik datozen pertsonenak; azken urteotan –bereziki bertakoak direnak– gero eta jende gehiagok beste herrialde batera emigratzera behartuta ikusten du bere burua", gaineratu zuen.

Aretoa herritarrez bete zen eta 60 lagunetik gora izan zen hitzaldia jarraitzen. Aipatu behar da publikoaren artean Siriako errefuxiatuen gatazkaren gaineko kezka azaleratu zela. "Hasieran komunikabideetan ikusitako irudiek gaiarekiko interesa eta kontzientzia piztu zuten gizartean. Hala ere, Espainiako gobernuak oraindik ez du errefuxiaturik jaso, eta hori lehenbailehen egin beharko litzatekeela uste dut", adierazi zuen, solasaldian sortutako kezka argitu guran, Untzurruntzagak.



Untzurruntzaga. | MAITE TXINTXURRETA

## NIRE USTEZ



IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

# Hezkuntza eredua

Aurrezi ikastola eta eskola publikoa edo nazionala elkartu zirenean, Antzuolako Herri Eskola sortu zen 1983an. Harrezkero, gauza asko pasatu dira munduan, Euskal Herrian eta Antzuolan ere. Ez alferrekoak, adibidez, Antzuolako Herri Eskolarentzat, aurten urtetako bere hezkuntza estilo edo ereduan oinarrituta, tesia aurkeztu delako Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako Huhezi Fakultatean. Zer du, bada, herriko eskolak berezia ikerketa sakon bat egiteko? Proiektu adostua izatea, hau da, elkarrizketa, komunikazioa eta elkarrekintza sozialean oinarrituta egotea, klabeak direnak edozein komunitateko egitasmo bat era adostuan eratzeko eta garatzeko.

Baina, goian adierazi dugun bezala, 32 urte hauetan gizartea etengabe aldatzeaz gain, hezkuntza bera ulertzeko era ere aldatu dela konturatu gara, tartean Antzuolako Hezkuntza Komunitatearena. Izan ere, tesi gaia izan den hezkuntza estilo honen protagonistak jubilatu edo jubilatzear daude. Irakasle berriek irakasle rola ulertzeko duten modua ere aldatu da. Aldaketak baita gure Hezkuntza Komunitate barruko beste eragile batzuen –batez ere, gurasoen– artean ere. Garai berriei atxikita beste mentalitate berri batzuk, dudarik gabe. Baina guztiek batuta adierazten dizkigutenak hezkuntza erronka berrien aurrean gaudela, eta eragina dutenak hainbesteko onurak ekarri dizkigun Antzuolako hezkuntza estilo honen bizi iraupenean ere. Beraz, orain arte egindakoa gal ez dadin eta etorkizuneko hezkuntza eredua berma dezagun, Antzuolako Hezkuntza Komunitatearen eragile guztiok hemendik aurrera eman beharreko pausoak definitu eta ahalik eta azkarren adosteko momentua iritsi dela uste dut.

## OHARRAK

### BILKURA MARTITZENEAN

Azaroaren 3an ohiko osoko bilkura egingo dute, 19:00etan.

### 'CARMEN' OPERA

Azaroaren 26an, Donostian, Kursaalean, *Carmen* opera ikusteko aukera izango da. Hala, doako autobus zerbitzua eskainiko diete antzuolarrei, bergararrei eta arrasatearrei. Hiru udalerrietatik atera eta Kursaaleko ikuskizuna amaitutakoan berriro herrietara itzuliko den autobusa, hain zuzen ere. Autobuserako izena emateko epea azaroaren 20an bukatuko da. Interesa dutenek Kursaaleko webgunean ikuskizunerako sarrera erosi beharko dute: *www.sarrerak.kursaal.org*. Ondoren, autobuserako tokia erreserbatu beharko da 943 76 62 46 telefonora deituta edo *kultura@antzuola.eus* helbidera mezua idatzita.

# D eredua Nafarroa osora heltzen laguntzeko ekimenean parte hartu!

KOMUNITATEA GOIENA | ANTZUOLA
ERRIGORA EKIMENA |

Errigora ekimenak Nafarroako Erriberako nekazaritza produktuekin osatutako otarreak salgai jarriko ditu Antzuolan. Ekimen honek sustatutako kanpaina honetan bildutako dirua Erriberako nekazarientzako izango da. Eskuratutako irabaziak, berriz, eskualde horretako euskalgintzara bideratuko dira. Zehatzago esanda, batzen den dirua honako hiru proiektu hauetara bideratuko da: Lodosako eta Vianako ikastolen biziraupenera, Erriberako AEKra eta D eredua Nafarroa osora hedatzeko ekimenetara, hain justu ere.

Otarreak 50 euroren truke eskuratu ahal izango dira –saskiaren salneurria merkatuan 50 euro da, baina, herritarren lan boluntarioari esker, %25 euskararentzat izatea posible da–. Horretarako, baina, eskaera egin beharko da urriaren 21etik azaroaren 8ra arteko epean. Eskaera Antzuolako liburutegian edo liburu dendan egin dezakete herritarrek. Eta norberaren datuak eman beharko dituzte. Errigora ekimeneko saskia, berriz, azaro amaieran jasoko dute.



Iazko azokako postua: ekoizlea babak eta bestelako produktuak saltzen. | OIHANA ELORTZA

# Garaiko produktuen azoka egingo dute bihar

## Erretiratuen Egunaren harira izango da eta barazki, artisautza eta animalia postuak jarriko dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Urriko azkeneko zapatuan ohikoa den moduan, Erretiratuen Egunarekin batera Aramaioko azoka egingo dute. Barazki, artisautza eta animalia azokak girotuko du Nardeaga kalea. 11:00etatik 14:30era bitartean jarriko dituzte herriko eta inguruko herrietako baserritarrek euren produktuak ikusgai eta salgai. Aurten, 26 postu jarriko dituzte –produktuenak–, Kristina Etxenausia zinegotziak azaldu duenez; horrez gain, animalien 14 postu jarriko dituzte: ardiak, astoak, behiak... egongo dira ikusgai, besteak beste. Azokak irauten duen bitartean, herriko txistulariak eta trikitilariak kalejiran ibiliko dira.

**Meza, abesbatzarekin**

12:00etan meza esango dute. Bizente Goikoetxea herriko abesbatzak parte hartuko du. Horren ondoren, Papargorri ume eta gaztetxoen abesbatzak emanaldia eskainiko du, mezara joandakoen gozamenerako.

Eliza atarian, herriko dantzariek eta trikitilariek emanaldia egingo dute, 13:00etan. Urtean zehar ikasitakoak erakusteko aukera paregabea izango da.

**Bazkaria eta zozketa**

Bihar, protagonistak erretiratuak izango dira. Hala, bazkaria egingo dute kiroldegian; 100 bat lagun elkartuko dira.

Bazkalostean sariak banatuko dituzte. Bi bidaia zozketatuko dituzte, Donostiara: bi gauekoa, bata; eta egun-pasa, bestea.

# Autobus zerbitzuaren ordutegi berriak eskuragarri daude

## Kexak eta eskaerak udaletxean jasoko dituzte

A.E. | ARAMAIO

Arabako Foru Aldundiak hainbat aldaketa egin ditu autobus zerbitzuaren ordutegian, eta ordutegi berriak astelehenean jarri zituzten martxan. Bada, ordutegi berriak eskuragarri daude udaletxean, liburutegian, tabernetan eta auzoetako elkarteetan.

Udaletik adierazi dute jakin badakitela "kexa asko" daudela. "Aurretik ere, Udalean ordutegi berriak aztertu eta jendearekin hitz egin ostean aldaketa eta eskaera batzuk bidali genituen Aldundira, baina ez digute kasurik egin", azaldu du Lierni Altuna alkateak ohar bitartez.

**Martxan jarri dute**

Arabako Foru Aldunditik esandakoa zera da: ordutegi berriak martxan jarriko dituztela eta horren ostean kexarik balego aztertuko dituztela.

Astelehenean, urriaren 26an, sartu zen indarrean ordutegi berria. Aldundiak emandako erantzunaren aurrean, Udaletik zera azaldu dute: "Kexa edo aldaketa proposamenik baduzue, udaletxera etorri, eta guztiak jaso eta Arabako Foru Aldundira bideratuko ditugu, aramaioar guztiontzat ordutegi ahalik eta hoberena lortzeko ahaleginean".

**Taxi zerbitzua auzoendako**

Bestalde, Udaletik gogoratu nahi dute auzoak autobusekin lotzeko taxi zerbitzua dagoela. Astelehenetik zapatura 15:00ak arte eskainiko dute zerbitzua, jaiegunetan izan ezik. Taxia erabili nahi dela abisatu egin beharko da aurreko eguneko 18:00ak baino lehen. Erabiltzaileak 1,70 euro ordaindu beharko du. Taxi zerbitzuko telefono zenbakia da: 629 54 59 23/ 945 44 50 33 (Mikel Bengoa).

### Konpost ikastaroak martitzenean hasiko dituzte, 18:30ean

Konposta egiten ikasteko prestakuntza saioak datorren astean hasiko dituzte: azaroaren 3an, azaroaren 5ean –gazteleraz–, azaroaren 6an eta azaroaren 7an izango dira, udaletxean: astean zehar, 18:30ean; eta zapatuan, 10:30ean. Saio bakarrera joan beharko da –aukeratu egokiena–.

### Pilota txapelketako finalerdiak gaur eta etzi egingo dituzte

San Martin pilota txapelketa amaierara iristen dabil. Gaur, barikua, eta domekan finalerdiak jokatuko dituzte. Gaur, 18:00etan hasita, sei norgehiagoka jokatuko dituzte. Domekan, azaroaren 1ean, 10:00etan hasita, zortzi partidu izango dira. Finalak azaroaren 8an izango dira.

NIRE USTEZ

ANDER ELORTONDO



# Agur edo hurrengo arte

AEDn lan egin aurretik hasi nuen harremana euskalgintzako komunikabideekin, garai hartan *Arrasate Press*. Gerora, Arrasate Irratian entzun, telebista tertulietan ikusi eta, nola ez, lerro hauetan botatakoak irakurtzeko aukera izan duzue nahi izan duzuenok. Denetarik esandakoa naizenez, ezinbestean, denetariko erreakzioak jaso ditut. Gertukoengandik, adiskideengandik, ezezagunengandik, eztabaida zaleengandik, ulermenetik eta beste asko....

Ingurukoak, herria eta iritziak horrela izan behar dute, anitzak. Toki, izaera eta iritzi ezberdinetatik elkarbizitza zoriontsu bat eraikitzeko gai izan behar dugulako. Enpatia eta asertibitatea dira giltza eta oinarri; joder, zein hitz potoloak!

Erraza da, bestearen tokian jarri eta saiatu hura ulertzen. Hori bai, norberaren eskubideak defendatzearen alde egin, besteen eskubideak eragotzi eta urratu gabe. Sentimenduak ez dira gure esku egoten, nik hainbat mindu ditut, nahiko nukeen azkena hori izan arren. Orain niri ere asertziozkoa izatea tokatzen zait, Goienari emandako iritzien talaia honengatik eskerrak emanez, irakurri nautenei beraien denbora eskaintzeagatik esker ona adieraziz; eta, gogoetaren bat edo beste sortzeko gai izan banaiz, eskaini dudan denbora ontzat emanez. Bai, agur esaten ari naiz. Hurrengo bat arte, balego. Izan libreak, izan euskaldunak!

**"Bestearen tokian jarri eta saiatu hura ulertzen "**



ARANTZAZU EZKIBEL

# Jolas tradizionalak ezagutu dituzte 245 gaztek

Jolas tradizionalen topaketak egin zituzten atzo, eguena, Aramaioko eskolan. Goieskolako gorputz heziketako irakasleek antolatzen dute urtero. Antzuolako, Elgetako, Bergarako, Arrasateko, Aretxabaletako eta Aramaioko eskoletako LHko 4. mailako 245 ikasle ibili ziren jolas tradizionalak eta herri kirolak ezagutzen. Egun "polita" pasatu zuten.

ELGETA

# Eman izena 'Elgetan berbetan' egitasmoan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Mintzalaguna izenarekin da ezagun egitasmoa beste hainbat tokitan, eta iritsi da Elgetara ere. "Helburua da euskaraz berba egiteko ohiturarik ez dutenak ohitura dutenekin elkartzea astean ordubetez", azaldu du dinamizatzaile lanak egingo dituen Kepa de Vegak. Udalak eta Topaguneak bultzatutako ekimenaren helburua da herrian lau eta sei kide arteko hiruzpalau talde osatzea. "Ordutegiaren eta zaletasunen arabera antolatuko ditugu taldeak", esan du De Vegak. Azaroaren 4an, eguaztena, egingo dute lehen bilera, 19:00etan, udaletxean. Euskara zinegotzi Janire Lazkanok azaldu du zabalik dagoela izen-ematea eta interesatuek etxez etxe banatutako orriak bete behar dituztela.



Kepa de Vega, Janire Lazkano eta Iban Arantzabal egitasmoa aurkezten. | L.Z.

**Goibeko, babesleen artean**

Goibeko euskara elkarteak bat egin du egitasmoarekin eta bertan parte hartzera animatu ditu bazkideak. "Begi onez ikusten dugu ekimena eta bultza egiten gaude mintzalagunak funtziona dezan Elgetan. (...) Beste aletxo bat ipiniko diogu 1993tik sortuta dagoen mugimenduari. Sei mila lagunek baino gehiagok dihardute; gustura dihardute, gozamenez dihardute eta gozatzeko beste aukera bat egongo da Elgetan. Pozez hartzeko albistea da", adierazi du Goibeko elkarteko presidente Iban Arantzabalek.

# Etxebizitza hutsen gaineko zerga, berriz ere, desadostasun iturri

L.Z. | ELGETA

Elgetako udalbatzak martitzeneko osoko bilkuran onartu zituen 2016rako udal tasak eta ordenantza fiskalak. Salbuespenak salbuespen, ez da igoerarik aplikatuko. Iraitz Lazkano alkateak azaldu du aldaketa ugari egin dituztela ordenantzetan egoera ekonomiko okerrenean daudenei laguntzeko, eta hobekuntzak aplikatuko dituztela progresibotasunari begira. "Familien sarreren arabera aplikatuko ditugu hobariak, eta kontuan hartuko dugu, baita ere, unitate familiarra osatzen duen pertsona kopurua".

Proposamen orokorrarekin ados egonda, Gu Geu Elgetako ordezkariak abstenitu egin ziren. "Zalantza handiak ditugu etxebizitza hutsei aplikatzen zaien %100eko errekarguarekin", azaldu du bozeramaile Mikel Larreak. "Benetan dauka eragina etxebizitza horien merkaturatzean? Ez dago txosten ekonomikorik, eta gaiak azterketa sakonagoa merezi duela uste dugu", esan du. Lazkanok erantzun zien hilabeteko epean ez dutela proposamenik egin.

Bestelakoetan, aho bateko onarpena lortu zuten, besteak beste, Debagoieneko koordinazio sozio-sanitarioko protokoloak, Udaleko diru laguntzen plan estrategikoak eta udal harrera protokoloak. Gu Geu Elgeta abstenitu egin zen preso dauden familiarteko elgetarrendako diru laguntzak arautzeko ordenantzaren onarpenean. Gaia lantzeko denbora eskatu zuten, baina hiru hilabeteko epea egon dela eta ez dutela proposamenik egin adierazi zitzaien udal gobernutik.

## 'Danon artian danon herrixa'

**Urrian hasi eta abendura bitartean egingo duen parte hartze prozesuaren berri eman du Udalak. Galdetegi bat banatu du etxez etxe, eta parte hartzeko aukera ez galtzeko eskatu diete herritarrei. Iritziak jasotzeko elkarrizketak eta batzar irekiak egingo dituzte, "denon artean herria hobetzeko helburuarekin".**

# Hondarribiko arraunlariak eta Jon Sarasketa izango dira protagonistak bihar

L.Z. | ELGETA

Hondarribia arraun elkarteko kideak 11:30 aldera iritsiko dira bihar Elgetara. Udaletxean egingo diete harrera Iraitz Lazkano alkateak eta Elgetako jarraitzaile taldeak. Pilota saioa, bazkaria eta mus txapelketa etorriko dira gero.

Jon Sarasketa elgetarrak ere herritarren omenaldia jasoko du. Arraunlarien harrera ekitaldia amaitutakoan izango da, herriko plazan. Lagunek hainbat sorpresa prestatu dizkiote Sarasketari. Aurreratu dute musikaz beteriko omenaldia izango dela.



Jon Sarasketa. | ALIZIA GARTZIA

# Herrixa Dantzan domekan, 19:00etan

KOMUNITATEA GOIENA
HERRIXA DANTZAN | ELGETA

Domekan, azaroak 1, egingo dute Herrixa Dantzan dantzaldien ikasturte hasiera, Elgetako kafe antzokian. Saioa 19:00etan hasiko da. "Urriaren 25ean behar zuen, baina astebete atzeratu da Espaloia kafe antzokiak eskatuta —agendagatik—. Normalean, hileko azken igandean izango da. Hau urriari zegokion dantzaldia da, beraz. Dantza gidaria: Patxi Montero. Laguntzailea: Elgetako Udala", azaldu dute.

## Hogei bat lagunek auzolanean garbitu dituzte Egoetxeaga auzoko bide bazterrak

Udazken honetan auzolanean jarduteko Udalak egindako bigarren deialdia izan da, eta hilaren 24an hogei lagunen artean garbitu zituzten Karabietatik Iturbe-Etxeberri baserri ingururainoko bide bazterrak. "Bertan bizi direnek eta inguru horretan lurrak dituztenek jaso zuten deialdia", argitu du Iraitz Lazkano alkateak. Balorazioa positiboa da: "Kalkulatzen dugu hamar bat urtean egon direla bide horretako bazterrak garbitu gabe".

## PILOTA TXAPELKETA

| AZKEN EMAITZAK | |
|---|---|
| Iñaki Ugarteburu-Koldo Goenaga / Alberto Telleria-Angel Ibarluzea | 10-18 |
| Mikel Elkoro-Jose Mari Zubiaurre / Iban Retolaza-Enrike Elkoro (Sergio Bouzas) | 18-14 |
| Etor Garate-Eneko Maguregi / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar | 13-18 |
| Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal / Oskar Sarasua-Andoni Elortza | 8-18 |

| GAUR, BARIKUA, 19:30EAN |
|---|
| Mikel Ormaetxea-Koldo Erostarbe / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta |
| Josu Mañarikua-Beñat Arabaolaza / Asier Untzetabarrenetxea-Iker Zabaleta |
| Oskar Sarasua-Andoni Elortza / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar |
| Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Etor Garate-Eneko Maguregi |
| Epaileak: Iñaki Ugarteburu-Koldo Goenaga eta Mikel Elkoro-Jose Mari Zubiaurre |

## OHARRAK

**'IPUINAK BIRAKA' TAILERRA**
Gaur, 17:30ean, liburutegian. 6 urtetik gorako umeendako.

**ARIMEN GAUA**
Gaur, 19:30ean, *Karlista galduaren altxorra bila* antzezlana. Herriko plazatik abiatuta.

**AZKEN BARIKUA**
Gaur, 20:00etan, euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko elkarretaratzea, herriko plazan.

**BISITA GIDATUA**
Domekan, 10:00etan, Espaloitik. Izen-emateak: 943 79 64 63.

**DOMU SANTUKO MEZAK**
Meza esango dute parrokian zapatuan 19:30ean eta domekan 12:00etan. Eta astelehenean, San Roke ermitan, 10:00etan.

**BAKARRIZKETA, ESPALOIAN**
Zapatuan, 22:30ean, *Mr Kebab* antzezlana. [Ikus 31. orria]

**ZUZENKETA**
EAJk azaroaren 18ra arte du salgai Gabonetako loteria. Arduradunak dira Maria Jesus Lete eta Begoña Ardantza.

LEINTZ GATZAGA

# %1eko igoera izango dute udal zergek 2016an

## Salbuespenen artean, hondakinen zerbitzuaren igoera %5ekoa izango da, baina hobariak daude

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Udal zerbitzu batzuen prezioak bere horretan utziko dituzte datorren urtean; beste batzuek %3-5eko igoera izango dute, eta hori baino handixeagoa izango dutenak ere badira. Baina horiek guztiak salbuespenak dira; izan ere, atzo (eguena) osoko bilkurak onartu zuenaren arabera, batez beste %1 igoko dituzte zergak datorren urtean.

**Hondakinak, hobariekin**

Zenbakitan sartuta, orain arteko prezio bera izango du, adibidez, lurperatzeak: 77,58 euro.

Hondakinen zerbitzuari dagokionez, berriz, hobaririk ez dituzten etxeetan, 111,28 euro ordainduko dute (urtean). Hori bai, auzo-konposta egiten dutenei, %25eko hobaria aplikatuko zaie, eta, ondorioz, haiek 83,46 euro ordaindu beharko dute; eta autokonposta egiten dutenek, berriz, 55,66 euro –%50eko hobaria–.

**Ura, autoak...**

Bestalde, urari dagokion zergak ere %5eko igoera izango du; hori abiapuntu, 30 m3-kora arteko kontsumoa duten etxebizitzetan 0,671 euro ordaindu beharko dute hiru hilean behin; 30 eta 90 m3-ko arteko kontsumoa dutenek, berriz, 1,036 euro eta 90 m3 baino gehiago kontsumitzen dutenek, 1,33 euro. Eta beste pare bat adibide bat jartzearren, ibilgailuen zergari begiratuta, 9-11 zaldi potentziarainoko ibilgailuek 72,91 euro ordaindu beharko dute (urtean); 12-13 urte bitarteko potentzia dutenek, berriz, 121,46 euro –gehienak azken hauek izaten dira–. Eta frontoiko fitxak 3,10 eurotik 5 eurora igoko dituzte.

Prezio bera izango dute, aldiz, ondasun higiezinen gaineko zergak (IBIak), obrei dagokienak zein udal makinen alokairuak.

# KIROLA

TXIRRINDULARITZA



**Mikel Aristi** | Ziklista

## "Frantziako Kopako lasterketetan jarriko du taldeak indarra"

- Delko Marseille–Provence KTM taldeak fitxatu du bergararra
- Kontinental Profesional mailan lehiatuko dira

Mikel Aristi, eguazteneko entrenamendu saioa hasi aurretik, Usondo parkean, Bergaran. | XABIER URZELAI

XABIER URZELAI | BERGARA

Profesionaletara saltoa egin ostean, atzera ere amateur mailara egokitu behar izan du aurten Mikel Aristik (Bergara, 1993). Baina bere kirol bizitzan, berez, atzerapausoa zenari *txispak* atera dizkio, Euskadi EDP taldearekin zazpi garaipen eskuratuta. Ia azaroan jaso du saria, ostera ere profesional mailara egingo du jauzia, Frantziako Delko Marseille-Provence KTM taldearen deia jaso berri du eta.

**Urduritzen hasita zeunden?**

Egia esan, bai, badakidalako txirrindularitza ze egoeratan dagoen, eta, talde gutxi daudenez, aukerak ere halakoak izaten dira. Beti dago zer hobetu, baina urte ona egin dudala uste dut, eta banuen deiren bat jasotzeko esperantza. Gainera, irailean deirik jaso ez duzula ikusten baduzu lanean jarraitzen duzu, oraindik lasterketak daude gauzak ondo egiten saiatzeko; baina denboraldia amaitzen denean eta deirik ez datorrela ikusterakoan...

**Zorion mezuak jasotzeko egunak izan dira hauek, hortaz.**

Bai, eta asko eskertzen dira, gainera. Ingurukoek eta ziklismozaleek sarritan galdetzen zidaten ea talderen batek interesik erakutsi duen, ea profesionaletara pasako naizen... Presio hori norberak ere igarri egiten du, baina eskertzen dut jendeak interesa erakutsi izana. Ziklismoa kirol ikuskizun bat da, eta jarraitzaileei esker egiten dugu aurrera.

**Amateur mailan beste urtebete egiteko prest zeunden?**

Bai, garbi neukan baietz. Beste urte bat egingo nukeen, baina gaztea izan arren nire kirol bizitzari muga bat jarriko niokeen, jakinda, aukera barik geratzen ari nintzela. Elite mailara pasatzerakoan are eta zailagoa da profesionaletara salto egitea, dagoeneko beteranotzat hartzen zaituztetelako eta benetan garrantzitsuak diren lasterketa askotatik kanpo geratzen zarelako.

**Zelako urtea izan da 2015a?**

Bada, egia esan behar badut, aspaldi ez moduan gozatu dut bizikleta gainean. Hasieran, presio larregitxo jarri nion nire buruari, urte erabakigarria izanda dena ondo egin gura nuelako, eta, askotan, horrek ez ditu emaitza onenak ematen. Izan ere, askotan, dena ondo egiten saiatzea baino hobe izaten da burua lasai mantentzea.

**Bizikleta gainean gozatzea falta zitzaizun, hortaz.**

Baina hasierako hilabeteetako egoerari buelta eman, eta inoiz baino gusturago ibili naiz bizikletan, gozatu egin dut entrenatzen eta lasterketetan lehiatzen. Eta hor hasi ziren emaitzak iristen. Taldean oso giro ona izan dugu, Jorge Azantzak izugarri lagundu digu, gure gainean egon da, eta asko ikasi dugu hari esker. Prestakuntza ere inoiz baino hobea izan dela esango nuke, eta Madariaga ere lasai ibili da, uneoro taldekideak animatzen. Hala, lasterketa asko irabazi ditugunez, jai giroan ibili gara beti, horrek ere asko laguntzen du.

**Aurtengo ze garaipen azpimarratuko zenuke?**

Toledoko Itzulian eskuratutako garaipena. Izan ere, berez, zail ikusten genuen sailkapen orokorra irabaztea, eta Mikel Iturriak eta biok *dobletea* egin genuen, sailkapen orokorra eta azken etapa irabazita. Eskutik helduta iritsi ginen biok helmugara, talde osoak egin zuen lan ona, eta halako garaipenak bereziak izaten dira.

**Dagoeneko barneratu duzu Frantziara lehiatzera joateko erabakia?**

Bai, erabakia barneratuta daukat, baina taldea gertuagotik ezagutzeko irrikan nago. Taldekideak ezagutu, taldea bera zelan antolatuta dagoen ikusi, hizkuntzarekin zelan moldatuko naizen... Izan ere, ingelesez nahiko ondo moldatzen naiz, baina frantsesa ez dut sekula ikasi. Baina bueno, gogo handiz nago, eta zailtasun txiki horiei emango diegu buelta. Abenduan izango dut eurekin lehenengo kontzentrazioa, eta urtarrilean ostera ere elkartuko gara. Oraingoz, neurriak hartu dizkidate, arropendako eta bizikletarako, baina ez dut arduradunekin hartu-eman gehiagorik izan.

**Zelako taldea da Marseillakoa?**

Herri mailako klub batetik sortutako taldea da. Poliki-poliki haziz joan dira; amateur mailan ezagutu nituen nik, duela urte gutxi, eta, pausoak emanda, aurten Kontinental Profesional mailan lehiatuko gara. Delko da babesle nagusia, autoendako tailer marka bat da, Frantzia osoan zabalduta dagoena, eta KTM marka sartu berri da; euren bizikletak izango ditugu.

**Eta zelako lasterketatan lehiatuko zarete?**

Dakidanez, Frantziako Kopa izango da taldearen helburu nagusia, eta bertan izango ditugu lasterketa asko. Eta hortik aurrera, imajinatzen dut batera eta bestera ibiliko garela.

**Baina Marseillara bizi izatera joateko asmorik bai?**

Ez, Bergaran geratuko naiz. Marseilla Frantziako hegoaldean dago, eta han bizi izanda ere lasterketa askotara joateko bidaia luzeak egin beharko nituzke berdin-berdin. Etxean geratuko naiz, jakinda, dezente bidaiatu beharko dudala.

**Ilusioa izaten da zikliston motorra. Ostera ere topera?**

Bai, zalantza barik. Denboraldi honi, akaso, halako berri bat falta zitzaion; sari bat da, datorren urtea ostera ere topera hasteko.

> **"Amateur mailan jarraitu beharko nukeela pentsatzen hasita nengoen"**

> **"Presioarekin hasi nuen urtea; lasaitu nintzenean etorri ziren emaitzak"**

> **"Entrenatzen eta lasterketetan, aspaldi ez moduan gozatu dut"**

ATLETISMOA




Antxintxika lasterketaren aurkezpena. | JULEN IRIONDO

# 300 parte-hartzaile baino gehiago izango dira Antxintxika proban

## Bihar jokatuko da Soraluze eta Bergara arteko 10 kilometroko lasterketa

JOSU BILBAO | BERGARA

Antxintxika lasterketaren 11. aldia bihar arratsaldean jokatuko da, Soraluze eta Bergara artean. 10 kilometro izango dira, ohi bezala, eta ibilbidean, Bergarako herrigunean aldaketa batzuk izango dira aurten. Dagoeneko 300 lagunek baino gehiagok eman dute izena: "Gizonezkoetan, lau edizio irabazi dituen David Gartzia etorriko da. Emakumeei dagokienez, Maite Maiora dator, Espainiako mendiko lasterketetako txapelduna. Gerra emateko oso jende ona egongo da aurrean", dio Patxi Torresek, Antxintxika probako antolakuntzako kideak.

Korrikalarien probaz gain, patinatzaileena eta lasterketa egokitua ere izango dira. Azken hori izango da aurrenekoa, 16:30ean, patinatzaileena 16:45ean eta 17:00etan korrikakoa. Gainera, umeendako lasterketak ere egongo dira: "15:00etan hasiko da eguna Bergaran, ordu horretatik hasita umeendako lasterketak egongo dira eta. 8-14 urte bitarteko umeek, mailaren arabera, askotariko distantziak egingo dituzte nagusien ibilbidea erabilita", azaldu du Ivan Dasilvak, antolakuntzako kideak.

ESANAK

**"Gerra emateko oso jende ona egongo da aurrean"**

PATXI TORRES | ANTOLATZAILEA

**"Umeendako lasterketak ere egongo dira Bergaran"**

IVAN DASILVA | ANTOLATZAILEA

### Izen-ematea eta dortsalak

Izena aurrez eman behar izan da, gaur arratsalderako, *Kirolprobak.com* webgunean. Dortsalak bihar goizean jaso beharko dira, Bergarako plazan, eta 14:30etik aurrera irteeran izango dira. 15:30ean eta 16:00etan autobusak aterako dira Bergaratik Soraluzera parte-hartzaileak irteerara eramateko.

Kuadrilla onenentzat ere egongo dira sariak, eta zozketa. Gainera, inskripzio bakoitzeko euro bat gaixotasun arraroak dituztenei laguntzeko izango da.

MENDIKO LASTERKETAK

# Jon Riverorendako Lasterketa Bertikalen Kopa, promes mailan

## Euskal Herriko Kopako sailkapen orokorrean hirugarren postua lortu du bergararrak

J.B. | BERGARA

Hankaluzetrail taldeko Jon Rivero bergararrak garaipena lortu du Euskal Herriko Lasterketa Bertikaleko Kopan, promes mailan. Gainera, sailkapen orokorrean hirugarren postua eskuratu du korrikalari gazteak.

Denboraldiko azkeneko proba Araia-Aratzeko 2 Kilometro Bertikalak izan da. Lasterketa pasa den domekan jokatu zen, eta Riverok, bere mailan irabazteaz gain, bosgarren postua eskuratu zuen. Postu horrekin, promes mailako sailkapen nagusiko lehenengo postua lortu du, Mikel Rubio eta Jokin Zabala korrikalarien aurretik.

Sailkapen orokorrean, garaipena Iñigo Larizendako izan da Julen Martinez de Estibarizen aurretik, eta Jon Riverok hirugarren postu garrantzitsua eskuratu du. "Ez nuen espero sailkapen orokorreko hirugarren postua. Ezustekoa izan da niretzat", onartu du Riverok.

### Aurreneko urtea

Txirrindularitza laga ostean, mendiko lasterketetan lehiatzen hasi den aurreneko urtean balentria handia lortu du: "2014ko abenduan egin nuen nire aurreneko lasterketa, eta ordutik hona oso gustura ibili naiz. Gainera, oso fuerte bukatu dut denboraldia. Hortaz, oso pozik nago", dio bergararrak.

Datorren denboraldiari begira lasterketa bertikaletan jarraitzea da haren asmoa: "Seriotasun handiagoarekin hartuko dut, zirkuitua ondo prestatzeko. Euskal Kopaz gain, Espainiako Kopako lasterketaren bat ere egin nahiko nuke".

### Marije Zubizarreta

Abixaran taldeko oñatiarra txapeldunordea izan da beteranoen kategorian, Araia-Aratz lasterketan hirugarren postua eskuratuta. Lehenengo postua, beteranoetan, Inma Aranburuk lortu du.



Jon Rivero, podiumaren gorenean. | HANKALUZETRAIL

ARETO FUTBOLA

# Mondratek elastiko berria aurkeztu du

Arrasateko Per Tutti pizzeriak Mondrate areto futbol taldea babestuko du aurrerantzean. Futbol taldea babesle bila ari zen, orain arteko gastuak jokalariek euren poltsikotik ordaintzen zituztelako. Senior eta junior mailetako taldeen arropak ordaindu ditu pizzeriak, eta espero dute akordioa urte askotarako izatea.




ASIER ELGEZUA

JOKO ZUZENAK

# Arbasoek nola jokatzen zuten ikusteko joko zuzenak egingo dituzte

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Datorren eguenean, azaroaren 5ean, *Joko zuzenak: bote luzea, laxoa eta pasaka* saioa izango da Zaldibar antzokian. Arbasoek orain dela 400 urte nola jokatzen zuten eta nola entretenitzen ziren ikusteko, eta ikasteko, Joxe Mari Mitxelenak azalpenak emango ditu (eskuzko pasaka, Oiartzun).

Zaldibar antzokian 09:00etatik 09:45era bitartean saio teorikoa emango dute, lehenbizi. Bertan, Huheziko 35 ikasle eta Arizmendiko Almenen ikastolako bosgarren mailako hiru gelak –60 ume inguru– izango dira. Euskal Herrian bizirik dauden lau jokoren –bote luzea, laxoa, pasaka eta errebotea– bideo bana ikusi, eta hitzez esplikazio txiki batzuk emango dituzte. Ondoren, 09:45etik 10:30era, unibertsitateko ikasleekin sakontze teorikoa egingo dute, irudien eta eskemaren laguntzarekin.

### Saio praktikoa kontzejupean

09:45etik 12:00etara, frontoian, 10 urteko neska-mutilak *barruka* ibiliko dira, taldeka, eta galtzen duena kanporatua izango da. 10:30etik 12:00etara, kontzejupean, helduekin, bi pilotariren erakustaldi laburra izango da, eta haiek ere *barruka* jokatuko dute.

FUTBOLA



Euskal Selekzioaren lehengo eta oraingo kideak. | MIREIA BIKUÑA

# Euskal Selekzioaren 100. urteurrena ospatzen

Hainbat jokalari elkartu ziren Astoreren egoitzan

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Euskal Selekzioak 100 urte bete ditu, eta, hori ospatzeko, ekitaldi berezia egin zuten martitzenean Astoreren egoitzan. Azken 22 urteetan Euskal Selekzioa jantzi duen arropa markaren etxean omenaldia jaso zuten elastiko berdea jantzi izan duten eta egun jantzen duten jokalariek. Inazio Kortabarriak, Aitor Lopez Rekartek, Agustin Arantzabalek, Mikel Lasak, Pablo Gomezek, Igor Gabilondok, Mikel Gonzalezek, Dani Gartziak, Aintzane Encinasek eta Vanesa Guimbertek, hain justu ere. Eurekin batera egon zen gizonezkoen Euskal Selekzioaren hautatzaile Mikel Etxarri. Euskadiko Futbol Federazioaren ordezkaria Luis Maria Elustondo presidentea izan zen. Astoreren ordezkariak ere egon ziren.

Guztiek "aldarrikatu" zuten Euskal Selekzioaren ofizialtasuna. "Pausoak ematen gabiltza, baina ezin gara urtean partidu bakarra jokatzera mugatu. Gehiago behar dugu, eta hori lortzeko lan egingo dugu", esan zuen Elustondo presidenteak.

Ekitaldi berean, zaleendako arropa bilduma berria aurkeztu zuen Astorek.

## ESANAK

**"Partiduak jai kutsua izaten zuen, baina aldarrikapenerako eguna ere bazen"**

AITOR LOPEZ REKARTE | JOKALARI OHIA

**"Ederra izan zen Tallingo esperientzia Euskal Selekzioaren kamisetarekin "**

AINTZANE ENCINAS | JOKALARIA

**"Hasierako urteak oso gogorrak izan ziren, baina orduan hasitako bideak jarraipena izan du"**

INAZIO KORTABARRIA | JOKALARI OHIA

**"Venezuelako lehen alditik hunkigarria izan da beti; asko betetzen nau Euskal Selekzioak"**

MIKEL GONZALEZ | JOKALARIA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**
UDA-Beasain
Domeka. 16:30. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Aloña Mendi-Elgoibar
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Bergara-Usurbil
Zapatua. 15:45. Agorrosin.
Antzuola-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Estala.
Urkomendi-Mondra
Zapatua. 15:30. Unbe.

**LEHEN ERREGIONALA**
Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 18:00. Azkoagain.
Eibartarrak-Arizmendi
Zapatua. 17:30. Unbe.
Mondra: atsedena

**OHOREZKO GAZTEAK**
Aretxabaleta-Amaikak Bat
Zapatua. 16:00. Ibarra.
Mondra-Zarautz
Domeka. 12:00. Mojategi.
Elgoibar-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Mintxeta.
Zumaiako-Bergara
Zapatua. 15:30. Aita Mari.

**GAZTEAK**
Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Ibarra.
Urki B-Mondra
Zapatua. 17:30. Unbe.
Aloña Mendi-Antzuola
Zapatua. 15:45. Azkoagain.
Bergara-Urki
Zapatua. 17:30. Ipintza.

**EMAKUMEZKOAK ERREGIO.**
Mutriku-Mondra
Zapatua. 15:30. San Miguel.
Eibar-Arizmendi
Domeka.18:00. Unbe.

**EMAKUMEZKO GAZTEAK**
Touring-Bergara
Domeka. 17:30. Fanderia.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Aretxabaleta-Eraso Aiara
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Eskoriatza-Mallabia
Egubakoitza. 18:00. Manuel M..

**GIPUZKOAKO LIGA**
Euskalduna-Mondrate
Domeka. 11:30. Allurralde.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
MU-Ardoi.
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**BIGARREN MAILA**
Natra Oñati-Tecnun
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**GIPUZKOAKO SENIORRAK**
Astigarraga-MU
Zapatua. 18:15. Astigarraga.
Sto Tomas Lizeoa-Soraluce
Zapatua. 18:00. Benta Berri.

**SENIOR 3. MAILA**
Aloña Mendi-Mutriku
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Eskoriatza-Antigua Berri
Gaur. 20:15. Manuel Muñoz pol.

**GAZTEAK, ERRENDIMENDU**
Atlco. SS-Soraluce BKE
Zapatua. 12:30. Aiete.
Aloña Mendi- Atlco. SS
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAP. GIZON.**
Hondarribi-Ford Mugarri
Domeka. 12:00. Hondartza.
Izarraitz Aloña-Ereintza
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.**
Bera Bera-Aloña Mendi
Zapatua. 18:30. Bidebieta.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Bergara-Ordizia
Zapatua. 11:45. Labegaraieta.

**GAZTE MAILA GIZONEZKOAK**
Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
Arrasate-Beristain
Zapatua. 16:00. Iturripe.

**GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK**
Aloña Mendi-Ordizia
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**KADETEAK, GIZONEZKOAK**
Bergara-Urola
Domeka. 12:00. Zubikoa.
Txikixa-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30.Lubaki.

**KADETEAK, EMAKUMEAK**
Aloña B-Ereintza
Zapatua. 17:30 .Zubikoa
Ereintza-Aloña A
Domeka. 11:00. Beraungo.

**ATLETISMOA**

**SORALUZE-BERGARA**
Zapatua. 17:00. Soraluze.

FUTBOLA

# Elene Errasti, Euskadiko Selekzioarekin entrenatzen

**M.B.** | ARETXABALETA

Elene Errasti aretxabaletarra Euskadiko Selekzioarekin entrenatu da. Gasteizen egindako saioan 21 jokalarik parte hartu zuten. "Urduri jaso nuen deia, baina gustura egon naiz entrenatzen. Oraingoz, bakarra egin dut. Oraindik ez dakit bigarren entrenamendu saioan egongo naizen edo ez", esan du Errastik. Beste bi entrenamendu egingo ditu selekzioak, abenduan jokatuko den 16 urtez azpikoen Espainiako Txapelketan parte hartu aurretik. Txapelketan egoteko, entrenamendu saio guztiak egin beharko ditu Errastik.

Elene Errastik 15 urte ditu eta kadete mailan jokatzen du, Arizmendiren elastikoarekin, aurrelari postuan.

**Realarekin ere bai**

Orain arte, Arizmendirekin eta Realarekin egindako entrenamenduak bateratu izan ditu. "Realarekin, teknika hobetzeko bost saio egingo ditut. Zubietan elkartzen gara hainbat jokalari. Aukera ezin hobea da hobetzen joateko", esan du. Aurrerantzean, Euskadiko Selekzioko entrenamenduak ere izango ditu.

KARATEA

# Domina ugari Aloñako karatekendako Gipuzkoakoan

**Aloñako karatekek oso emaitza onak lortu zituzten Azkoitian jokatutako Gipuzkoako kumite txapelketan. Kevin Martin txapelduna izan zen junior mailan; Naia Rodriguez bigarrena maila berean; Mikel Igartua bigarrena 21 urtez azpikoetan; Oier Alberdi hirugarrena 21 urtez azpikoetan; Imanol Astudillo eta Mikel Untzurruntzaga hirugarrenak kadete mailan; eta Asier Natividad hirugarrena junior mailan.**



ALOÑAKO KARATE SAILA

FUTBOLA

## Denboraldiko lehen garaipena behar du UDAk, Beasainen kontra, sailkapenean gora egiteko

Hamaika jardunaldiren ostean, lehen garaipena behar-beharrezkoa du Aretxabaletak sailkapenean gora egiteko, eta beste aukera bat izango du, Beasainen kontra, Ibarran: domekan, 16:30ean. Galdu baino partidu gehiago berdindu ditu UDAk, baina puntuak hirunaka batu behar ditu. Gorka Valleren taldeak Beasain izango du aurrean: 17 puntu dituzte beasaindarrek.

FUTBOLA

## Aloñak Azkoagainen jokatuko du eta Antzuolaren eta Aretxabaletaren arteko derbia izango da Estalan

Ohorezko Erregionalean diharduen Aloña Mendik Elgoibarren bisita izango du Azkoagainen (domeka, 16:30). Bestalde, Erregional Preferentean derbia egongo da, Estalan, Antzuolaren eta Aretxabaletaren artean. Bergarak Usurbilen bisita jasoko du Agorrosinen eta Mondrak Urkomendiaren kontra jokatuko du.

ESKUBALOIA

## Lehen lekuan jarraitu ahal izateko partidua izango du Ford Mugarrik Hondarribiaren kontra domekan

Izarraitz Aloñaren kontra derbia irabazi ostean, lehenengo lekuan dago Ford Mugarri, eta posizio horri eusteko moduko lehia jokatuko du domekan: Hondarribiak bi puntu bestetik ez du. Bestalde, Izarraitz Aloña Mendik Zubikoan jokatuko du azken sailkatuaren kontra: Ereintzak ez du partidurik irabazi.

SASKIBALOIA

## Santanderren galdu ostean, Iturripen irabazi gura du berriro ere Mondragon Unibertsitateak

MUk Iturripen jokatuko du EBA mailako hirugarren jardunaldia Megacalzado Ardoiren kontra (zapatua, 18:00). Aurreko aste bukaeran La Gallofaren kontra Santanderren galdu ostean, etxeko lehia irabazi gura dute arrasatearrek. Aurkaria, baina, gogorra da: jokatutako bi partiduak irabazi ditu Ardoik.


5. ALDIA
Kantari
BADATOR!
Goiena Komunikazio Taldeak Debagoienean KANTARI karaoke-ikuskizuna bosgarren aldiz antolatu du.
Neguan egingo dugu KANTARI. Beraz, Debagoienean bizi bazara, **2004. eta 2008. urteen artean jaio bazinen (biak barne)** eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazaude, animatu eta eman izena.
Gutxienez hiru laguneko eta gehienez bost laguneko taldeak osatu beharko dituzue. Abestiak zozketa bidez banatuko ditugu.
K
Izena emateko azkeneko eguna: azaroaren 9a
Eskoletan banatuko den txartela azaroaren 9a baino lehenago eraman behar da leku hauetako batera:
**zure eskolako idazkaritzara edo Goienaren Arrasateko egoitzara (Otalora Lizentziaduna 31).**
Informazio gehiago: 943 25 05 05
http://blogak.goiena.eus/kantari/
goiena

# KULTURA

# Musikariak, Euskal Herriaren enbaxadore

- Suitzan eta Italian izan dira Arrasateko Anger taldekoak
- Alemaniara, Suitzara eta Mexikora, hemengo hiru talde



Anger eta Oliba Gorriak taldeetako kideak Luganoko Il Molinon (Suitza). | ANGER

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Atzerriko musika talde asko etortzen dira Debagoienera jotzera; Estatuan egiten ari diren biraren zati bat Euskal Herrira luzatuta batzuk, eta bertako musika taldeek gonbidatuta beste asko.

Talde trukaketa horiek aukera ematen dute euskal talde askoren doinuak atzerrian zuzenean entzuteko. Arrasateko Anger taldeak, esaterako, kontzertu bi egin zituen aurreko asteburuan: Italian egubakoitzean eta Suitzan zapatuan. Euskal Herriarekiko elkartasuna adierazteko jaialdietan izan dira, Markinako Oliba Gorriak taldearekin batera. Bidaia ahaztezina; eta azkarra besteko emankorra izan dela esan dute arrasatearrek.

### Emon bergararrak

Italian eta Londresen jotakoak dira, eta aurten Katalunian zortzi kontzertu egin dituzte. "Inoiz baino kilometro gehiago egingo ditugu furgonetan. Oso gustura gaude aukera hau izateaz; nerbio puntuak ere badauzkagu, baina, beti bezala, dena emango dugu, Suitzan markatxoa utzi nahi dugu eta", dio Aritz Alustizak.

Suitzako kontzertu antolatzaile batengana iritsi zen Bergarakoen *Sua* diskoa; proposamena gustatu, eta hiru kontzertuko bira antolatu zieten. Azaroaren 4an iluntzean abiatuko dira zortzi musikari eta soinu teknikaria. Bernan egingo dute lehenengo emanaldia, hurrengo egunean, Huttwillen izango dira gero eta Langenthalen egingo dute hirugarrena. "Hiru aretotan emango ditugu kontzertuak. Azkeneko egunean ska jaialdi batean joko dugu, beste bi talderekin batera. Errepertorioari dagokionez, ez dugu ezer aldatuko, aurtengo biran eskaintzen gabiltzan zuzenekoa eramango dugu".

### Arrasateko Los Galerna

Hirugarrenez joango dira Arrasatekoak Mexikora, zapatuan. Bi aste egingo dituzte han, *En la calzada de los muertos* biran, hamar kontzertu egiteko asmoarekin. "Hildakoen Egunaren harira antolatutako jaialdi handietan dira horietako bi; zirkua eta bestelako arte diziplinak batzen dituzte. Gainontzekoak areto txikiagoetan dira. Lehenengora ez gara kide guztiak helduko, eta hango The Cavernarios taldeko lagunek beteko digute hutsunea", dio gitarra-jotzaileak.

Oraingoan ere, Mexiko Hirian izango dute Los Galernakoek *kanpamentu nagusia*. Zazpi lagun doaz, Lost Acapulco eta Juana La Rodillera taldeek gonbidatuta. Arrasaten ere egon eta jotakoak dira biak ala biak.

### Hawkings Thuns, onenekin

Besteak beste, Frantzian eta Portugalen jotakoa da Arrasateko oi! taldea. "Hamar emanalditatik bakarra egin dugu Euskal Herrian. Zapatuan, Munich ondoan egiten duten jaialdi batean izango gara, izen handia duten hainbat talderekin. Atera berri dugun disko laburra aurkeztuko dugu", dio Aritz Unamunok.

### ESANAK

**"Gure markatxoa utzi nahi dugunez, dena ematera goaz"**
ARITZ ALUSTIZA | EMON

**"Ikaragarria da Hildakoen Egunean Mexikon egotea"**
JAGO DOMINGO | LOS GALERNA

**"Ingalaterrako izen handiko taldeekin batera joko dugu"**
ARITZ UNAMUNO | HAWKINGS THUNS

## "Marabi-Josu"

Intentsua bezain polita asteburuan Oliba Gorriak markinarrekin batera Italian eta Suitzan bizi izan duguna. Rockaren klixeetatik harago, gurean musika, laguntasuna eta, batez ere, umorea izan dira protagonista.

Ostiralean, Bilbo-Bartzelona-Milan hegazkin konbinazioa tarteko, arratsaldean Bergamoko Paci Paciana etxe sozialera iritsi ginen. Soinu-proba rastafaria, euskal afari popularra, kontzertu bizia, reggae DJa eta ohera. Goizean goiz jaiki, gosari ingelesa, eta furgoneta eta auto banatan Suitzarantz abiatu ginen 14 pertsonako euskal espedizioan, Il Molino izeneko etxe soziala helmuga. Handia tamainaz, eta baita jardueraz ere. Giro alaian afaldu eta beste hiru talderen ostean *angertarrak* agertokira. Oso gustura aritu ginen, baina azken abestiko azken konpasetan kontzertua bukatu behar izan genuen liskarren bat tarteko. Sortutako tentsioaren ostean, ez zen lan erraza Oliba Gorriak-ekoei zegokiena, baina beti bezain zuzen eta grinatsu agertokia irentsi zuten. Gauak ez zuen gehiagorako eman, trago pare bat eta euskal espedizioa lotara. Goizean dutxarekin esnatu, eta Luganoko lakuaren bueltan ibilaldi *igandezaleaz* disfrutatu genuen, eta jarraian Milanera, aireportura. Batzuetan, itzulera bidaiak luzeegi egiten dira. Ez zen kasua izan, nekearekin umoreak modu esponentzialean egin baitzuen gora –kalitatean behera, noski–.

Txango ahaztezina izan da. Lerro hauekin transmititzea zaila dena, baina bizi izan dugunok irribarrez gogoratuko duguna. Oliba Gorriak-eko lagunek taldeko Josu Egia baxu-jotzaileari adarra jotzerakoan esaten dioten moduan, "Marabi-Josu".

KOMUNITATEA GOIENA | ANGER | ARRASATE

# Andoni Urzelairen narrazio liburu bihurria kalean da

Atzo aurkeztu zuen Susa argitaletxearekin atera duen 'Karanbola toxikoak'

A. A. | ARETXABALETA

Euskarazko hirugarren liburua du Aretxabaletakoak 17 narraziorekin osatutako honako bilduma hau. Elkarri lotuta dauden istorio independenteak dira. "Horietako bakoitzak istorio konkretu bat kontatzen du, pertsonaia jakin batzuen gorabeherak, bada. Baina istorio baten eta hurrengoaren arteko loturak daude; eta, era berean, guztiek halako giro berdintsua ere badute. Hortik izenburua: narrazio batek bestera eramaten zaituelako, txiripaz bezala", esan du idazleak.

Betidanik obsesionatu izan duten gaien gainean jardun du aretxabaletarrak –bakardadeaz, bizitzaz, heriotzaz...–, gaur egungo gertakariei eta tokiei ere keinua eginda. " Zinismoari, injustiziari eta axolagabekeriari, besteak beste. Irakurlea pertsonaiekin identifikatu egingo dela uste dut. Liburuak ez du aparteko pretentsio literariorik, ez da liburu zaila. Modu arin eta jostarian idatzita dago. Irribarre batekin irakurtzeko".



Urzelai, liburu berriarekin. | SUSA

**Labean sartzeko, bi gehiago**

Ia 24 orduak horretara jarrita idazten duela dio, liburu bakoitzari hiru hilabete baino gehiago eman barik. Argitaletxe bila dantzan dabiltzan gazteleraz idatzitako beste bi ere baditu. Horiek eta gehiago adierazi ditu gaur argitaratu den *Puntua* aldizkarian.

# Abesti melodikoak eta progresiboak Klak!son taldearen lan berrian

Antzuolako Aitz-Garbi tabernan aurkeztuko dute azaroaren 6an (18:00)

A. ARANBURUZABALA | ANTZUOLA

Labetik ateratzear dago Klak!son taldearen hirugarren lana: *Denboraleak*. Andoaingo estudio batean grabatu dute eta euskaraz abestutako bost kantuz osatuta dago. "Aurreko lana –*Zai At Devo City* (2011)– gure kontura grabatu genuen eta lan oso neketsua eta luzea izan zen. Eztabaida nahiko izan genituen gure artean eta asko desgastatu ginen; hori horrela, beste modu batean egin nahi genuen oraingoan, teknikari profesional baten eskuetan jarrita. Taldekide batek Alvaro Remacharen erreferentzia onak eman zizkigun, eta hura aukeratu genuen", esan du Jon Gurutz Biterik, teklatu -jotzaileak.

Abestiak Klak!sonen estilora eginda daudela gaineratu du Biterik: "Orokorrean, abesti melodikoak eta progresiboak dira; aurrekoekin alderatze aldera, esan, honako honetan ez dugula pista rock-and-rollerorik sartu. Horren ordez, kantu bizi eta dantzagarri bat daukagu: *Hurrengo dama*. Gainontzekoak geldixeagoak dira, baina oso intentsuak eta sakonak".


Antzuolako Klak!son taldeko gaur egungo kideak. | KLAKSON

**FITXA**



KLAK!SON
**DENBORALEAK**
**Estiloa:** Pop-rocka.
**Argitaletxea:** Autoekoiztua (Brincola Records).

**Hamar urteko ibilbidea**

Diskoa jendaurrean aurkeztea dute orain helburu: "Lehengoa herrian egingo dugu; Durangoko Azokako Ahotsenean izango gara abenduaren 6an eta Urretxuko gaztelekuan, berriz, abenduaren 25ean".

Hamar urteko ibilbidean, kideen sartu-irten ugari izan dituzte. "Gaur egun honako hauek gaude: Mikel Bargiela (ahotsa) Asier Alkorta (gitarra), Aritz Ormazabal (baxua), Mikel Arriaran (bateria), eta Jon Gurutz Biteri (teklatuak).

# 'Mr. Kebab' bakarrizketaren bi saio eskainiko dituzte

Adin guztiendako ikuskizun dinamikoa sortu du Pez En Raya konpainiak

IDOIA DAVILA | DEBAGOIENA

*Mr. Kebab* eskainiko dute gaur, egubakoitza, Eskoriatzan, Zaldibarren, 22:30ean; eta bihar, Elgetako Espaloian, ordu berean.

**Umore aldrebesa**

Umorea, magia eta surrealismoa uztartuz, Joan Estrader aktoreak algarak eragiten ditu ikusleen artean. Antzezlana aurrera doan neurrian sortzen den zentzugabekeriari esker lortzen du hori.

*Mr. Kebab* bakarrizketak ez du adimen handirik eskatzen entretenigarria izan dadin, adin guztiendako ikuskizun dinamiko eta bizkorra da. Gainera, interakzio handia dago ikusleekin, denek parte hartzen dute eta denak izan daitezke egiten diren txantxen protagonista edozein momentutan.

Turkiatik etorri eta magiari esker biziko dela azaltzen du Joan Estraderren pertsonaiak. Trikimailuen eta hainbat pasadizoren bitartez umore aldrebesa sortzea lortzen du.

**Mundu osotik**

*Mr. Kebab* Pez En Raya konpainiaren ikuskizun berria da. Estraderrek eta Cristina Medinak sortu zuten 1997an konpainia hori, eta, geroztik, berezko ekoizpeneko bederatzi ikuskizun eskaini dituzte munduko hainbat agertokitan. AEBetan, Txinan, Erresuma Batuan, Suitzan... egin diren umore eta antzerki jaialdi ugaritan parte hartu dute. Jaialdi horietan, gainera, ikuskizun onenaren hainbat sari jaso dituzte.

**Sarrerak salgai**

Gaur gaueko saiorako sarrerak Eskoriatzako kiroldegian eta *www.bibe.me* web atarian eros daitezke 4 euroren truke. Biharko Elgetako saiorako sarrerak, aldiz, Espaloian bertan edo *www.entradium.com* webgunean daude salgai.

EGUNEKOA ETA GERTUKOA ZEURE ETXEAN!



GOIENA TELEBISTA | 'BERRIAK' ETA 'DEBAGOIENA ZUZENEAN' SAIOAK
GOIATZ ARANAK ETA TXOMIN MADINAK AURKEZTUTA

25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# 130 hitzordu izango dira 50. Durangoko Azokako Ahotsenea gunean

Boluntariotza programa bat jarriko dute aurten lehen aldiz, azoka barrutik ezagutzeko aukera emanda

**MAITE TXINTXURRETA** | DEBAGOIENA

Abenduaren 4tik 8ra bitartean izango den 50. Durangoko Azokak, beste behin ere, Ahotsenea izeneko espazioa ahalbidetuko du, bertan solasaldiak zein kontzertuak burutzeko. 70 kontzertu eta 50 solasaldi izango dira aurten bertan.

Debagoiendarrak ere izango dira tartean. Esate baterako, lehen egunean, abenduaren 4an, Eneko Barberenak *Periko Solabarria gazteekin hizketan* liburuari buruzko hitzaldia eskainiko du. Igandean, berriz, abenduak 6, Andoni Urzelai idazle aretxabaletarra izango da, *Karanbola toxikoak* izeneko bere azken liburua aurkezten. Egun berean, Gerardo Markuleta oñatiarra *Denbora bere lekura* lanari buruz mintzatuko da.

Musika kontzertuei dagokienez, Durangon izango dira, alde batetik, Arkada Social arrasatearrak; zapatu arratsaldean igoko dira Ahotseneako taula gainera. Bestalde, Klak!son antzuolarrek ere joko dute Durangon, domekan, hain zuzen. *Denboraleak* diskoa aurkeztuko dute bertan.


Azoka jendez lepo iazko edizioan. | GOIENA

### Kabi@ gunea

Durangoko Azokako Kabi@ gunea, berriz, teknologia berriei eskainitako espazioa da. Azokako beste guneetarako proposamenak egiteko epea urriaren 16an itxi bazen ere, azken gune horri dagozkienak urriaren 31ra arte jasoko dituzte; bihar arte, alegia. Interesa duten sortzaileak *gerediaga@durangokoazoka.eus* helbide elektronikora mezu bat bidaliz jar daitezke harremanetan Durangoko Azokako arduradunekin. Nahiago izanez gero, *www.durangokoazoka.eus* webgunean eskuragarri dagoen galdetegia beteta ere helaraz daitezke proposamenak.

### Boluntariotza

Aurten, lehen aldiz, boluntario moduan lan egiteko aukera eskainiko diote hala nahi duen edonori. Hainbat zereginetan aritzeko aukera izango da: lan administratiboa, teknikoa, komunikazio-arlokoa... Azoka egunetan txanda bakoitza hiruzpalau ordukoa izango da.

Bihar, urriak 31, izango da zeregin horietan aritzeko izena emateko azken eguna. *www.durangokoazoka.eus* webgunearen bitartez egin beharko da, bertan ageri den galdetegia beteta. Baldintzak dira adinez nagusia izatea eta euskaraz komunikatzeko gai izatea. Eroskirekin lankidetzan jarri du programa berri hori abian Durangoko Azokak.

# Dena prest Oñatin bihar jokatuko duten film laburren VI. rallyrako

**M.T.** | OÑATI

Eguaztenean, urriak 28, itxi zuten aurtengo Oñatiko Laburmetrai Rallyan izena emateko epea. Antolatzaileek parte hartzaileen muga 20 taldetan jarri zuten, eta 19k zeukaten izena emanda eguaztenean. Hala ere, antolaketa taldeko Aitor Perosterenak esan duenez, agian oraindik ere animatuko da norbait azken unean hutsune hori betetzera

Pozik daude antolakuntza taldean; izan ere, herrian arrakasta duen egitasmoa da film laburren rallya. Hala, aurten iaz baino bi talde gehiago apuntatu dira. Gainera, Perosterenak azaldu duenez, "orain arteko edizioetan aritutako ia talde guztiak aurten ere animatu dira".

15-16 urteren bueltan dabiltzanetatik hasi eta 45 urteraino, adin askotariko jendeak hartuko du parte aurten ere. Perosterenak azaldu duenez, talde guztiak Oñatikoak dira.

### Kaleak, zinema estudio

08:00etako gosari-aurkezpenarekin hasita, taldeek 11 ordutan grabatu eta editatu beharko dituzte lanak, emandako gaia, generoa eta objektua landuta. 21:30ean, lanen proiekzioa eta sari banaketa izango dira Santa Ana aretoan.

### Sarrera banaketa

Antolakuntzatik azaldu dutenez, aurtengo edizioko berrikuntza modura, Santa Anara publiko moduan ekitaldia ikustera joateko sarrerak banatuko dituzte, ilara luzeak ekiditeko asmoz. Banaketa bihar bertan egingo dute, 16:00etatik 18:00etara bitartean, gaztelekuan.

Pertsonako bi sarrera banatuko dituzte, gehienez, eta doan izango dira. Arratsaldean gaztelekuan banatzen ez diren sarrerak Santa Ana antzokiko leihatilan egongo dira, eta ekitaldiko ateak zabaltzen dituztenean banatuko dituzte.

# Borrokan, Anari eta Moonshine Wagon azaroko Kooltur ekintzan

**M.T.** | ARRASATE

Hilabete berriarekin batera, Kooltur ostegunen egitarau berria estreinatuko dute, beti bezala. Eguenero, 22:00etan hasita, kultura ekimen bat izango da Arrasateko gaztetxean, bost euroren truke.

Berako Borrokan boskoteak irekiko du azaroko kontzertuen zikloa. 90eko hamarkadaren erdialdean sortu zen taldea, eta post-rocka eta musika esperimentala jorratzen ditu.

Hilaren 19an, berriz, Anari etorriko da Arrasateko gaztetxera. Azkoitiko musikariak berriki kaleratu du *Zure aurrekari penalak* izeneko disko berria, bosgarrena.

Hileko azken eguenean, berriz, Moonshine Wagon gasteiztarrak izango dira taula gainean. Duela bi urte sortutako taldeak *Folk You!* izeneko lana aurkezten dihardu.

### 12koa finkatzeke

Azaroaren 12rako Mike Noga australiar bakarlariak etorri behar bazuen ere, azkenean, Europako bira bertan behera utzi behar izan du, eta haien ordezko bila dabiltza orain Kooltur-etik.




Zorionak denoi!

**Hauek dira Goiena Klubeko urriko zozketetako irabazleak**

**INPRIMAGAILUA**
Arrate Agirre Agirreurreta (Arrasate)

**INPRIMAGAILUA**
Arrate Agirre Agirreurreta (Arrasate)

**OTARRA**
Izaro Agirre Bengoa (Arrasate)

**KORRONTZI DVDA**
Loreto Anduaga (Aretxabaleta)

**ARRIKRUTZERAKO SARRERAK**
Aitziber Astola Elorza (Arrasate)
Mila Beldarrain Etxabe (Bergara)
Inazio Azpeitia Lazpiur (Bergara)

**"FAEMINO ETA CANSADO" IKUSKIZUNA**
Angel Elkoro Aranbarri (Bergara)

**ARRASATE- OÑATI LASTERKETAREN KAMISETAK**
Edurne Elkoroiribe Izurrategi (Oñati)
Beñardo Balerdi Gomez (Arrasate)
Ane Garitano Gomez (Bergara)
Beñat Elkoroiribe Agirre (Aretxabaleta)

**"AMAMA" FILMA**
Felix Arrese Alberdi (Aretxabaleta)
Eñaut Alvarez Berriotxoa (Bergara)

**"KREDITUA" ANTZEZLANA**
Irati Pagoaga Zaloña (Aretxabaleta)
Edurne Ceciaga Mondragon (Arrasate)
Espe Lizarralde Gallastegi (Arrasate)

**AMAIA ZUBIRIAREN KONTZERTUA**
Margarita Oregi Alberdi (Bergara)
Arantxa Madina Aranburu (Arrasate)

**MAIALEN ERROTABEHERRE REN KONTZERTUA**
Karmele Ilarduia Garitano (Aretxabaleta)

**"MEJOR VIUDA QUE MAL CASADA" IKUSKIZUNA**
Ione Moñux Arantzeta (Bergara)

**"DEBLA" ANTZERKIA**
Maider Perez Martinez (Eskoriatza)
Jon Urrutia Arregi (Bergara)
Amaia Aranburu Zubia (Oñati)

**JORGE ASTYARROREN IKUSKIZUNA**
Albina Arregi (Bergara)

**GOVERNORS-EN KONTZERTUA**
Eneritz Gonzalez Uribe (Arrasate)
Angel Arizabaleta Padilla (Bergara)

**SANTA ANA JATETXEAN OTORDUA**
Estitxu Uribeetxebarria Madinabeitia (Aretxabaleta)

**LARRINETXE JATETXEAN OTORDUA**
Ane Arexolaleiba Biteri (Arrasate)

**SIRIMIRI JATETXEAN OTORDUA**
M. Jesus Artola Garaialde (Arrasate)

**ETXE-AUNDI JATETXEAN OTORDUA**
Jon Zangitu Juarizti (Bergara)

**SARIAK JASOTZEKO:**
**Arrikrutzeko sarrerak**. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) **Harreman dendako otarrak** Otarra jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Beste sariak**. Zatoz, GOIENAren egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otalora Lizentziaduna, Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 – 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 – 14:00.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

**Maddi Mujika** | Eskalatzailea eta patinatzailea

# "Txikia nintzenean, beti kirol beretara bideratzen gintuztela iruditzen zitzaidan"

**IDOIA DAVILA** | BERGARA

Zaletasun ugari uztartzen dituen gaztea da Maddi Mujika (Bergara, 1994). Gasteizen Ingurumen Zientziak ikasteaz gain, eskalada eta patinajea praktikatzen ditu tarte bat izaten duenean.

**Zergatik hasi zinen eskaladan? Nolakoa izan zen lehenengo esperientzia?**

Beti kirol beretara bideratzen gaituzte, eta, orduan, nik ikusten nuen egiten genuena ez zitzaidala gustatzen eta hain baldarra ezin nintzela izan. Azkenean, bide berriak ezagutzen hasi nintzen, zer egin nezakeen probatzen... eta bidean agertu zitzaidan. Eskalatzen zuten lagun batzuk nituen, eta esan nuen: "Ba, probatzera noa". Inbidia puntu bat beti neukan, eta ni ere hasi nintzen poliki-poliki kirol horretan.

**Zein sentsazio bizi izaten dituzu eskalatzerakoan?**

Askotan, beldurra izaten da sentsazio nagusia, baina eskaladaren puntuetako bat beldur horri aurre egitea da. Azkenean, ez da sentsazio bakarra izaten, sentsazio ugari izaten dira aldi berean, eta hori da eskaladak ematen duena, hori da eskaladak eskaintzen duen gauzarik politena. Horrez gain, edozein pertsonak ikusi ezin dituen lekuak ikusteko aukera ematen du, beste modu batera ikusi ezin daitezkeenak.

**Zein da egin duzun igoerarik esanguratsuena?**

Esanguratsuak denak dira, nolabait; izan ere, zailena ez da beti politena izaten. Zer gustatzen zaion bilatu behar du norberak, eta zailtasunak gainditzea aurrerapauso bat da, hori egia da. Baina, askotan, esanguratsuagoak dira beste bide batzuk, politak direlako edo leku jakin batera igotzea lortu delako.

**Zein pareta igotzea gustatuko litzaizuke?**

Riglosera joatea gustatuko litzaidake (Huesca). Badakit jende asko joaten dela, baina beti ikusten ditut hor, gora begiratzen dudanean, eta egiteko gogoa ematen du. Pareta asko daude munduan, baina Riglos noizbait igo beharra daukat.

**Patinajean ere ibiltzen zara; lehiaketetan parte hartzen duzu?**

Herri lasterketetan parte hartu izan dut. Arrasate-Oñati, adibidez, egin dut aurten, eta datorren astean ere beste lasterketa bat dago. Lilatoian ere parte hartu nuen behin Hanka-Labankako neskekin.

**Uste duzu badaudela baliabideak patinajea egiteko?**

Egon badaude, baina uste dut mugak nabarmenak direla; Bergaran bertan bidegorria hartzeko nahiko lan izaten dut. Bilatuz gero, baliabideak badaude, baina ez oso eskuragarri.

**Hanka-Labanka elkartean zer egiten duzue?**

Gauza asko antolatzen dira patinajearen inguruan. Umeendako hockey ekintzak antolatzen dira, adibidez, eta hainbat lasterketatan hartzen dugu parte. Kirola Kalera ekintzan ere parte hartu izan du Hanka-Labankak elkarte moduan.

**Zein ezaugarri komun dituzte eskaladak eta patinajeak biak gustuko izateko?**

Tartean baloirik ez dagoela. Beharbada, desberdinak izatea da gustatzen zaidana; bestela, dena berdina izango balitz... Gainera, biak batera egin ditzaket; rokodromora patinetan joan izan naiz askotan.

**Zaila da zaletasun horiek ikasketekin uztartzea?**

Ni nabilen mailara ez. Hala ere, ikasketek beti mugatzen gaituzte, baina, motibazioa dagoenean, beti saiatzen gara tartetxo bat ateratzen, ikasketak eta kirola ez dira bateraezinak.

**Marrazketa ere egiten zenuen; jarraitzen duzu horrekin?**

Ez lehengo moduan. Lehen, marrazketa eskoletara joaten nintzen eta nire egunerokotasunean presente zegoen. Orain, marrazten dut, baina aspertuta nagoenean, gogoa daukadanean edo norbaiti marrazki bat egin behar diodanean. Baina beti gustatuko zaidan zerbait da.

**Eskaladarekin eta patinajearekin jarraitzeko asmoa duzu?**

Orain arte, nahi izan dudana egin dut, eta gustatzen zaidan bitartean aurrera egingo dut.



Ikasketak eta oso zaletasun desberdinak bateratzen ditu Mujikak.

IDOIA DAVILA

**PERTSONALA**

**Eskalatzeko leku bat:** Ogoño edo Araotz.

**Patinatzeko leku bat:** Bergarako bidegorria.

**Eskalatzea edo patinatzea:** Momentu honetan, eskalatzea.

**Bizi izateko leku bat:** Korsika.

**Pelikula bat:** *El jardinero fiel.*

**Amets bat:** Nahi dudanean eskalatu eta patinatzea.

**Bergarako txokorik maiteena:** Errekalde.

**Liburu bat:** *Lagun izoztua.*

## ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
**Gentzane Andetxaga Korujo**
Azaroaren 5ean, 11 urte. Zorionak! Ondo pasatu eguna. Muxu bat aitaren, amaren eta Oinatzen partetik. Aupa GBC!



ARRASATE
**Laia Etxagibel Ruidiaz**
Azaroaren 5ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Oier Guzman Orobengoa**
Azaroaren 4an, 8 urte. Zorionak munduko atezain onenari! Patxo pila Jokinen, aitatxoren eta amatxoren partetik.



BERGARA
**Beñat Piñeiro Gartzia**
Azaroaren 1ean, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, Beñat, etxekoen eta lagunen partetik.



BERGARA
**Jokin Alberdi Garitano**
Urriaren 31n, 6 urte. Zorionak gure etxeko 'bitxituari'! Ondo ospatu familiarekin eta lagun guztiekin.



BERGARA
**Ane Jauregi Elorza**
Urriaren 31n, 8 urte. Zorionak, Ane! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Lagunen eta etxekoen partetik, pa, pa eta pa.



ARRASATE
**Saioa Bergaretxe**
Urriaren 30ean, 4 urte. Zorionak,! Patxo eta besarkada handia, bereziki, ahizpa Arrateren, eta baita ere gurasoen, aitititteren, amamaren, izeba-osaben eta lehengusina Alaitzen eta Malenen partetik.



ESKORIATZA
**Kimetz Karpio Azpitarte**
Urriaren 30ean, 4 urte. Zorion potoluak, zure amama Resuren eta aitaita Txominen aldetik. Aupa zure lau urteak!



BERGARA
**Maite Larrañaga Olabarria**
Urriaren 30ean, 35 urte. Zorionak, polit hori! Patxo handi-handi bat Elixabeteren, Martinen eta etxeko guztien partetik eta ondo-ondo pasatu eguna!



OÑATI
**Enaitz Kortabarria Txintxurreta**
Urriaren 30ean, 8 urte. Zorionak, Enaitz! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat danon partetik!



BERGARA
**Oinatz Gallastegi**
Urriaren 30ean, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo bat etxekoen eta laguntxoen partetik, eta muxu erraldoi bat Maddiren partetik.



OÑATI
**Nora Guridi Carrascal**
Urriaren 30ean, 7 urte. Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Muxu handi bat etxekoen partetik!



IDIAZABAL
**Ekain Zabaleta Urteaga**
Urriaren 30ean, urtebete. Zorionak, laztana, Arrasateko aitaita-amamen partetik!



OÑATI
**Paul Anduaga Arregi**
Urriaren 29an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetze egunian familixa danaren eta, bereziki, Sararen, Martinen eta Maddalenen partetik.



ESKORIATZA
**Eleder Garcia Hermosel**
Urriaren 29an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Familiaren partetik.



ANTZUOLA
**Oier Aldasoro Azkarate**
Urriaren 28an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



BERGARA
**Laia Casillas Fortuna**
Urriaren 26an, 8 urte. Zorionak, Laia! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxekoen eta lagunen partetik.



ARETXABALETA
**Maren Lazpiur Eraña**
Urriaren 25ean, 9 urte. Zorionak, potxola! Disfrutatu eguna zure laguntxoekin eta primuekin. Patxo potolo bat eta besarkada estu-estua, danon partetik!



ARRASATE
**Aratz Pascual Belategi**
Urriaren 25ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Familiaren eta lagun guztien partetik.



ESKORIATZA
**Haritz Arrese Otamendi**
Urriaren 24an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, artista! Merixenda goxue prestatu Leixarrapen. Patxo potolo bat familixa danaren partetik. Aupa Reala!



ARRASATE
**Oxel Souto Lasa**
Zorionak, morrosko! 3 urtetzar! Oso-oso ondo pasatu eta txokolate asko jan zure egun handian! Muxu potolo karrukada bat, etxeko denen partetik!



OÑATI
**Madalen Etxegarai Zelaia**
Urriaren 23an, 10 urte. Zorionak etxeko danon partetik! Muxu handi bat eta ondo pasatu zure eguna.



ARRASATE
**Txaro Azkarate Zabarte**
Urriaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, tia Txaro. Familiako guztien partetik.



ANTZUOLA
**Beñat Azkarate Vazquez**
Urriaren 22an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Egun polit-politxa auki eta patxo handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Amaiur Beitia Urkia**
Urriaren 22an, urtebete. Zorionak, Amaiur! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean, familixa danaren partetik!



GASTEIZ
**Paula Zubia Murugarren**
Urriaren 22an, 2 urte. Zorionak, maitxia! Oso egun polita pasatu genuen! Muxu handi-handi bat! Zure aiton-amonak.



OÑATI
**Eneko Lezeta Urkia**
Urriaren 21ean, 16 urte. Zorionak eta urte askotarako, Eneko! Ondo-ondo pasatu zure eguna, familia guztiaren partetik.

ZORION AGURRAK TELEBISTAN
GOIENA TELEBISTA | KORAPILO
ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 ETA 17:00 | MADDIK AURKEZTUA



25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** 65 metro koadroko etxebizitza salgai Arruriaga kalean. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 943 76 93 85

**Bergara.** Aukera ona. Etxebizitza salgai Zabalotegi kalean. Bigarren solairua. Hiru logela eta egongela. 85.000 euro negoziagarri. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 605 72 38 97

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdialdean apartamentu berria ematen da errentan. Logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Trastelekua ere bai. Guztiz jantzia. Berokuntza eta igogailuarekin. Pertsona batendako nahiz bikoteendako apartekoa. Kontratuarekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 639 17 49 52

**Jaka.** Bost pertsonendako apartamentua ematen da errentan Jakan, eskiatzeko garaian. Bi logela, garajea eta trastelekua. Gasezko ur beroa eta berokuntza indibiduala. Eguzkitsua. 2.200 euro -abendutik martxora- gehi gastuak. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 688 66 96 16

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dugu errentan. Bi edo hiru logelakoa. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 634 04 17 30

**Arrasate.** Etxebizitza handia behar dut errentan, erdigunean. 666 68 00 04 (Carmen) edo 677 22 71 52 (Sara)

**Bergara.** Erretiratu bikote batek etxebizitza behar du errentan, elbarriendako egokitutako bainugelarekin eta igogailuarekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632 77 35 38

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garaje itxia salgai Bolun. 24.000 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 943 76 93 85

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje itxia alokatzen da Santa Kurtz 24an, Lezaman. Hilean 60 euro. Harremanetarako deitu zenbaki hauetara: 647 08 00 16 edo 666 20 19 92

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**ARRASATE**
Ile-apaindegia saldu edo errentan ematen da, jarduna utzi dugu-eta.
650 54 69 12

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Eskoriatza.** Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 678 66 66 54

**Eskoriatza.** Emakume bat behar dugu etxeko lanak egiteko orduka. Autoa izatea beharrezkoa da. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 605 76 28 11

**Haurrak zaindu.** Pertsona euskalduna behar da haur bat zaintzeko eguerdietan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 687 06 80 01

### 402. ESKAERAK

**Administrazio laguntzailea.** Erdi mailako administrazioko gradua daukan neska lan bila. Gidabaimena eta autoa ditut. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 629 98 42 56

**Arrasate, Bergara eta Oñati.** Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Arrasate.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat eta hiru urtez nagusiak zaintzen aritu izanaren egiaztagiri eta erreferentzia onak. Bestela, eraikuntzan ere lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 678 25 95 46

**Bergara edo Arrasate.** Haur Hezkuntzako ikaslea, esperientziaduna, haurrak eta nagusiak zaintzeko prest arratsaldez eta asteburuetan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 645 70 23 37

**Bergara.** Emakume arduratsua, informe onak dituena, gertu garbiketa lanetan aritzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 696 27 25 34

**Bergara.** Irakasle ikasketak burutzen ari naiz eta umeak zaindu edo goizetan eskolara eramateko gertu nago. 636 46 76 33

**Debagoiena.** Antzuolan bizi den emakumea, etxeko lanak egiten edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen lan egiteko prest. Aurretik lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 672 29 74 58

**Debagoiena.** Arrasaten bizi den emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Etxeko lanak egiten ere lan egingo nuke. Ordutegi aldetik ez daukat inongo arazorik. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 629 06 94 11

**Debagoiena.** Astean zehar, 10:00etatik 16:00etara bitartean, nagusi edo umeak zaindu eta enkarguak egin, jatekoak prestatu, garbiketak egin eta abarrak egingo nituzke. Esperientziaduna. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 634 26 10 92

**Debagoiena.** Bertako mutila gertu margotzen, tabernari edo nagusiak zaintzen jarduteko. 697 88 35 62

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile ikasketak dituen gizona nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat lan horretan. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. 631 17 16 35

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak orduka zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea naiz eta zaintza lanak eta garbiketak egiteko gertu nago. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 656 70 29 29

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Etxeko lanak egiten eta bertan jana prestatzen ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 662 43 08 54

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta abarrean. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 631 49 94 96 edo 688 85 44 78

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 695 73 28 96

**Debagoiena.** Gertu nago garbiketa lanetan jarduteko: etxe, atari, lantegi eta abarrak. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632 77 35 38 edo 645 72 92 87

**Debagoiena.** Mutila garbiketa lanetarako gertu. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632 04 69 77

**Debagoiena.** Mutila gertu etxean bertan bizi izanda nagusiak zaintzeko. Garbiketak edo tabernari lanak ere egingo nituzke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 685 64 85 64

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko, banaketa lanetarako, etxeen mantenurako edo baserriko lanetarako. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 634 14 36 65

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketan, etxeko lanak egiten eta abarrean lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 717 15 01 69

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta etxeak edo enpresak garbitzen egiten lan egingo nuke. 685 77 66 21

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo etxe, lantegi eta abarren garbiketak egiten lan egingo nuke. 631 15 76 23

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen esperientzia daukat eta lan bila nabil. Berehala hasteko gertu. 634 04 17 30

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erreferentzia onak aurkez ditzaket. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, etxeak garbitzen edo ospitalean gaixoekin egoten lan egingo nuke. 602 57 32 75

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, hoteletan zerbitzari, garbiketa lanetan eta abarrean esperientzia daukat eta lan bila nabil. Berehala hasteko gertu eta ordutegi zabala. 631 15 76 23

**Debagoiena.** Nagusien laguntzan lan egingo nuke. Garbiketan, erosketak egiten edota jana prestatzen ere bai. Janaria manipulatzeko titulua daukat eta sukaldaria naiz. Elkarteak garbitzeko ere gertu nago. 625 28 38 11

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta atsegina, nagusi eta umeak zaintzen esperientzia duena, etxeko langile moduan aritzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita orduka garbiketak egiteko ere. 602 16 00 28

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperientziaduna gertu umeak zaintzeko, nagusiekin egon eta paseoan laguntzeko edo orduka garbiketa lanak egiteko. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko. 671 18 50 83

**Debagoiena.** Neska arduratsuak lan egingo luke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita atariak garbitzen ere. 602 07 95 55

**Debagoiena.** Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, ordutegi zabala dut. Gidabaimena eta auto partikularrarekin. 629 98 42 56

**Debagoiena.** Neska euskalduna, erizain laguntzaile tituluduna, nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Autoa daukat. 617 20 59 43

**Debagoiena.** Neska gertu etxean nagusiak zaindu edota ospitalean gauak pasatzeko. Geriatria tituluduna naiz. Autoa daukat. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketak egin eta nagusiak zaintzeko. 632 83 51 04

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko, garbiketak egiteko zein sukaldean laguntzeko. Erreferentzia onak ditut. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Zaintza lanetan eta garbiketak eta abarrak egiten lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia daukat. 602 07 95 55

**Gidari lanak.** Bergarako mutila gidari moduan lan egiteko gertu. Gidabaimen guztiak dauzkat. 665 73 90 98

**Haurrak zaindu.** Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Ordutegi zabala. Gidabaimena eta autoarekin. 629 98 42 56

**Ile-apaintzailea.** Ile-apaintzaile eta estetizista lanerako prest Debagoienean. 605 72 64 43

**Lan bila.** Zerbitzari moduan lan egingo nuke. Hiru urteko esperientzia dut. Ume eta nagusiak zaindu edo etxe eta abarren garbiketak ere egingo nituzke. Ordutegi zabala. Debagoienean edo baita Eibarren ere. Eskerrik asko. 676 44 85 58

**Oñati.** 29 urteko neska, Haur Hezkuntzako ikasketekin, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest. Goizez, arratsaldez edo orduka. Autoa daukat. 664 53 28 56

**Oñati.** Esperientziadun emakume euskalduna arratsaldez umeak zaintzeko prest. 645 00 72 03

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergoko bigarren mailako gaztelerako eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Esperientziaduna. 669 87 24 54

**Frantsesa.** Frantseseko eskola partikularrak hartuko nituzke Oñatin. 635 71 29 77

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astakumea.** Astakumea salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 20 59 19

### 704. BESTELAKOAK

**Txakurra galdu Elosun.** Elosun Border Collie arrazako txakurra falta da. Zuri-grisa da eta begi bat urdina eta bestea urdin-marroia dauzka. Astebete bada falta dela. Lepokorik eta txipik ez dauka. Norbaitek ikusi badu edo jaso badu, faborez hots egin ondoko telefonora: 688 92 00 86

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Autorako jarlekua.** Umeak autoan eramateko 3. taldeko jarlekua erosiko nuke. Ez dut asko ordaindu nahi. 656 71 56 40

**Lingoteak.** Urrezko eta zilarrezko lingoteak erosiko nituzke. 656 75 76 98

### 805. TRUKATU

**Hizkuntza trukea.** 21 urteko neska frantsesak frantsesa-gaztelera hizkuntza trukea egin nahi du, jendea ezagutu, kalera atera eta ondo pasatzeko. Whatsapp (Emilie): 0033 680 54 26 52

### 806. GALDU

**Pultsometroa.** Polar M400 pultsometroa Aretxabaletan galduta. 688 69 15 16

### 808. BESTELAKOAK

**Lursaila errentan hartu.** Bergara eta inguruetan lursaila hartuko nuke errentan. Ahal bada urarekin. Deitu 14:00etatik aurrera mesedez. 617 10 22 37

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

| **1. ETXEBIZITZAK** | **3. LOKALAK** | **5. IRAKASKUNTZA** | **7. ANIMALIAK** | **9. HARREMANAK** |
|---|---|---|---|---|
| 101. Saldu | 301. Saldu | 501. Jaso | 701. Saldu | 901. Agurrak |
| 102. Erosi | 302. Erosi | 502. Eman | 702. Erosi | 902. Harremanak |
| 103. Errentan eman | 303. Errentan eman | 503. Bestelakoak | 703. Eman | 903. Deiak |
| 104. Errentan hartu | 304. Errentan hartu | | 704. Bestelakoak | 904. Bestelakoak |
| 105. Etxeak osatu | 305. Bestelakoak | **6. MOTORRA** | | |
| 106. Bestelakoak | | 601. Saldu | **8. DENETARIK** | |
| | **4. LANA** | 602. Erosi | 801. Saldu | |
| **2. GARAJEAK** | 401. Eskaintzak | 603. Errentan eman | 802. Erosi | |
| 201. Saldu | 402. Eskaerak | 604. Bestelakoak | 803. Eman | |
| 202. Erosi | 403. Bestelakoak | | 804. Hartu | |
| 203. Errentan eman | | | 805. Trukatu | |
| 204. Errentan hartu | | | 806. Galdu | |
| 205. Bestelakoak | | | 807. Aurkitu | |
| | | | 808. Bestelakoak | |

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkalekua eta txokoa. 85.000€ AUKERA ONA.
- Aranerreka 79m², 3 logela, trasteroa, garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 159.850€
- Koldo Eleizalde, 74 m²+30m² ganbara, duplexa egiteko aukera 170.000€
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000 NEGOZIABLEA.
- Koldo Elelizalde 87m², 3 logela, oso ondo apaindua. Fatxada berriztuta. 210.000€
- Bolun 129 m²ko Lokala salgai. Ekipatua. 95.000€. PREZIO JEITSIERA.
- Burdiñate, 93m², 3 logela, berogailua, igogailua. Garajea barne. 276.000€
- Masterreka 72 m², duplexa. 150.000€ ESTREINATZERA. AUKERA ONA.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600€
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000€
- Zubieta 125 m², terraza eta 2 horturekin. Bi etxe egiteko aukera 192.000€
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m²ko terrazarekin. 115.000€ AUKERA ONA.
- San Pedro 90 m², 4 logela. 95.000€ AUKERA ONA
- Zabalotegi, 80 m², 2 logela, berriztua. 156.263€
- Zabalotegi, 62 m², 3 logela. Berrizteko. 80.000€
- Artekale 108 m², 3 logela. 130.000€ OSO OSO NEGOZIABLEA.
- Bidekurutzeta, 58 m², 2 logela. 32.000€ AUKERA ONA.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000€
- Urteaga 109 m², 4 logela. Galeriarekin oso eguzkitsua. 216.364€
- Urteaga 75 m². Berrizteko. 75.000€
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000€
- Martoko 93 m², 3 logela, trastelekua. 155.000€
- Martoko 140 m², duplexa, eraikin berria. Eguzkitsua. 225.000€ AUKERA ONA.
- Zubiaurre, 81 m², 2 gela. Trastelekua. 73.000€ PREZIO JEITSIERA. AUKERA ONA.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Igogailua. Trastelekua, 185.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trastelekua. 90.000€ NEGOZIABLEA. AUKERA ONA.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000€
- Baserria 233m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko permisoarekin. 250.000€
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61m². 3 logela eta trasteroa. BERRIZTEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA
- Osintxu 70m². 2 logela eta igogailua. 62.000 AUKERA BIKAINA

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 57 m². 2 logela. Oso ondo. 97.000€
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Garajearekin. 199.000€

**ELGETA:**
- Gudarien Bidea, 75 m², berrizteko. 72.000€ AUKERA BIKAINA
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**LAN ESKAINTZA**

**-ERRELEBO KONTRATUA-**

-KIROLDEGIKO INFORMAZIO ETA IZAPIDETZE AGENTEA.

**Izena emateko epea: urriaren 31tik azaroaren 6 arte (biak barne).**

**Lehen azterketaren eguna: azaroak 24**

**Oinarri-arauak:** Arrasateko Udalaren web orrian (www.arrasate-mondragon.org) kontsulta daitezke.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Personal Saila**

## ASTEA GOIENAN


ANDONI ALTZELAI

### Vietnam, Andoni Altzelaik kontatuta

Martitzenean, *Muga barik* saioan, Andoni Altzelai arrasatearrak Vietnamera egin zuen bidaia kontatuko du oso-osorik. Hain zuzen ere, bizi izandako esperientziak partekatuko ditu, eta han egindako argazki sorta erakutsiko du saioan zehar.

**'Muga barik'**
Martitzena, 22:00



GOIENA

### Zapatuko Antxintxika lasterketa ikusgai

Soraluze eta Bergara arteko Antxintxika lasterketa jokatuko da bihar, zapatua, bidegorritik. Gainera, patinatzaileena eta lasterketa egokitua ere izango dira, eta lasterketak emandakoa astelehenko *Harmailatik* kirol saioan ikusi ahal izango da.

**'Harmailatik'**
Astelehena, 22:00

## LABURREAN

### 'Txanogorritxo'ikusteko sarrerak zozketan

Azaroaren 7an 17:00etan Amaia antzokian eskainiko duten *Txanogorritxo* antzerkirako sarrerak zozketatuko dituzte datorren egubakoitzean. *Kooltur ostegunak* egitasmoaren barruan, eguenean Borrokan taldearen kontzertua ikusteko sarrerak ere zozketatuko dituzte eguen horretan bertan.

### Bidali zorion agurrak eta eskaini kantu bat

Irratiko entzuleek *Igo autobusera!* irratsaioan parte hartzeko aukera daukate eta euren lagun edo familiartekoa irrati bidez zorion dezakete. Zoriontzeaz gainera, kanta bat eskaintzeko aukera ere badaukate. Horretarako, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.eus*-era.

### Kontsultatu sarean Goiena telebistako programazioa

Eskaneatu beheko QR kodea Goiena telebistan datozen egunetan zer izango den kontsultatzeko.

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

OROIGARRIA

## Manuel Unamuno Pagaldai



(Imanol Beloki Goienako langilearen aitajauna)

Urriaren 27an hil zen, 84 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena

Goiena Komunikazio Taldea.
Arrasaten, 2015eko urriaren 30ean.



**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

## HILDAKOAK

**Prudentzio Laskurain Irizar.** Arrasaten, urriaren 21ean. 79 urte.
**Jesus Mari Eguren Uriarte.** Bergaran, urriaren 22an. 76 urte.
**Ana Muro Nalda.** Oñatin, urriaren 23an. 94 urte.
**Sabino Nafarrate Zabala.** Arrasaten, urriaren 23an. 88 urte.
**Maria Dolores Elortza Bergaretxe.** Arrasaten, urriaren 25ean. 63 urte.
**Maurizio Urtzelai Iturricastillo.** Bergaran, urriaren 26an. 93 urte.
**Manuel Unamuno Pagaldai.** Arrasaten, urriaren 27an. 84 urte.
**Maria Rosario Gallastegi Jauregi.** Bergaran, urriaren 27an. 71 urte.
**Alix Dolores Gereka Tosantos.** Oñatin, urriaren 27an. 92 urte.
**Miren Jaione Anso Eguren.** Arrasaten, urriaren 27an. 50 urte.
**Juana Markiegi Garmendia.** Bergaran, urriaren 27an. 90 urte.
**Amador Blazquez Perez.** Aretxabaletan, urriaren 27an. 83 urte.
**Encarnacion Navarro Sanchez.** Arrasaten, urriaren 28an. 94 urte.
**Argimiro Perez Albala.** Arrasaten, urriaren 28an. 79 urte.
**Rosarito Larrañaga Ariznabarreta.** Bergaran, urriaren 28an. 86 urte.

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



### Ambrosio eta Marilo

Ambrosio Garitaonaindia eta Marilo Ansoategi Arantzazun ezkondu ziren, orain dela 50 urte. "Familia eta lagunak urriaren 31n elkartuko gara urrezko ezteiak ospatzeko. Zorion eta besarkadarik beroenak, etxekoen partetik. Asko maite zaituztegu!".







### Pili eta Cecilio

"50 urte bete dituzue ezkonduta eta lau seme eta hiru biloba dauzkazue. Zuek zarete gure bizitzaren indarra. Musuak denon partetik, eta gutxienez 100 urte bete arte bizi lasai!".



### Lide eta Martin

Lide Oregi eta Martin Arana urriaren 28an ezkondu ziren Santa Marina elizan, orain dela 55 urte. Igandean ospatu zuten familia osoarekin. "Zorionik beroena eta muxu handi bana, aitaita eta amama. Segi horrela urte askotan".



### Carmen eta Jose Luis

Carmen Iturralde eta Jose Luis Arregi urriaren 30ean ezkondu ziren, orain dela 50 urte. "Bihotz -bihotzez, zorionik beroenak eta muxu handi bana, zuen familia osoaren partetik. Bihar gustura elkartuko gara zuekin egun eder hori ospatzeko".



### Angelines eta Cipri

"Zorionak, Cipri eta Angelines! 50 urte elkarrekin. Gozatu zuen urrezko ezteiak, eta urte askotarako! Familiaren partetik, muxu handi bat".

OROIGARRIA



## Juan Jose Arregi Agiriano-Zabalaga



2013ko urriaren 31n hil zen.

*Zure irribarria bizirik dau gure bihotzetan.*

*Ez zaittugu sekula ahaztuko.*

**Arrasaten, 2015eko urriaren 30ean.**

OROIGARRIA

## Jose Domingo Etxebarria Uriarte

'Txetxu'



2014ko urriaren 29an hil zen, 68 urte zituela.

*Beti izango zara gure bihotzean.*

**Familia eta lagunak.**
**Arrasaten, 2015eko urriaren 30ean.**

OROIGARRIA

## Jesus Mari Eguren Uriarte

Pertxa elkarteko lehendakari ohia



2015eko urriaren 22an hil zen.

*Elkartearen sorreran eta urte askoan egindako lanagatik, mila esker.*

PERTXA ELKARTEA

**Pertxa elkarteko zuzendaritza.**
**Bergaran, 2015eko urriaren 30ean.**

ESKER ONA

## Encarnacion Navarro Sanchez

Miguel Serratoren alarguna



Urriaren 28an hil zen, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Arrasaten, 2015eko urriaren 30ean.**

ESKER ONA

## Maria Rosario Gallastegi Jauregi



Urriaren 27an hil zen, 71 urte zituela.

*Joan zara gure ondotik*
*Izarretara urruti*
*Baina zurekin bizitakoa*
*Bihotzetan izango dugu beti.*

Etxekoak

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

**Bergaran, 2015eko urriaren 30ean.**

ESKER ONA

## Jesus Maria Eguren Uriarte



2015eko urriaren 22an hil zen, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Bergaran, 2015eko urriaren 30ean.**

URTEURRENA

## Jenaro Aizpeurrutia Etxeberria



2014ko urriaren 26an hil zen, 79 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 31n, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eta urte honetan gure ondoan egon zareten guztioi, mila esker.**
**Oñatin, 2015eko urriaren 30ean.**

URTEURRENA

## Roberto Aiastui Arregi



2014ko urriaren 31an hil zen, 67 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 31n, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2015eko urriaren 30ean.**

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK







### Leonor eta Francisco

Antzuolako Leonor Rayak eta Francisco Garciak urrezko ezteiak ospatuko dituzte zapatuan. "Zorionak, bikote! Muxu handi bana eta ondo-ondo pasatu eguna".



### Pedro eta Mari Beni

Pedro Zubikarai eta Mari Beni Zabaleta urriaren 30ean ezkondu ziren, orain dela 50 urte. "Zorionik beroena eta muxu handi bana zuen urrezko ezteietan, seme-alaben eta, batez ere, Ametsen eta Eneritzen partetik".



### Txomin eta Loli

Txominek eta Lolik urrezko ezteiak bete dituzte gaur, urriak 30. "Zorionak, bikote, familia osoaren partetik!".



### Abel eta M. Angeles

Abel Saez eta M. Angeles Gutierrez orain dela 44 urte ezkondu ziren Aretxabaletan. "Ondo pasatu zuen eguna eta muxu handi-handia, Aitzolen eta Izaroren partetik".

# ZINEMA

## OÑATI

### KULTURA ETXEA

**Regresion**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Marko Makako (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## ARETXABALETA

### ZARAIA

**Amama**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Asterix eta Jainkoen egoitza**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## EIBAR

### COLISEO

**El ultimo cazador de brujas**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Amama**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Mi gran noche**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

### ANTZOKIA

**El ultimo cazador de brujas**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Hotel Transilvania 2**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## GASTEIZ

### BOULEVARD

**El ultimo cazador de brujas**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:00, 22:15.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**El becario**
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:30, 21:00, 23:30.
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Martitzenetik eguenera: 18:30, 21:00.

**Marte**
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 22:00.
Egubakoitza: 17:30, 20:30, 23:30.
Zapatua: 23:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehena: 17:30, 19:00, 20:30, 22:00.
Martitzenetik eguenera: 19:00, 20:00, 22:00.

**Marte 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**Hotel Transilvania 2**
Egubakoitza eta zapatua: 23:30.
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:30, 21:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitza eta domeka, eta astelehenetik eguenera: 18:30, 20.30.
Zapatua: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena: 17:30, 18:30, 19:30, 20.30, 21:30.

**Hotel Transilvania 2, 3D**
Zapatua eta domeka: 16:30.

**Black mass**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

**Mi gran noche**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30.

**La cumbre escarlata**
Egubakoitzetik eguenera: 20:10, 22:35.

**Pan, viaje a Nunca Jamas**
Egubakoitzetik domekara: 17:50.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Everest**
Egubakoitza eta domeka, eta martitzenetik eguenera: 22:30.
Zapatua: 00:30.

**El desconocido**
Zapatua, domeka eta eguena: 16:00.

**Atrapa la bandera**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00.

**Regresion**
Egubakoitzetik eguenera: 20:20, 22:30, 00:40.

**Del reves**
Zapatua, martitzena eta eguena: 15:30.

**Los Minions**
Domeka eta eguaztena: 15:30.

**Truman**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:45.

**El corredor del laberinto**
Eguaztena: 15:30.

**Lor miercoles no existen**
Martitzena: 15:30.

### FLORIDA

**Tres corazones**
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30.

**Amama**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:35.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 19:45.
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Atrapa la bandera**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Black Mass**
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

**Ciclos**
Martitzena: 20:30.

**Educacion siberiana**
Egubakoitzetik domekara: 18:20.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**El desconocido**
Egunbakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

**El rey de La Habana**
Egubakoitzetik domekara: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 22:30.

**Hotel Transilvania 2**
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 18:35, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:15.

**La cumbre escarlata**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.

**Marte**
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**Mi gran noche**
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 18:35, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

**Taxi Teheran**
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**Truman**
Egubakoitzetik domekara, eta astelehena, eguaztena eta eguena: 20:00, 22:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.
Martitzena: 20:15.

## KRITIKA

# Tonu egokia

**TRUMAN** ★★★★☆
**Zuzendaria:** Cesc Gay.
**Herrialdea:** Espainia eta Argentina.
**Aktoreak:** Ricardo Darín, Javier Cámara, Dolores Fonzi.

Ez zaigu askorik gustatzen heriotzari buruzko gaiak ukitzea. Oso mingarria izaten da maite dugun pertsona bat galtzen dugunean. Sortzen diren sentimendu horietatik ihes egiten dugu. Hori horrela, nahiko zaila izaten da halako gaia jorratzen duten istorioei tonu egokia ematea. Tonuak ez du izan behar latzegia, baina, aldi berean, ezin da tonu bigunegia edo eztitsuegia erabili. Oreka bat lortu behar da, eta Cesc Gayk *Truman*-i tonu egokia ematen dio. Filma komedia dramatikoa da. Dramaren pisua igartzen dugu, eta, aldi berean, malkoekin batera badira irribarre egiteko momentuak. Eta momentu batzuetan, biak batera. Oso ondo neurtuta dago sentimenduen eta emozioen erabilera.

Javier Camarak egiten duen pertsonaia Kanadatik Madrilera doa oso gaixo dagoen lagun bat –Ricardo Darinek egiten duen pertsonaia– ikustera. Agur-bisita bat izango da. Biek badakite elkar ikusiko duten azkeneko aldia izango dela, eta adiskide minak bizitzan emango dituen azkeneko pausoetan lagun izan gura du. Hau irakurrita, agian, beldurtu egin gaitezke. Baina ez, zuzendariak badaki pertsonaien artean sortzen diren emozio jarioak modu egokian bideratzen. Ez zaigu bi lagunen arteko iraganari buruzko informazio askorik ematen. Elkar ikusten duten unean, ikusleak antzeman ditzake bien artean dauden adiskidetasun loturak: begiradek, keinuek eta ahotsen tonuek bikain adierazten dute momentu horietako zirrara. Eta barrutik daukaten emozio jarioa irudikatzea lan erraza ez bada ere, zuzendariak eta aktoreen lan zoragarriak –Ricardo Darinen eta Javier Camararen interpretazioak saritu zituzten Donostiako Zinemaldian– helburu hori lortzen dute. Denbora guztian heltzen zaizkigu pertsonaien sentimenduak. Kanpotik lasai egon nahi dute, baina nabarmena da euren emozioa. Cesc Gayk, komedia eta dramarekin jokatuz, film maitagarria burutu du.

ANTONIO ZABALA

# NON-ZER

URRIA 30
AZAROA 5

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**OÑATI Akauzazte taldea**
Azkoitiko taldea musika elektronikarik gabe egiten aitzindari izan zen, eta post-rockaren eta antzeko estiloen aurrekari. Sarrerak, hiru euro.
Bihar, zapatua, Antixenan, 22:00etan.

## ERAKUSKETAK

**ARETXABALETA Mikel Zamora**
*BidataTU* delako erakusketa ipiniko du argazkilari aretxabaletarrak.
Azaroaren 2tik 30era arte, Arkupen.

**ANTZUOLA Iker Aizkorbe**
*Zazpi kolore* delako erakusketa.
Urrian ikusgai, Aitz Garbi tabernan.

**BERGARA Jose Antonio Untzurruntzagaren erakusketa**
45 argazki ikusgai domekara arte.
Azaroaren 1era arte, Aroztegin.

**OÑATI Alvarez de Eulateren omenezko lehiaketaren erakusketa**
Arantzazu eta hango inguruak irudikatzen dituzten lanak.
Azaroaren 1era arte, Gandiaga Topagunean.

**ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'**
Bixente Barandiaranen lanak eta burdina hizpide.
Harresi aretoan ikusgai.

## UMEAK

**ELGETA 'Ipuinak biraka'**
Alabazan taldearen eskutik, tailerra 6 urtetik aurrerako neska-mutikoendako. Gidaria Pedro Alabazan izango da.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:30ean.

**ESKORIATZA Maite Franco**
Ipuin kontaketa saioa 6-12 urte artekoendako.
Bihar, zapatua, ur deposito zaharrean, 18:30ean.

## GAZTELEKUAK

**ESKORIATZA Kandelagintza tailerra**
Kandelak nola apaindu erakutsiko dute.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 17:30ean.

**ARETXABALETA Sukaldaritza tailerra**
Beldurrezko platerak prestatu beharko dituzte.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 17:30ean.

**ARRASATE Arimen Gaua**
Mozorrogintza tailerra egin ostean, antzina gertatutako beldurrezko istorioa kontatuko dute.
Bihar, zapatua, erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

**ESKORIATZA Arimen Gaua**
Afari-merienda egingo dute, eta ostean, depositu zaharrera joango dira.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan.

**ARETXABALETA Arimen Gaua**
Afaltzeko elkartuko dira, eta gero, Porrukutxarara joango dira.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan.

**ESKORIATZA Pelikula**
Beldurrezko filma emango dute.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 17:30ean.

**ARETXABALETA Pelikula**
Beldurrezko filma emango dute.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 17:30ean.

**ARRASATE Pelikula**
Beldurrezko filma emango dute.
Etzi, domeka, erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

## ANTZERKIA

**DEBAGOIENA 'Mr. Kebab'**
Joan Estraderrek antzeztutako eta zuzendutako ikuskizuna. Magia absurdoa eta surrealismoa erabiliko ditu. Emanaldi bikoitza: gaur, egubakoitza, 22:30ean, Zaldibarren; eta bihar, zapatua, 22:30ean, Espaloian.
Aipatutako orduetan, lekuetan eta egunetan.

**BERGARA 'Opera abeslaria'**
Deabru Beltzak taldearen antzezlana, 5 urtetik gorako umeendako. Umeak opera mundura hurbiltzeko era ludiko eta entretenigarria. August Strindbergen *Tabako lehortegiko sekretuak* izeneko ipuinean oinarritutako antzezlana. Sarrerak, lau euro.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 18:00etan.



Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari esker
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final laurdenerako sarrerak ditugu
Eskoriatzako kiroldegian
Azaroaren 8an, 17.30ean

PARTE HARTZEKO:
**SMS:** KLUBA [Bertsoak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA Bertsoak [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba


Espaloia Kafe Antzokiari eta Pikupe Produkzioak-i esker
'Mozkorra parregarri' opera komikoarako sarrerak ditugu
Espaloia Kafe Antzokia, Elgeta
Azaroaren 7an, 19.00etan

PARTE HARTZEKO:
**SMS:** KLUBA [Mozkorra Parregarria] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA Mozkorra Parregarria [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba


Espaloia Kafe Antzokiari esker
Trio Basauri taldearen emanaldirako sarrerak ditugu
Espaloia Kafe Antzokia, Elgeta
Azaroaren 6an, 22.30ean

PARTE HARTZEKO:
**SMS:** KLUBA [Trio Basauri] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA Trio Basauri [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba

**ARRASATE 'Marina' opera**
Emilio Arrietaren lana eskainiko dute. Helena Orkoien sopranoa eta Luis Alberto Giner tenorea dira protagonistak. Eurekin batera, Marije Ugalde sopranoa eta Andres del Pino eta Valen Moñux tenoreak egongo dira. Donostiako Lirica orkestrak ipiniko du musika.
Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 20:30ean.


ALGECIRAS.ES

## HITZALDIAK

**BERGARA 'Wolframaren erabilera fusioan'**
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien barruan, Enrique Askasibarren hitzaldia.
Gaur, egubakoitza, Laboratoriumen, 19:15ean.

**OÑATI 'Oñatiarrak eta itsasoa historian zehar'**
Jose Antonio Azpiazuren hitzaldia erretiratuen kultura astean. Gertuen 40 kilometrora duten itsasoarekin oñatiarrek izandako hartu-emanaz egingo du berba.
Azaroaren 3an, Pake Lekun, 17:30ean.

**ARRASATE 'Murugaineko indusketak'**
*Arrasateko iragana astintzen* hitzaldi zikloren lehen berbaldia, Etor Telleria arkeologoarekin. Euskaraz.
Azaroaren 3an, Kulturaten, 19:00etan.

**ARRASATE 'Ser dueño de mi actitud'**
Antonio Larruyren berbaldia.
Azaroaren 5ean, Kulturaten, 18:00etan.

## IKUS-ENTZUNEZKOA

**ARRASATE 'Beltzean mintzo'**
Hego Amerikako jatorrizko hizkuntza nagusien egoera, hizkuntza eta komunitate horien erronkak eta horien biziberritzea azaltzen du. Ostean, solasaldia, Ander Bolibarrekin eta Txema Abarrategirekin.
Azaroaren 4an, Kulturaten, 19:00etan.

## TURISMOA

**ANTZUOLA Antigua ermita**
Bisita gidatu berezia Antiguako ermita eta Antzuolako erdigunea ezagutzeko. Izena emateko: 943-79 64 63 telefonoa edo *turismo@debagoiena.eus* helbidea.
Bihar, zapatua, Antzuolan, 10:00etan.

**ELGETA Intxortara bisita gidatua**
Gerra zibila Euskal Herrian oinarri hartuta, ibilbide honetan, Elgetako Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera dago. Euskaraz. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus*.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

## AZOKAK

**ARAMAIO Urriko azoka**
Herriko eta kanpoko produktuen azoka: barazkiak, artisauak, frutak, animaliak... Gainera, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzen emanaldiak eta herriko dantzarien eta trikitilarien saioak egongo dira.
Bihar, zapatua, Aramaion, 11:00etan.

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Baserritarren eta bertako produktuen azoka egingo dute. Azaroko lehena izango da.
Azaroaren 4an, Oxirondon, 18:00etan.

## OSPAKIZUNA

**ELGETA Arimen Gaua**
*Karlista galduaren altxorra bila* antzezlana eskainiko dute 6. mailako neska-mutikoek.
Gaur, egubakoitza, Mendizaleen plazan, 19:30ean.

**OÑATI 'Herrixa kantuan'**
Kalerik kale euskal kantuak abestuko dituzte.
Bihar, zapatua, udaletxeko arkupetan, 12:30ean.

## OMENALDIA

**ELGETA Hondarribiko arraunlariei eta Jon Sarasketa elgetarrari**
Txarangak, dultzaineroak, opariak... izango dira nagusi.
Bihar, zapatua, Mendizaleen plazan, 11:30ean.

## DEIA

**OÑATI Txirrinkaren bilera**
Azaroko batzarra egingo dute.
Azaroaren 3an, Zubikoan, 19:30ean.

**BERGARA Solasaldia**
Eguazteneko azoka aprobetxatuz, solasaldia egingo du *Amama* pelikularen zuzendari Asier Altunak. Irekia herritar guztiendako.
Azaroaren 3an, Oxirondon, 19:00etan.

## KIROLA

**ANTZUOLA Mendi irteera**
12 kilometroko ibilaldia egingo dute: Deba-Arno-Deba.
Etzi, domeka, autobus geltokian, 08:00etan.

## SARRERAK

**ELGETA 'Mozkorra parregarri'**
Azaroaren 7an, Espaloian egingo den emanaldirako sarrerak salgai daude dagoeneko: Lazkano zapata-dendan, Espaloian, Pikuperen bulegoan eta *www.pikupe.com* atarian eros daitezke. Sarrerak aldez aurretik erosita 12 euro eta leihatilan, 15.
Sarreren salmenta aipatutako lekuetan.

## IKASTAROAK

**BERGARA Argazkilaritza**
Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa egingo dute azaroaren 2tik 15era, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan, 19:15etik 21:15era arte. Izen-ematea Pol-Pol Argazkilari Elkartearen egoitzan.
Izen-ematea, aipatutako lekuan.



**Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!**



Mendiola jatetxeko olagarroa txingarretan.

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU: *943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07*

goienakluba

goiena

2015-10-30

BUKATZEKO

# 'Kantari' abian jartzeko ordua da

- Goiena telebistako kantu ikuskizunerako izen-emate epea zabalik egongo da azaroaren 2tik 6ra
- Musika munduan lehen pausoak ematen dabiltzan hainbat gaztek ondo gogoan dute 'Kantari'

MIRARI ALTUBE | DEBAGOIENA

Has daitezela neska-mutikoak ahotsak gertatzen eta koreografiak entseatzen, badator-eta *Kantari* karaoke ikuskizuna Goiena telebistara.

Debagoieneko ikastetxe guztietan banatuko dituzte izen-emate txartelak astelehenean, azaroaren 2an, eta horiek egubakoitzerako, azaroak 6, beteta itzuli beharko dituzte ikastetxeko idazkaritzan edo Goienaren egoitzan –Arrasate, Otalora Lizentziaduna 31–. Grabazioak, ostera, 2016ko urtarriletik martxora bitartean egingo dituzte, eta gero, Goiena telebistan eman.



Amaia Txintxurreta aurkezlea, ume artean, laugarren edizioan. | IMANOL SORIANO







Sara Alonso, Beñat Arizabaleta eta Aitor Garitano. | A. TXINTXURRETA ETA B. ARIZABALETA

### 7 eta 11 urte artekoak

Bosgarrenez egingo den lehiaketan parte hartu ahal izango dute 7 eta 11 urte arteko gaztetxoek, 2004 eta 2008. urte artean jaiotakoek. Eta aurreko aldietan legez, taldeak izango dira gutxienez hiru lagunekoak eta gehienez bostekoak. Abestiak zozketa bidez banatuko dituzte eta ondoren entseguak etorriko dira. Kontu horiek guztiak posta elektroniko bidez edo telefonoz jakinaraziko dizkiete gaztetxoen gurasoei; horregatik, garrantzitsua da izen-emate txartelean datuok zehaztea.

Oraingoan ere Amaia Txintxurretak aurkeztuko du saioa, eta ume guztiak animatu gura ditu: "Etorri parte hartzera! Abestiak, orain arte moduan, aurrez banatuko ditugu, eta, ondo entseatu ondoren, primeran pasatuko dugu ikuskizun egunean".

### "Gu ere 'Kantari'-n egon gara"

Ilusioa, lotsa-puntua, urduritasuna... Artista galantak direla erakutsiko dute, beste behin, neska-mutikoek. Eta halaxe, artista izateko bidean doaz orain dela urte batzuk *Kantari*-n lehen pausoak eman zituzten hainbat gazte. Sara Alonso aramaioarrak ETBko *Izarrak kalean* lehiaketa irabazi du. Aurretik *Kantari*-ko bi ediziotan jardun zuen: *"Trenaren zain* abestu genuen batean. Eta gogoan dut oso serio hartzen genituela entseguak".

Aretxabaletako Beñat Arizabaletak *Izarrak kalean* eta *Kantugiro* lehiaketetan jardun du. "Baina nire lehen saioa jendaurrean *Kantari*-n izan zen", dio. Eta gaineratu du: "Primeran pasatu nuen, bai entseguetan, bai ikuskizunean; oroitzapen ezin politagoak dauzkat".

Bergarako Aitor Garitanok, ostera, Euskal Herriko haur kantarien txapelketa irabazi zuen ekainean. Eta eskarmentu handia du kantu ikuskizunetan, *Peter Pan* eta *Mozkorra parregarri* musikaletan jardun du eta. Hark ere *Kantari*-n eman zituen lehenengo pausoak: "Boskotea elkartu ginen eta *Furra Furra* abestu genuen. Oso esperientzia polita izan zen", dio, eta sekulako giroa egoten zela Zabalotegi aretoan du gogoan: "Urduritasuna, ezinegona... Nire lehenengotako eskola izan zen eta ondoren hasi nintzen musika munduan: musikalak, abesbatzak, opera... Beti animatu izan ditut lagunak parte hartzera".

AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA



## Kintadak

Udazkenean gaude, eta hostoen erorketa bezain natural bihurtu dira kintadak eta antzerakoak azken urteetan.

Larunbat batean bai eta hurrengoan ere bai, hor dira urte berean jaiotakoen bazkariak, umetan eskolakide izandakoena edo kirol talde berean aritutakoena, adibidez.

Aspaldi antolatzen dira horrelakoak; badaude denboraren poderioz oso kide gutxi geratzen direnak topaketa egiteko. Edonola ere, fenomenoa gorantz doala iruditzen zait. Izango da gero eta ikusgarriago direlako kalean –batzuk zapia lepoan, musikaz lagunduta...– edota hedabideetan, eta, horrenbestez, erakargarri gertatzen direlako.

Zergatik ospatzen dira sasoi honetan? Izan daiteke bere garaian kintoen zozketak udazkenean zirelako, hilabete hauetan jarduera sozial gutxiago dagoelako herrietan, zuhaitzek bizitasuna galtzen ikustearekin bat nostalgiko jartzen garelako... *Garelako*, zeren eta guk ere egiten dugu-eta bazkaria: txikitan klasekide izan ginenak elkartuko gara datorren astean.

Munduko errekorra daukagulakoan nago, gainera –aurreko lerro guztiak hona iristeko ziren...–: batzen gara EGBko 1. mailako ikasleak eta irakaslea. Hara marka!

*"Jan ezazu bizitza begiekin, Variluxekin."*

P. MANSO
Optika

Irizar pasealekua, 2, BERGARA
Tel.: 943 76 27 86

RPS: 56/11



Zure bigarren betaurreko parea
OPARI
Eskaintzaren baldintzak optikan bertan kontsultatu.

VARILUX
Babes osoa izateko

Transitions
Crizal Prevencia
Crizal Sun UV

E-SPF: informazio gehiago: www.espf.es